



ttipi-ttapa



HERRIETAKO BESTAK / 24

5.653 ikaslek hasi dute ikasturtea eskualdeko ikastetxeetan / 14



Iñigo Ostiz Eskalada Doneztebeko xake jokalariairekin kontu kontari / 28



JM ONDIKOL

Idoia Sobrino Lopez Baztango Liburutegi Publikoko liburuzaina / 44

SINADURAK



MIEL M. ELOSEGI IRURTIA / 3



AITOR AROTZENA ALBIZU / 3



LOREA FLORES COMPAINS / 4



AINZANE ARIZTEGI BARRENETXE / 4



Usa OSTOLAZA ZABALA

«ORAIN TXIRRINDULARITZAN JARRAITZEKO MOMENTUA DA, GERO TRIATLOIA HOR IZANEN DUT»

Txikitatik kirolaria da Leitzan bizi den zarauztarra.

Urte askotan triatloietan ibili da eta gaur egun

Laboral Kutxako txirrindularia da / 8

ION ZUGASTI



ZOZKETA / 64

Bertsolaritzaren zita

Irailaren 24an hasiko da Bertsolari Txapelketa Nagusia. Kanporaketa bat Elizondon jokatuko dute / 11

BERA LESACA

Agenda 2022

**IRAILA
URRIA**

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

LESAKAKO
UDALA

<p>TAILERRAK GAITA ETA ATABALA TAILERRAK Larunbatero azararik ekainera 11:30-12:30 Musika eskola Izen ematea: www.berakoagenda.eus Antolatzailea: Berako Kultur Botozdea Prezioa: 100€</p> <p style="text-align: right; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">BERA</p>	<p>22 ORTZEGUNA IPUIN KONTALARIA "BEHIN BATEAN" AHOZKO JAIALDIA 17:30 Lesakako liburutegia behinbateanfestival.com LESACA</p>	<p>24-25 LARUNBATA IGANDEA TOPAKETAK DANBOLIGENAK Antolatzailea: Lesakako txistulariak LESACA</p>	<p>25 IGANDEA KIROLA BERAKO BTT ITZULIA Antolatzailea: Guro Txokoa elkarteak BERA</p>
<p>ERAKUSKETA PACO POZO Isaiazen 13tik 30era. Asteartetik ortziralerara 10:00-13:30 / 16:00-18:30 Larunbata eta igandea 10:00-14:00 Ezkerreko Kultur Etxea LESACA</p>	<p>24 LARUNBATA MERKATUA MERKATU TTIKIA 10:00 Beheko plaza LESACA</p>	<p>24 LARUNBATA ANTZERKIA BIDAIDE METROKOADROKA SORMEN LABORATEGIA 19:30 Kultur etxean Sarrera: 4€ (aitzinetik Agara prentsean) Antolatzailea: Udabiltsa BERA</p>	<p>30 ORTZIRALEA MUSIKA OSCAR CANDENDOREN ORGANO KONTZERTUA NAFARROAKO ORGANORAKO MUSIKA ZIKLOAREN 38. EDIZIOA 19:00 San Esteban elizan Antolatzailea: Nafarroako Gobernua BERA</p>
<p>IKASTAROA OINARRIZKO GAITASUN DIGITALAK ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA IRAILAREN 29TIK URRIAREN 7RA 09:15-13:15 Ezkerreko Kultur Etxea Izen ematea: 948 01 20 12 LESACA</p>	<p>24 LARUNBATA KONTZERTUA UDAK AZKENAK ZIKLOA THE MALCOM YOUNG BAND JANUS LESTER 23:00 Plaza zaharra LESACA</p>	<p style="text-align: right;">URRIA</p> <p>IKUSKIZUNAK GURE ZIRKUA BERAN Bidana karrikak Sarrerak: www.gurezirkua.eus Prezioa: 13€ BERA</p>	

KALAKAN LEZEETAN

Sarako Lezeak
21:00

TRASGA
Folk Mirandes

IRAILAK30

ALEXANDER ARKHINCHEEV
Burialta (Mongolia)

URRIAK01

NAYADE ABESBATZA

URRIAK02

Sarrerak: www.kalakan.eus/kontzertuak



NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA LUZE

Kategoria

Karmeleren ustez ostatu baten kategoria komunak ematen du. Alegia, komuna nolako, ostatua halako. Baliteke, bai, arrazoi puska bat izatea. Mendian, ordea, komunik ez den lekuetan, jendearen kategoria zein den ikusteko zantzuak aurki ditzakegu. Azken aldiko jende oldeak bazter guztietan utzitako arrastoek kezka sortu didate. Trenbide inguruan ibiltzea aski han eta hemen komuneko paperak, kaka pilak eta abar nonahi topatzeko. «Pastelak» bidearen erdi-erdian aurki daitezke inguruan utzitako zikindutako paperez apainduta. Berriz ere hortik pasa behar duenak egin al lezake halakorik? Badakigu batzuetan larrialdiak izaten direla baina ezin al da bidetik baztertu eta zerbait txukunagoa utzi? Ezin al da baztertu, orbela edo harriren batekin estali edo papera gorde eta zakarrontzira bota? Ez dakit... Nolanahi ere, bistakoa da gizarte honen ezaugarrietako bat dela zikinkeria sortzeko gaitasun ikaragarria izatea. Ikasiko ahal dugu bazterrak txukunxeago zaintzen!

«GIZARTEAK ZIKINKERIA SORTZEKO GAITASUNA DU»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Kutsidazu bidea, Ixabel

Emakume honekin bakarren batek kontrakoa uste bazuen ere, sortzeak hiltzea zor eta erresuman barrena auzoz auzo bere zerraldia *street-jiran* aste osoan ibili ondotik, lurak gozo hartu behar izan du honez gero Ixabel. Gure emeritoa ere, *ancha es Castilla*, azken agurra ematera hurbildu zaio, bai ala bye. Eta Charles III.a? Lanera, 73 urterekin.

NABARMENTZEKOAK



ANTONIO
ALUSTIZA
ARTZAINA



CANDIDA
JAUREGI
AMAIURTARRA

Aresoko Antonio Alustiza artzainak eta *Tiki* txakurrak 20. txapela lortu zuten Uharteko Arakilgo Artzain Zakur Txapelketan. Hori irabazita, Nazioarteko txapelketara sailkatu dira.

Irailaren 3an 107 urte bete zituen Amaiurko Arginenean bizi den Candida Jauregik. Osasunez ongi dago eta kantu zaharrak kantatzen ibiltzen omen da. Zorionak!

GIBELERA BEGIRA



2012-09-20 · TTIPI-TTAPA · 574 zk.

Bortzirietako Haurren Eguna mintzagai

Duela hamar urte, irailaren hondarreen Bortzirietako Haurren Eguna antolatzen ari zen Berako Labiaga ikastolako guraso talde bat. Helburua, Bortzirietako eta Iparraldeko haurrek elkar ezagutzeko gune bat izatea zen, eta horren inguruko xehetasunak aletu zituen ikastolako guraso Joxelu Loiartek. TTIPI-TTAPA-ri kontatu zionez, egun osoko besta bat zuten burutan eta horretarako puzgarriak, puzzle erraldoiak, kontsolak eta Irrien Lagunak taldearen eskutik zirku eskola antolatu zituzten. Eguna behar baten ondotik sortu zela azaldu zuen: «Bortzirietako eta Iparraldeko haurren topaleku bat izatea nahi dugu eta beraien artean elkar ezagutzea. Bertatik bertara gaude eta urruti gaudela ematen du».



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza eta Iraia, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantza Iturralde, Arantza Garnio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztexea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senperoko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankomunitatea.
2022ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi eta Malerrekako 42
Leitza 33
Hego Euskal Herria 50
Ipar Euskal Herria, Europa 98
Amerika eta Australia 147





KOLABORAZIOAK

LOREA FLORES COMPAINS

Aldaketarako garaia

Dagoeneko hasiak gara Nafarroan aldaketa klimatikoak ekar diezagukeenari usaina hartzen: sute ikaragarriak, idortea, bero boladak... eta ondorioz ur mozketak, lo egin ezinda pasatako arratsak, inoizko uztarik okerrenak... Maila orokorrean ere azken urteetan krisiak bata bertzearen ondotik jasaten ari gara: osasun krisia, krisi ekonomikoa, krisi energetikoa, eta laster elikadura krisia.

Honek guztiak adierazten digu mugatik gero eta hurbilago gaudela. Lur planetan giza espeziearen biziraupena mantentzeko eta jasangarria izan ahal izateko mugatik alegia. Gainera, honetan guztian okerrena da, berez, jakin badakigula nola eman buelta egoera honi eta baditugula horretarako behar diren tresnak. Horrela adierazi zuen IPPCaren (Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldea) presidentek aurtengo apirilean, mundu osoko zientzialariek osatzen duten talde honek krisi klimatikoaren inguruko hirugarren txostena argitaratu ondotik. Txosten horrek berak adierazi zuen, diru aski badagoela arazoak konpontzeko, baina tamalez, finantziario publikoa eta pribatua gehiago erabiltzen da erregai fosiletarako, krisi klimatikoa konpontzeko baino.

Eta honen aitzinean zer? Arazoaren larritasuna ikusirik,

«ALDAKETA BULKATZEKO GRINA DUGUNON GARAIA DA»

hainbat pertsonak jokatzeko modu ezberdina hartu dute. Badira negazionismoan bere tokia bilatu dutenak arazoaren larritasuna ukatuz. Bertze batzuei arazoak gainezka egin die, eta egoeraren txarrena

ailegatzeko esperoan geldituko direnak edo ailegatu bitartean «bizitza bizi» nahi dutenak hor daude. Badira naturaren defentsan urteak daramatzatenak eta horretan segitzen dutenak ere, instituzio eta enpresen aitzinean presioa eginez gauzak alda daitezten. Eta ertzetan bada ere, badago jende anitz egungo sistemari alternatibak bilatzen eta eraikitzen ari dena.

Erranen nuke, azken horiek, alternatibak bilatu eta eraikitzen ari direnek, eta modu antolatuan aldarrikapenak egiten dabiltzanek badutela itxaropena. Gauzak hobeki egin ditzakegunaren eta mundu hobea eraiki dezakegunaren itxaropena. Agian, bada itxaropen horri heltzeko garaia. Etorkizun hobea imajinatuz, aldaketa bulkatzeko grina dugunon garaia. Gure Garaia!

Zu ere, irakurle, kezkatua bezain itxaropentsu bazaude, irailaren 30etik urriaren 2ra Portugaleten ospatuko diren ekotopaketetan parte hartzera gonbidatu nahi zaitut. Interesa izanez gero, aste honetan bertan, irailaren 23an Elizondan, Baztango Talde Ekosozialaren eskutik topaketa hau inguruko aurkezpena izanen da. Egitarau oparoa duten topaketak dira, hainbat gairen inguruan hausnartzeko, ongi pasatzeko, eta Euskal Herriko ekologismoari lotutako marko komun bat eraikitzeko asmoa dute. Zatoz, azken krisia baino gehiago gure garaia dela aldarrikatzera!



AINTZANE ARIZTEGI BARRENETXE

Nik ere badakit 'desbrozaten'

Harro erran ohi dugu auzolana gure identitatearen parte dela, gure herriarekin arduratsu eta konprometitua den komunitatea dela gurea. Gai aunitzek bezala, honek ere baditu bere argi-ilunak; eta errealtate bat da: emakumeon parte hartzea baxuagoa izaten da beti auzolanean. Batez ere, lan fisikoa egin behar den horietan. Bertzeetan, segur aski, gehiengo izanen gara.

Dilema berarekin egiten dugu topo aldiro-aldiro «herriko bazterrak mantentzeko» edo «Baztandarreneko karroza egiteko» deialdia zabaltzen denetan. «Nik ez dakit gauza horiek egiten» pentsatzen dugu emazteki aunitzek, beraz, «ezin izanen dut inongo ekarpenik egin». Maiz jarri izan gara lagunak pentsatzen: «Eta zergatik dakite gure adintsuko mutilek hori dena egiten, eta guk ez?». Erantzuna argi dugu: «Ez digutelako inoiz erakutsi».

Segur aski mutil horiek guziek hainbat modutan ikasi dute dakiten hori guzia egiten. Izan daiteke baserriko lanetan, ikasketetan, lanean edo auzolanean bertan. 2022. urtean, dagoeneko badakigu gure jendartea nola dagoen egina, eta desberdintasunak zenbaterainokoak diren. Ez naiz hasiko orain azalpenak ematen. Baina emakume eta gizonei rol desberdina inposatzen zaigunez, bizitzan aitzinera egiteko bide desber-

dinak irekitzen zaizkigu.

«EZ AL DA HOBEBI JENDE GEHIAGOK PARTE HARTZEA AUZOLANEAN?»

Hortaz, etxe berdinean hazi garen bi pertsona izanik, nik ez dakit *desbrozaten* eta nire anaiek bai.

Bertzelako argudiorik ere aditu izan dut. Horiek lan gogorak direla eta indarra

behar dela horretarako, edo hemen borondatea duenak ikasten duela, eta ez badakit, orain arte interesa agertu ez dudalako dela. Zenbatetan hasi naiz «ez dagozkidan» lan horiek egiten, eta kendu didate tresna eskuetatik? «Ez dakidalako» edo «min hartuko dudalako». Zenbatetan galdetu dut zertan lagundu nezakeen eta ez dut isiltasun bat bertzerik hartu bueltan? Zenbatetan ikusi dut mutilen bat ezinean, bakarrik egin ezin den lana delako, baina ez dit laguntzarik eskatu, batek daki zerengatik?

Hiru adibide ergel izan daitezke horiek, zuen inguruko emakumei galdetuz gero bertze hainbertze atera ahalko genituzke. Eta traba horien guzien gainetik, badaude *desbrozaten*, eraikitzen, zulatzen dakiten emakumeak. Ukatu zaien lekuan muturra sartu zutelako noizbait seguruenik. Eta ez uste haiek gehiago parte hartzen dutenik auzolanean, haien jakintzak erdia balioko du gizon aunitzen buruan.

Ez al da hobeki geroz eta jende gehiagok parte hartzea auzolanean? Gehiagoren artean errazago egingen dira lanak. Baina duela guti leitu nuen adibide bat ekarriko dizuet gaurkoan. Gizonek bakarrik parte hartzen zuten dantzetan emakumeak sartu direnetik, dantzarako afizioa ikaragarri jaitsi omen zaie gizonei. Esklusiboki haiena zen espazioa galtzean (pribilegioa edo boterea galtzean) parte hartzeari uzten omen diote. Espero dut auzolanarekin berdina ez pasatzea.

11 GALDERA LABUR

EKI MATEORENA ZOZAIA LEITZAKO GAZTEA

«Maila batean edo bestean denok izan gaitezke bertsolari»

Nola definituko zenuke zeure burua?

Mutil gazte aktibotzat daukat neure burua, alaia eta patxadatsua.

Zein dira zure zaletasunak?

Saltsa askotan ibiltzen naiz. Bertsotan, pilotan, futbolean eta dantzan aritzen naiz astero. Musika ere gustuko dut.

Zer gustatuko litzaizuke ikastea?

Bigarren batxilergoa hasi berri dut, baina hortik aurrera ez dut ezer argi. Gaur egun ditugun aukera guztiekin ez da erraza bat aukeratzea. Azkeneko momentuan erabakiko dutela uste dut.

Nola hasi zinen bertsotan?

Gutxi gorabehera 10 bat urterekin hasi nintzen. Eskolara etorri zitzaizkigun eskolaz kanpoko jarduerak aurkezte-

ra, eta horietako bat zen bertsolaritza. Niri interesgarria egin zitzaidan, izena eman nuen, eta gaur arte.

Zergatik duzu hain gustuko?

Batetik, norberak barnean duena ateratzeko modu bat da; bertsoak, azken finean, zure pentsamenduen, ikuspuntuaren, umorearen... adierazpen zuzena dira, eta nahi bezala ateratzen direnean satisfakzio handia sortzen dute. Bestetik, sozializatorako erreminta bikaina da; lagun asko egin ditut bertsoen inguruan eta hainbat giro ezagutzeko balio izan dit.

Hainbat txapelketetan ibili zara.

Berezko zerbait da edo ordu aunitzeko lanaren emaitza?

Gauza guztiek bezala, bietatik badu. Norberaren berezko



trebetasuna da oinarria, baina hortik aurrerakoa lanketaren emaitza da. Inor ez da bertsolari profesional egiten deus landu gabe. Maila batean edo bestean, denok izan gaitezke bertsolari.

Eta noiz hasi zinen pilotan?

Txiki-txikitatik ibili naiz Aurrera pilota eskolan. Bertsoekin bezala gertatu zitzaidan.

Zenbatero entrenatzen zara?

Astean bitan izaten ditut entrenamenduak, eskutako minnek uzten didatenean.

Zer nahiago duzu, bertsolaritza edo esku pilota?

Ez dago konparatzerik, oso ariketa ezberdinak dira eta biak ditut oso gustuko. Ezingo nuke bat aukeratu.

Zein dira zure asmoak epe motzera?

Batxilergoa bukatu eta unibertsitatara joatea, ahal den heinean nire afizioei eutsiz.

Eta epe luzera?

Batek daki zer ekarriko didan etorkizunak. Oraingoan, egunean egunekoa egiten dut.




Bilduma berria

1951tik
Casa Cambra
Ientzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Mairidireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Aukeren bidean

ARANTXA GAMIO IGOA

Bidean dira, itzulerako bidean.

Ordu luzeak, hegazkin, autobus, kotxe eta kamioiz egindako bidaiarekin bi errealitateak lotuko dituzte gure artean izan diren neska-mutil sahararrek. Udan Nafarroako harrera familietan bizitakoa eta beraiek han errefuxiatu kanpamenduetan bizitzea tokatzen zaiena uztartu beharko dituzte. Beraiei dagokie.

Guk, hemen gelditu garen harrera familiok ere, badugu zer egina.

Oroitzapen eta sentimenduen dantzak sorrarazten duen irribarre. Isiltasuna. Malkoak. Aurtengo esperientzia itxi beharra. Eta berriz, gurean izan den haurra, ondoan izateko irrika pizturik mantentzen beharra hurrengo udan itzulera ahalbideratzeko; nahiz eta horrek erran nahiko duen beren borondatez gaindiko errealitate lazgarria mantentzen dela, 47 urte dirauen gerra eta errefuxiatu egoera, alegia.

Ttikitatsunean handi zuk ere aukera sortzen ahal duzu, harrera familia bihur zaitezke. Horretarako Saharaztan edo ANAS

(Sahararen Lagunen Nafarroako Elkarte) elkarteekin Facebook bidez harremanetan jarritz. Eta zenbait astez elkarbizitzan jaso eta bizitakoarekin aberatsago bihur zaitezke nahiz eta beraiek joan berritan hutsago sentitu.

Aukerak hartu emanaz, eraiki dezala norberak bere bidea.

Lanpostuak egonkortzea Nafarroako administrazioan: alemana bai, euskara ez

FERMIN ZABALZA ALEMAN ADMINISTRAZIOAN EUSKARAZ TALDEAREN IZENEAN

Nafarroako Gobernuak administrazioa 3.589 lanpostu egonkortzeko asmoa du, eta joan den abuztuaren 25ean argitaratu zuen lehenbiziko deialdia (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren 1934/2022 Ebazpena). Bertan ikusten da alemana, ingelesa eta frantsesa jakitea Nafarroa guztian baloratuko dela, eta euskara, berriz, ez dela balioetsiko legeak «ez-euskaldun» deitutako eremuan.

Legegintzaldiko hirugarren urtea, da eta gutxieneko hori ere ez da


BOTA BERTSOA

GAIZKA ZULAIKA ITURRIA

ARANTZAKO BERTSOLARIA
BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER
LEHIAKETAN
C MAILAN 2. SARIA

Arantzako inauterik

Doinua: Txe eta zapata



*Bi urte joan dira
bestarrikan gabe
inauteriak dira
gure herrin jabe.
Kantari ari gara
txori batzuen pare
egun bat falta da ta
nerbioso gaude.*

*Kordionak hartuta
kantari abitu
ardo eta tortilla
mahai gainin prest ditu.
Aspertu arte ase,
dieta ez begitu
umore onarekin
nahi dugu segitu.*

*Zakutenin gosaldu
zingar ta arroltze
anisarekin aio
egarri ta gose
Salutu behar ttugu
Pakita ta Joxe
gure esperun daude
baserriak hortxe.*

*Eguna luze joan da
goazen herrira
afaria dugu orain
hau nuen desira.
Poteoa musika
eta kalejira
bihar bertze egun bat
oraingoz aski da.*

lortu, hots, Nafarroa guztian euskara alemana adina behintzat baloratzea. Legealdiaren bukaera iristen denean, zer balantze egin beharko dugu?

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...

Zein da zuzena?

* Izentxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

*Arotzeneako? ala Arotzeneko?

Batzuetan medikuaRENEAn, JudasENEAn... erraten dugu medikuaREN etxeAN/kontsultaN, JudasEN etxeAN erran beharrean. Hortik sortua da atzikia, etxeak izendatzeko erabiltzen dena (-enea = etxea balitz bezala): Arotzenea, Joanikotenea, Txominenea, Martinenea... Parekoak ditu -rena eta -koa atzizkiak ere, erranahi berarekin: Tomasenea, Tomasena edo Tomaskoa; Andresenea, Andresena, Andreskoa, Andrestegi...

Bukaerako -a artikulua denez, galdu egiten dute lekuzko kasuetan: Tomasenetik (*TomaseneAtik), Tomasenekora (*TomasenekoAra)... Eta izen propioak diren neurrian, denak elkarturik idaztea da ohitura estandarra.

Nafarroako alderdi batean eta Iparraldeko zenbait lekutan **-baita** atzikia -enea atzizkiaren ordaina da. Leku-atzizkiekin, etxeren sinonimoa da, Euskaltzaindiaren Hiztegian erraten denez: Aritzabaita, Bixentebaita, Urdinbaita...

Aldeak alde eta moldeak molde (-enea, -koa, -rena, -baita, -tegi), egun erabili nahi izanez gero, Euskaltzaindiaren hitzetan, euskalkiko eta inguruko izenen arabera jokatzeko da beti bidezkoena; lekuan lekuko erabilerari ematea lehentasuna.

Hieroglifikoa

Zer dio erran zaharrak?



Nola erran

*'nor baino nor' edo 'nor baino nor gehiago'

Desegokia da nor baino nor esapidea -ago gabe ematea. Ikusi hemen adibidea:

-*Gogor ari dira biak, nor baino nor > Gogor ari dira biak, nor baino nor gehiago/indartsuago/bizkorrago).

Bi nor, zein edo dena delakoren arteko konparazioa ezartzen denez, beharrezkoa zaie konparaziozko adjektiboa edo aditzondoa.


-Bat etorri ziren, nor baino nor amorratuago, haren kontra.

-Haren partez hiru opari eskaini zizkieten, zein baino zein galgarriagoak.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

«Lehiarako motibazioa joanda ere berdin-berdin egingen dut kirola»

USOA OSTOLAZA ZABALA LABORAL KUTXAKO TXIRRINDULARIA

Txikitatik kirolaria da Leitzan bizi den zarauztarra. Urte asko eman ditu lehian, besteak beste, atletismoan, igeriketan, surfean eta triatloian. Gaur egun, Laboral Kutxako txirrindularia da

G. PIKABEA LEITZA

Igeriketa, atletismoa, surfa, txirrindularitza... Txiki-txikitatik lotura estua izan du Usoa Ostolaza Zabalak (Zarauzt, 1998) kirolarekin. Igeriketan eta atletismoan hasi zen aurrena, eta horiek utzi gabe, surfean ibili zen gero, guztietan lehian. Hala ere, urte luzez triatloia izan da bere kirolkuttuna, eta gurasoak izan ditu horretan erreferente. 2020an utzi zuen triatloia, halabarharrez, eta geroztik, txirrindularitzan dabil buru-belarri. «Uste baino gehiago gustatu» zaiola dio, eta horretan egin nahi du orain bidea, «aukera politak» sortu zaizkiolako eta gozatzen ari delako. Etorkizunean triatloira bueltatzeko asmoa, ordea, ez du burutik kendu. Joan den urtetik Leitzara du bizileku zarauztarrak, eta dioenez, «kirolaren aldetik Leitzara etortzean ez dit aldatu egunerokoa». Gustura dago.

24 urte besterik ez eta kirol ibilbide polita osatzen ari zara. Haurtzarotik kirolari lotuta?

Bai, txiki-txikitatik nabil kirolari lotuta. Aurrenean igeriketan hasi nintzen eta gero atletismoan, bi kirolak nahiko txikitatik egin ditut. Nire gurasoek, bai aitak eta bai amak, biak triatloietan ibiltzen dira, eta eredu horri jarraituz deseatzin egoten nintzen 14 urte bete eta triatloian federatzeko. Ordura arte triatloia txiki batzuk egiteko aukera izan nuen, baina ezin nuen federatuta lehiatu, eta 14 urterekin aukera izan nuenean,

triatloietan gero eta serioago hasi nintzen, triatloiak eta duatloiak eginez. Horrez gain, 9-10 urtetatik 15-16 urtetara, surfean ere lehian ibili nintzen. Atletismoan 18-20 urtera arte jarraitu nuen, krosetan parte hartuz, triatloiak prestatzeko helburuarekin. Nire lehentasuna triatloia zen.

2020ra arte aritu zinen triatloian. Nolako oroitzapenak dituzu?

Oso onak. Lasterketa bat baino gehiago egin nituen aitarekin eta amarekin, bakoitza bere erritmoan baina lasterketa berean, eta oso oroitzapen onak dauzkat. Gaur egun gero eta emakume eta gazte gehiago ikusten dira triatloietan, baina ni hasi nintzenean, 20 urtetik beherako neska-mutilak oso gutxi ziren. Garai hartan ez zegoen triatloia eskolarik, eta 14

urteko ume bati ez zaio okurritzen triatloian ibiltzea, orduan ez behintzat. Nire kasuan gurasoak mundu horretan nituen, beraiek ziren nire erreferente, eta horrela sartu nintzen. Gaur egun, triatloia eskolak daude, eredu gehiago daude, eta umeek txikitatik hartzen dute bide hori.

Zein bide egin zenuen?

Distantziaren arabera, lau modalitate daude triatloian. Distantziari motzena esprinta da. Modalitate horretan hasi nintzen 750 metro igeri, 20 kilometro bizikletan eta 5 kilometro korrika. 16 urterekin nire aurreneko olinpikoa egin nuen, 1,5 kilometro igeri, 40 kilometro bizikletan eta 10 kilometro korrika. Handik aurrera distantzia olinpikoa eta esprinta uztartzen hasi nintzen. 19 urterekin lehenengo half triatloia egin nuen, ironman erdia: 1,9 kilometro igeri, 90 kilometro bizikletan eta 21,1 kilometro korrika. Distantzia hori asko gustatu zitzaidan eta horretan zentratu nintzen. Serioago hasi nintzen, baina gero dena aldatzen hasi zen...

Baduzu gogoan gelditu zaizun momenturen bat?

Asko. 2019an, Nizan (Frantzia), jokatu zen Ironman erdiko munduko txapelketara sailkatu nintzen eta hori berezia izan zen [18 eta 24 urtekoen mailan brontzezko domina lortu zuen]. Lasterketa asko izan dira bereziak. Baina badut bat zintzilik, Zarauzko triatloia. 20 urte behar dira parte hartzeko, eta horren zain nengoan, baina orduan hasi zen dena konplikatzen.

Konfinamendua etorri zen eta horrekin batera, lesioengatik triatloia utzi behar izan zenuen...

2019ko munduko txapelketan ezkerreko sorbaldako mina sumatzen nuen. Denboraldi hura minez egin nuen, eta traumatologoari sorbaldako labrum kartilagoa hautsia nuela iruditu zitzaion. Ez zuen ondo ziurtatu, baina zuzenean ebakuntza gelara bidali ninduen. Han konturatu ziren ez neukala hautsia, biceps luzeko tendoa zela degeneratua nuena. Sorbaldatik ebakuntza egin eta tendoi

Usoa Ostolazarekin labur-labur

Entrenatu bakarrik edo taldean?

Taldean.

Zeure burua hitz gubitan...

Konstantea, saiaturia eta burugogorra.

Kirolek kanpo zein dira zure afizioak?

Lagunekin egunpasa egitea, itsasoan surfa egitea, mendian txakurrarekin egunpasa egitea, irakurtzea, zinemara joatea... Denetarik pixka bat.

Bizitzeko toki bat?

Orain Leitzan oso gustura nago eta Leitzara.

Leitzako txokorik gustukoena?


Eguzkizko muinoa.

Maniarik lehiatu aurretik?

Ez. Detalle txikiak maniatikoa naiz, baina lehiatu aurretik ez.

Zarauzko hondartza ala Leitzako mendiak?

Zarauzko hondartza.



MARKEL BAZANBIDE (LABORAL KUTXA)

Kirolari bat?

Ainhoa Murua.

Liburu bat?

Lagun izoztua.

Musika talde bat?

Hertzainak.

Pelikula bat?

Bohemian Rhapsody.

Nora bidaiatuko zenuke?

Islandiara.

Amets bat?

Furgoneta batekin munduan barrena bidaiatzea.

hori moztu zidaten. Ebakuntza ondorengoa konplikatu egin zen. Fisioterapeuta naiz lanbidez, eta lanean sorbalda behartu eta gainera igerian entrenatzen jarraitzen nuen. Horrela jarraitu nuen denbora luzez, igeriketa lasaiago hartu behariko nuela eta urte hartan triatloirik ezin izanen nuela egin konturatu nintzen arte.

Kolpe gogorra izan zen?

Bai, bai. Lesioarekin oso-oso gaizki pasatu nuen. Triatloia ez nuen utzi nahi, asko gustatzen zitzaidan eta momentu hura oso gogorra izan zen.

Eta bizikletarekin hasi zinen...

Txirrindularitza probatzearen arrazoia sorbaldako ebakuntza izan zen, baina aldi berean, banuen gogoa. Atletismoan eta igeriketan lehia ibilitakoa nintzen, baina txirrindularitza ez eta uste baino gehiago gustatu zitzaidan. Hiru lasterketa egin nituen Zarauzko txirrindularitza taldearekin eta denboraldi bukaeran Laboral Kutxak deitu zidan, hurrengo denboraldian beraiekin hasteko proposatuz. Baiezkoa esan nien. 2021 ean, nire asmoa triatloia eta txirrindularitza uztartzea zen. Lehen-tasunak triatloia izaten jarraitzen zuen eta txirrindularitza ibiltzea triatloiko entrenamenduetarako ongi etorriko zitzaidala ikusten nuen. Baina sorbaldak gaizki jarraitzen zuen eta eskuineko txorkatilan hezur-edema bat eduki nuen. Horrek ez zidan korrika ongi egiten uzten. Ez igeri, ez korrika... Bizikletari heldu nion, eta bizikletak gero eta garrantzi handiago hartu zuen nire bizitzan. Aurten erabat bizikletan ibili naiz eta hurrengo urtean ere hala egingen dut. Onartu behar dut hasieran beste aukerarik ez neukalako hasi nintzela, baina gero eta gehiago gustatzen zait. Aukera politak sortzen ari zaizkit, eta orain gero eta gehiago hobetu nahi dudalako jarraitzen dut. Momentuz sorbalda eta hanka hobeto dauzkat, baina ez naiz igerian ibiltzen.

Txirrindularitzak kirolaz berdin-berdin gozatzeko aukera ematen dizu?



Laboral Kutxa txirrindularitza taldearekin bigarren denboraldia egin du Ostolazak. MARKEL BAZANBIDE (LABORAL KUTXA)

Bai. Triatloia eta txirrindularitza oso ezberdinak dira. Triatloia bakarkako kirola da, eta txirrindularitza taldekakoa. Batzuetan besteentzat lan egitea tokatzen da, eta besteetan zuretzat. Talde-lana da. Horrek asko betetzen nau. Baina batean edo bestean, egunerokotasunean kirola egiten jarraitzen dut eta berdin-berdin gozatzen dut.

Hasieratik, goi mailako txirrindularitza probatan ari zara. Nola ikusten duzu zeure burua?

«ORAIN TXIRRINDULARITZAN JARRAITZEKO MOMENTUA DA»

Hasieran dezente kosta zitzaidan eta oraindik ere kostatzen zait pelotoian ibiltzea. Oso hurbil ibiltzen gara, tartean erorketak izaten dira eta hori izan da gehien kosta zaidala. Baina munduko txirrindulari onenena artean lehiatzeko aukera izatea, lasterketa ezagun askotan parte hartzea, Euskal Herriko Itzulian bertako jendearen babesa jasotzea... Esperientzia ederra izaten ari da. Gero eta gehiago egokitzen ari naiz, baina nire bigarren urtea da eta oraindik asko dut ikasteko.

Itzuliko arantza hor gelditu zaizu? Lehenengo etapa bakarrik egin nuen. Gaizki sentitzen hasi nintzen, arnasa ezin hartuz, eztulka... Bukaeran testa egin nuenean positibo eman nuen

eta ezin izan nuen hurrengo etapatan atera. Kristoren pena hartu nuen, oso lasterketa berezia baita, maila haundikoa eta etxeko errepideetan. Ea hurrengo urtean badugun aukera.

Abuztuan El Carmen proba irabazi zenuen, zure lehen garaipena... Larrabasterran (Bizkaia) izan zen, Torneo Euskaldunerako puntuagarria. Nire lehen garaipena izan zen eta oso pozik gelditu nintzen. Ez nuen espero eta horrek ilusio berezia egiten du entrenatzen jarraitzeko. Nola laburbilduko zenuke aurrengo denboraldia?

Lehenengo urtetik aurrerapausoa ematen ari naizela ikusten dut: pelotoian joaterakoan, teknikoki... Talde bezala, iaz baino maila dezente haundiagoa →



Distantzia Erdiko Espainiako duatloi txapelketako helmugan. ION ZUGASTI



Ostolaza Mutrikuako triatloian, igeriketa probatik ateratzen. MUTRIKUKO TRIATLOIA

—> dugula iruditzen zait. Fun-
tzionamendu aldetik ere hobe-
kuntza ikusten da, estrategia
aldatzen ari da eta gero eta
hobeto ari gara. Bide horretan
jarraitu behar dugu.

**Bi urtez lasterka ibili gabe egon
ondoren, iaz Espainiako duatloi
txapelketa irabazi zenuen...**

Txirrindularitzako denboraldia
bukatzen ari zela, korrika pro-
batzen hasi nintzen eta distan-
tzia Erdiko Espainiako duatloi
txapelketa egitekoa zela ente-
ratu nintzen. Ez nuen aukera
haundirik, irailean hasi nintzen
korrika eta bi hilabete eskas
nituen prestatzeko. Baina par-
te hartu eta irabazi nuen. Oso
pozik gelditu nintzen. Lehen
aipatu dudana Nizako triatloi
probarekin batera, hori ere las-
terketa berezia da.

**Hiru kirolen artean, zein aukera-
tuko zenuke?**

Bizikleta edo korrika. Bien artean
zalantza handia edukiko nuke,
baina bat aukeratzekotan igual
bizikleta hartuko nuke. Igeri-
keta ez, hori seguru.

**Gaur egun nolako entrenamenduak
egiten dituzu?**

Bizikletan egunero ibiltzen naiz.
Oso egun jakinetan hartzen dut
deskantsu, eta normalean, de-
kantsu aktiboa izaten da, hau
da, ordu eta Erdiko saioa, arra-
bolean hankak askatu. Tarteka
gimnasio saioaren bat ere egi-
ten dut, mugikortasun ariketak,
core ariketak... Zarautzen ari
naiz lanean, eta lanegunetan
denbora justuagoarekin ibiltzen
naiz entrenatzeko, eta entra-
menduetatik errekuiperatzea
gehiago kostatzen zait. Baina
asteburuetan eta jai daukate-
nean saio luzeagoak eta gogo-
rragoak egitea gustatzen zait.

Zenbateko entrenamenduak?

Saiorik luzeena sei ordu eta
pikokoa izaten da. Normalean,
egun luzeetan, lauzpabost orduz
ibiltzen naiz eta bestela, bi ordu
eta erdi edo hiru orduko entra-
namenduak izaten dira.

2023ra begira zein erronka dituzu?

Laboral Kutxan jarraituko dut
eta taldeak haziz eta lasterketa
garrantzitsuagoak eginez ja-

rraitu nahi du, gero eta txirrin-
dulari hobeakekariz. Etorkizun
hurbilean taldearen helburu
nagusia World Tour mailara
igotzea da. Horretarako puntuak
behar dira eta lan asko egin
behar da. Denok saiatu behar-
ko dugu goraka egiten.

**Etorkizunean non ikusten duzu
zeure burua?**

Txirrindularitzan nire onena
ematen saiatu nahi dut, ea nora
ailegatzen naizen. Taldea World
Tourrera igotzean hor egotea
gustatuko litzaidake. Baina ge-
rora, triatloian distantzialuzean
parte hartuko nahiko nuke.
Triatloian distantzia luzean 30
urteetik aurrera lortzen dira
emaitzarik onenak. Triatloian
ez bezala, txirrindularitzan adi-
na garrantzitsua da. Txirrindu-
laritzan 30 urteetik gora oso
zaila da talde batean sartzea.
Hortaz, orain txirrindularitzan
jarraitzeko momentua dela
iruditzen zait eta hor jarraitu
ezin dudanean edo nahikoa
dudala erabakitzen dudanean,
triatloia hor izaten dut.

Kirola beharrezkoa duzu bizitzan?

Bai, bai. Egunen batean ez dut
lehiarako motibaziorik izanen,
baina berdin-berdin jarraituko
dut kirola egiten. Mentalki,
osasun aldetik, umore aldetik...
Niretzat oso beharrezkoa da
kirola.

Eta lehiak zer ematen dizu?

Egunerokoan entrenatzen ja-
rraitzeko motibazioa lehiak
ematen dit. Lehiatu gabe ere
motibazioa izaten dut, baina
helburuak jarrita daukazunean
bestelako indarrarekin eta go-
goarekin entrenatzen zara.
Helburuak betetzekoan sen-
titzen den poztasunak ez du
preziorik.

Kiroleatik bizitzea posible da?

Igual txirrindularitzan triatloian
baino errazagoa da, txirrindu-
laritzan diru gehiago dagoelako.
Gainera, azken urte hauetan,
emakumeen kirola goraka doa.
Telebistan agertzeak asko la-
guntzen du eta jende gehiago
etortzen da ikustera. Horrela
lortuko dugu egoera onean bizi
ahal izatea. Bazen garaia.



2013an Barakaldon jokatu zuten finala. Aurten, lehenengoz Iruñean egingen dute. GARI GARAIALDE-XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

Bertsolaritzaren besta handia bueltan da

Irailaren 24an hasiko da Getxon 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusia eta 14 saio eginda, abenduaren 18an bukatuko da, lehenengoz Iruñean. Tartean, eskualdean ere jokatu dute kanporaketa bat, urriaren 22an Elizondon. Eskualdeko zazpi lagunek hartuko dute parte

A.LARRETXEA

Bertsozaleentzako itxaronaldi luzearen ondotik, eta ohikoa baino urtebete beranduago, baina, hemen da Bertsolari Txapelketa Nagusia. Lau urteko zikloa izaten da Txapelketa Nagusitik Txapelketa Nagusira, baina, pandemia tarteko atzeratu egin da hori. Txapelketa Nagusiko parte hartzaileak Euskal Herriko herrialde bakoitzean jokatu dute txapelketen ondotik erabakitzen dira, eta horiek atzeratzeak eragin du Txapelketa Nagusia bera ere atzeratu behar izana. Irailaren 24an Getxon (Bizkaia) abiatu eta Iruñean bukatuko da abenduaren 18an. Lehenengoz, gainera, Nafarroan jokatu da finala, Iruñeko Nafarroa Arena pabilioian. Tartean, saio bakarra izanen

da eskualdean: Elizondon urriaren 22an.

42 bertsolari, 14 gai jartzaille eta 21 epaile, denera 77 parte hartzaile izanen ditu aurtengo edizioak eta eskualdeko ordezkariak zabala izanen da. Eskualdeko hiru bertsolari ariko dira kantuan: txapelketan lehenengoz kantatuko du Joanes Illarregi leitzarrak, urte batzuek bertsolaritzatik aparte ibili ondotik, borzgarren txapelketa izanen du Xabier Silveira lesakarrak, eta txapelketan seigarren parte hartzea du

ESKUALDEKO ZAZPI LAGUNEK HARTUKO DUTE PARTE TXAPELKETAN

Saran bizi den Amets Arzaillusek. 2013an txapeldun izan zen Arzallus eta 2005. urteko txapelketatik aitzinera urtero kantatu du finalean.

Gai jartzaileri dagokionez ere, eskualdeko uzta oparoa izanen da. Alaitz Rekondo lesakarrak borzgarren txapelketa izanen du gai jartzaille taldean, eta berarekin batera arituko dira lehenengoz Maialen Belarra donezteberra eta Ainhoa Larretxea beratarra. Epaile taldean ere beratar bat izanen da: Saioa Mitxelena. Bigarren txapel-

ESKUALDEKO SAIO BAKARRA ELIZONDON JOKATUKO DUTE

keta izanen du Mitxelena, 2005ean hartu zuen parte lehenengoz epaile gisa eta aurten itzuliko da postu horretara.

Txapelketaren sistema

Hamalau bertso saio izanen ditu aurtengo Txapelketa Nagusiak hiru fasetan banatuta; lehenengo fasea, finalaurrekoak eta finala. Lehenengo fasean sei bertso saio izanen dira, Getxon (Bizkaia), Arrasaten (Gipuzkoa), Gotañe-Irabarren (Zuberoa), Gasteizen (Araba), Donostian (Gipuzkoa) eta Lizarran (Nafarroa), eta 36 bertsolari ariko dira kantuan, denak ere herrialdeetako txapelketatik sailkatutakoak. Sei bertsolariz osatutako sei talde egingen dira eta saio bakarrera lehiatuko dira.

Silveira eta Illarregi fase horretan sartuko dira txapelketan, Arrasaten irailaren 25ean jokatu den saioan kantatuko dute biek. Saio bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatuko da hurrengo fasera; puntu gehien biltzen dituztenekin osatuko da finalaurrekoetara sailkatuko den taldea.

Finalaurrekoetan hogeita lau bertsolari lehiatuko dira. Saioak Elizondon, Donibane

Garazin (Nafarroa Beherea), Irunen (Gipuzkoa) eta Durangon (Bizkaia) izanen dira eta Unai Agirre, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Aitor Mendiluze eta Beñat Gaztelumendi eta lehenengo faseko saioetatik sailkatu diren hemeretzi bertsolari ariko dira kantuan.

Bi itzuli izanen ditu finalurreko faseak: lau finalurreko izanen dira lehenengo fasean eta hiru bigarrenen. Bi saioetako puntuazioak gehitu eginen dira, baina, lehen itzulian puntu gutxien lortu duten sei bertsolariek bigarren itzulian kantatzeko aukera galduko dute, eta taldeak aldatu eginen dira lehen itzulitik bigarrenean. Bigarren itzulian saioak Amurrion (Araba), Baionan (Lapurdi) eta Bilbon (Bizkaia) jokatuko dituzte.

2017koan finalean finalista izan zirenez gero, Igor Elortzak eta Aitor Sarriegik ere bazuten finalurrekoetan zuzenean kantatzeko txartela, baina, txapelketan parte hartzeari uko egin diote biek ala biek. Hala, dagoeneko jakina da finalean aitzinetik inoiz kantatu gabeko bi bertsolarik kantatuko dutela gutienez.

Finala lehenengoz Nafarroan

Abenduaren 18an jokatu den finalean, zortzi bertsolari lehiatuko dira Nafarroa Arenan: Maialen Lujanbio 2017ko txapelduna eta finalurrekoetan puntuazio altuena lortzen duten bertze zazpi. Hiru saiotan banatuko da ekitaldia: goizean zortzi bertsolariak ariko dira, eta arratsaldean ere zortzi bertsolarirekin hasiko da jarduna. Ondotik, puntu gehien biltzen duten bi bertsolarik buruz burukoa jokatuko dute, eta egun guztian puntu gehien eskuratu dituen bertsolaria izanen da 2022ko Bertsolari Txapelketako Nagusiko txapelduna. Txapel jartzailea nor izanen den aitzinerago

jakinaraziko du Bertsozale Elkarteak.

Finalaren kokapena da aurtengo Txapelketa Nagusiaren berritasunetako bat, lehenengoz egingo baitute Iruñean, 13.000 zalaren aitzinean. Donostian egin izan dira finalak 1935etik 2001era arte, eta lautan egin da Barakaldon (Bizkaia), BEC erakustazokan. Nafarroa Arenak dituen azpiegiturek ahalbidetu dute orain aldaketa, elkarteko ordezkarien hitzetan. Ez da hori izan arrazoi bakarra, ordea: «Orain ikusi da bazela aukera Iruñean egiteko, bertzeak bertze, azpiegitura berri bat dagoelako, eta txapelketaren beraren izaeran euskararen lurralde osoa hartzea dagoelako».

'Kartzelatik ganbarara'

Txapelketa Nagusiak izanen du finaleko kokalekutik aparte bertzelako aldaketarik ere. Eta kasu horretan, izenean baino, izanean. Orain artean *kartzelako lana* izandakoa, hemendik aitzinera *ganbarako lana* izanen baita. *Kartzelako lana* deitzen zaio bertsolariei gai bera eman eta haiek hiruna bertso nahi duten doinuan eta neurrian kantatzeari. Fernando Artola *Bordarik* asmatu zuen txapelketako *Kartzelako lana* 1960ko hamarkadako txapelketan, 1935 eta 1936koetan bakarka gai bera emanda bertsolarien denbora aukerak berdintze aldera. Eta 60 urtez *kartzela* deitu izan zaio txapelketan bertsolariak bakarka gai beraren aurrean probatzeko lanari. Orain, ariketaren izena eta izana elkarrengandik hurbilago egote aldera hartu dute aldatzeko erabakia. Izena aldatu bai, baina, osatu beharreko lana aitzineko berbera izanen da.

«Ganbarak goxotasuna, isiltasuna, aurre-lana, ... iradokitzen ditu. Etxean dagoen gela bat da, baina aldi berean aparte. Garuna edo logelari ere deitzen zaio ganbara. Ga-

rai bateko baserri lanetan, ganbaran edo ganerrear artoa aletu bitartean bertsotan egiten zen bertan eta zenbait bertsolariren entrenamendu edo lan-leku ere bada. Oroitzapen politekin lotu izan da normalean» azaldu dute Bertsozale Elkartetik.

Birusaren ondorena

Birusaren ondorengo lehenengo txapelketa izanen da aurtengoa, eta birusak «bertsolaritzaren ekosisteman eragindako kaltea» nabarmendu nahi izan zuten Bertsozale Elkarteko ordezkariak ekainean egin zuten txapelketaren aurkezpenean: «Orain arte ezagutu gabeko ataka batean izan da bertsolaritza: bertso plaza ia erabat geldirik, sortzaileak kinka larrian, gure ekosistema egun batetik bestera hankaz gora, bertso eskolak halabeharrez mutu, ekimen franko bertan behera», azaldu zuen Gontzal


Agote elkarteko lehendakarietzako kideak. «Gure nahia da orain bertsolariei hitza ematea, eta lekua uztea bertsolaritzan dagoen aniztasunari, aberastasunari, bakoitzaren ukituari eta sormen lanari, eta hemendik aurrera bertsolaritza izan dadila berri ere protagonista».

Dena prest dago, beraz, Bertsolari Txapelketa Nagusiak bere bidea hasi dezan. Saio guztietarako sarrerak *bertsosarrerak.eus* atarian daude eskuragarri. Horrez gain, saioak eginen diren herrietako komertzioetan ere paratuko dute erosteko modua. Finalean, ohi bezala autobus eta catering zerbitzua izanen dira, baina, horien berri aitzinerago jakinaraziko dute, baita haurtzaindegi zerbitzua egonen den ere. Txapelketaren inguruko informazio eguneratu guztia, aldiz, *bertsozale.eus* atarian dago.

«Aldaketa markatuko du»

«Txapelketarako ahal bezain ondoen prestatu nahi dut, ahal bezain librean iristeko». Halaxe kontatu ditu Amets Arzallus Saran bizi den bertsolariak lehia aitzineko sentsazioak. Aurtengoa, bertze txapelketa batzuk bezala prestatzen ari dela azaldu du: «Hilabete batzuk lehenago hasten zaizu buruan kezka sortzen, eta gero saiatzen naiz kezka hori etxeko lan batera eramaten, batez ere zeure burua errebisatuz eta birziklatuz».


Helburutzat ezarri du finalera iristea: «Oso egun berezia da, eta merezi du benetan ahalegintzea iristeko». Horra iristeko «bideari» ematen dio garrantzia, ordea: «Finalerako bidean nahi nuke nire burua bilatu eta zerbait utzi». Aldaketen txapelketa izanen dela ueste du: «Aldaketa edo berritu bat markatuko du. Belaunaldi aldaketaz harago, bertzelako aldaketen sasoia ere badela dio: «Mamian, enfokean, tematikan badago aldaketa orokor bat, ez generoari lotuta bakarrik. Euskal Herria beste aro batean dago, eta hori erakutsiko da».



Amets Arzallus. BDB

«Helburua gozatzea da»

«Txapelketaren aurreko asteak nahiko lasai pasatzen ari naiz». Halaxe kontatu digu nola bizitzen ari den Joanes Illarregi bertsolariak txapelketa aitzineko azken egunak. «Beste txapelketa batzuetan presenteko izan dut bazetorrela. Orain arte txapelketa oso urruti balego bezala ikusi izan dut, eta ohartzeko etorri da. Ez nau sorpresaz harrapatzen, baina, bai, behar baino gehiago estutu gabe behintzat».



Joanes Illarregi. BDB

Euskal Herrikoa bertze txapelketa guztiak prestatzen dituen bezala prestatzen ari dela dio: «Bertso eskolara joan eta bertsoak kantatuz, magia askorik ez dago». Hala ere, onartu du lehia ez dagoen garaietan baino maiztasun gehiagorekin joaten dela bertso eskolara eta baita «beste enfoke batetik gaiak planteatzeko eta ikuspuntuak aukeratzeko orduan» ere.

Txapelketarako helburua argia du: «Helburua gozatzea da, bertsoan gustura eta ongi egitea. Eta hortik aurrera, zertan gezurrik esan, ahal den urrutien ailegatzea ere bai».

«Belaunaldi aldaketa ematen ari da»

«Txapelketan parte hartzea opari bat, aukera polit bat, erronka bat da, baina, aldi berean dena ez da laua eta erraza. Ardura handia da, exijentzia maila bat eskatzen duena eta konpromiso bat ere bai. Hagitz betegarria, baina neketsua ere bai batzuetan». Halaxe deskribatu du Alaitz Rekondok zer den beretzako Txapelketa Nagusian parte hartzea.



Alaitz Rekondo. BDB

Gaiak sortzeko orduan «radar eta antena guztiak martxan» paratzen dituela azaldu du: «Zentzumen guztiak sensible izaten ditugu edozein idea, gertakari edo kontatzen dizuten edozein gauza hartu eta gairen bat ateratzeko».

Aurtengoa bertsolariez gain, entzuleek ere «gogotsu» hartuko duten txapelketa izanen dela uste du. Gainera aldaketen txapelketa ere bada bere hitzetan: «Entzutetsuena finaleko tokia izanen da baina, belaunaldi aldaketa ere ematen ari da bertsolarietan, gai jartzaileetan eta epaileetan eta aurpegi berriak ikusiko ditugu, eta hori beti da interesgarria».

«Erronka handi bat da txapelketa»

«Esperientzia berri bat, erronka berri bat, erantzukizun handi samarra eskatzen duena», halaxe aurkeztu du Maialen Belarra gai jartzaileak txapelketaren atarian sentitzen duena. Txapelketaren barrenean, gai jartzaile gisa bi lan daudela azaldu du Belarrak: «Alde batetik txapelketako gaiak sortzea,



Maialen Belarra. BDB

horien inguruan taldean eztabaidatzea eta saioak osatzea, eta bertze alde batetik horiek publiko aitzinean aurkeztea». Bigarrenaren garrantzia nabarmendu du: «Saioak aurkeztean bertsolariak eroso egon daitezen saiatzen gara, saioak aitzinera ateratzeko denon elkarlana beharrezkoa delako. Uste dut aunitz egiten duela oholztan zaudela norbait ondoan duzula sentitzeak».

Txapelketa hastear den honetan gogoz dago Belarra, eta txapelketaz disfrutatzen jakitea du erronkatzat: «Gaiak norberak sortzen dituen aunitzetan zaila egiten zait saioaz disfrutatzea, nolabaiteko tentsiopean gaudelako, baina oro har, txapelketak aunitz emozionatzen nau, eta egia erran, prozesu osoarekin gozatzeko gogoz nago».

«Txapelketa ederra izanen da»

«Alde batetik ohorea, eta bertetik baita ardura ere». Halaxe deskribatu du txapelketaren atarian Ainhoa Larretxea gai jartzaile taldeko kideak sentitzen duena. Lehia irailan hasiko bada ere, beren lana lehenago hasten dela kontatu du: «Uda aitzinetik hasi ginen biltzen, eta orain astero biltzen gara. Batzuetan, astean bitan ere bai. Bileretara etxean nor bere gaiak eginda joaten dira, eta denak irakurri ondotik erabakitzen dute zeinek egiten duen aitzinera. «14 lagun gaude taldean, eta gai bat aitzinera ateratzeko denon oniritzia behar du», kontatu du.



Ainhoa Larretxea. BDB

Gai jartzailearen gibelean ikusten ez den lan aunitz dagoela dio: «Gure lana ez da gaiak egitea bakarrik, saio guztien artean oreka egon dadin saiatzen gara. Sekulako lana da». Abendura bitarteko hilabeteak lan aunitzakoak izanen direla uste du. Hala ere, hasteko gogotsu dago: «Bertsozalea izaki gogoz nago bertsolaritzaz gozatzeko. Txapelketa ederra izanen dela uste dut, eta gazteak indartsu etorriko direla».

Eskualdeko 5.653 ikaslek hasi dute ikasturtea

laz baino 76 ikasle guttiagok hasi dute ikasturtea Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitzalde, Malerreka, Urumealdea eta Xaretako ikastetxeetan

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAK

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA		
	A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua
BAZTAN	0	0	197	11	0	442
Almandoz IP			8			3
Amaiur IP			8			17
Arizkun IP			6			21
Arraioz IP			13			17
Azpilkueta IP			7			19
Baztan Ikastola			71			129
Elizondo IP			37	11		138
Erratzu IP			14			24
Gartzain IP			9			7
Irurita IP			16			32
Lekaroz IP			2			11
Oronoz IP			6			16
Ziga IP			0			8
BERTIZARANA	0	0	25	0	0	53
Legasa IP			12			31
Narbarte IP			13			22
BORTZIRIAK	7	4	207	33	24	526
Arantza IP			16			46
Bera (Ricardo Baroja)			46			151
Bera (Labiaga Ikastola)			41			93
Bera (Jesusen Bihotza)	7	4		33	24	
Etxalar IP			19			49
Igantzi IP			9			41
Lesaka (Irain IP)			45*			88
Lesaka (Tantirumairu)			31*			58

*2 urteko ikasleak barne.

	BIGARREN HEZKUNTZA			BATXILERGOA		
	A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua
BAZTAN	35	0	335	0	0	108
Lekaroz	35		335			108
Elizondo						
BORTZIRIAK	32	8	312	0	0	104
Arantza IP			10			
Bera (Toki Ona)	32	8	264			104
Bera (Labiaga Ikastola)			38			
LEITZALDEA	0	0	260	0	0	101
Goizueta			15			
Leitza (Amazabal)			245			101
MALERREKA	0	0	241	0	0	0
Doneztebe (Mendaur)			241			
XARETA	180	120	9	0	0	0
Senpere**	180	120				
Urdazubi-Zugarramurdi			9			
Guztira	247	128	1.157	0	0	313

**Senperen Bigarren Hezkuntzako datuak Aretxea Kolegiokoak dira eta Heziketa Zikloko datuak Laborantza Lizeokoak.

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA		
	A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua
LEITZALDEA	0	0	120	0	0	291
Areso IP			15			14
Goizueta IP			18			50
Leitza IP (Erleta)			87			227
MALERREKA	0	0	139	7	0	299
Doneztebe (S. Migel)			98	7		194
Ituren IP			15			48
Saldias IP			5			10
Sunbilla IP			21			47
XARETA	78	168	98	178	220	159
Sara (Publikoa)		23		10	23	
Sara (St. Joseph)		48		11	46	
Sara (Olhain Ikastola)			36			63
Senpere (Publikoa)	25	56		67	90	
Senpere (Amotz publ.)	13	13		42		
Senpere (Zaldubi ikas.)			52			70
Senpere (St. Joseph)	40	28		48	61	
Urdazubi-Zugarramurdi			10			26
Guztira	85	172	786	229	244	1.770

HAUR HEZKUNTZA

- 64

LEHEN HEZKUNTZA

- 30

HEZIKETA ZIKLOAK							
LHB		OLH		Erdi M.		Goi M.	
A	D	A	D	A	D	A	D
11		31		153		36	
	11		30		153		36
4		0		43		31	
	4			43		31	
0		0		0		0	
	0			0		0	
0		0		0		212	
	0			0		212	
15		31		197		279	

BIGARREN HEZKUNTZA

+ 9

BATXILERGOA

- 25

HEZIKETA ZIKLOAK

+ 34



Euskara mankomunitateko eta euskaltegiko ordezkariak, bideoa bi protagonistekin.

Euskaltegian izena emateko kanpainak bideoa Bortziritan

Irailaren 23an kanpaina girotzeko kontzertua eskainiko du Berako kultur Etxean Joseba B. Lenoir eta Mice bikoteak

TTIPI-TTAPA BORTZIRIAK

Bortziritako Euskaltegian eta helduen euskalduntze-alfabetatzeko gainerako ikastegietan izena emateko epea irekia dago irailaren 1etik 30era. Bortziritako Euskara Mankomunitateak eta Bortzirieta-ko Euskaltegiak elkarlanean bideo bat prestatu dute euskara ikasle eta hiztun berriekin, komunitateari egiten dioten ekarpena aitortzeko. Euren bizipenak partekatzeaz bat, herritarrek euskara ikastera eta hobetzera animatzea da helburua. Katubiko Oier Fuentesek grabatu eta editatu du.

Horretaz gain, «bizpahiru orduz deus antolatu gabe egon ondotik», kanpaina girotzeko kontzertutxo bat antolatu dute irailaren 23an, ortziralean 22:00etan Berako kultur etxean. Joseba B Lenoir eta Mice taldeko Miren Narbaiza ariko dira Lenoir eta Mice bikotea osatuz.

HIZTUN BERRIEI IKUSGARRITASUNA EMATEN ZAIE BIDEOAN

Bortziritako Euskara Mankomunitateak herritar oro animatu nahi du euskara ikasi eta hobetzera. «Gure konpromisoa berretsi nahi dugu euskara ikastea denon eskura egon dadin. Bortziritan erroldatuta dauden 16 urtetik gorako herritarrek %100eko dirulaguntza dute euskara ikasteko, eta gainera dirulaguntzaren zatirik handiena ikasturte hasieran hartzen ahal dute. Ahalik eta erraztasun gehien eman nahi dugu eta egoera ekonomikoa ez dadin izan eragozpena. Izan ere, euskara ikastea herritar guztien eskubidea da eta doakotasuna bermatuta egon beharko luke». Aurten izan da berrikuntzarik dirulaguntza deialdian: dirulaguntzaren gehieneko langa igo dute eta 700 euro arteko ikastaroak finantzatu dira mankomunitatetik. Eskaerak irailaren 30era arte egiten ahal dira.

Bideoaren laburpena

Lau herritar, lau euskara ikasle, lau hiztun berri dira protagonista. Alba Roda, Manu Mesa, Marina Prestiakova eta Nuria Cano euskarari buruz ari dira, euren bizipen, pasadizo eta emozioei buruz. Euskara ikasten ari dira, euskaraz ari dira. Hobeki bizitzeko. Lotsak galduta eta gogoz. Hiztun berriei ahotsa eta ikusgarritasuna ematen zaie bideo honetan. Izan ere, eskertzeoak dira euskaraz bizitzeko euren hautua eta euskararen jarraipenari egiten dioten ekarpena.



Inkestara sartzeko QR kodea.

Bortziritako berdintasun egoera inkestarekin dignostikatzen

TTIPI-TTAPA

Bortziritako Berdintasun Zerbitzuak bertako berdintasun egoeraren diagnostiko bat egiteko prozesua martxan jarri zuen ekainean, udalekhurrengo urteetan berdintasunaren arloan jarraituko dituzten politikak orientatzeko helburuarekin. Egoeraren inguruko informazioa jasotzeko giltzarri diren pertsonekin hainbat elkarriketa eta tailer parte-hartzaile egin dira. Irailan, 18 urtetik gorako biztanleriari zuzendutako inkesta batekin emanen zaio bukaera prozesu honi. Parte hartzeko, argazkian ageri den QR-a eskaneatu daiteke. Honez gain, inkesta eskuragarri egonen da udaletako webguneetan eta Berdintasun Zerbitzuaren sare sozialetan.



URRIAN HASIKO DITUGU LANAK

BERAGAIN

Sustapen berria Alkagaia auzoan, Berako ikuspegi onenekin.

+ Hiru logela + Bi autorentzat garajea

Informazioa eta salmenta:



San Esteban 11, behea
31780 Bera - Nafarroa
info@baztango.com
www.baztango.com

Tel. 948 630 552
Tel. 620 028 625



Matxain inguruan ezarri duten pasabide kanadiarra. UTZITAKOA



Bertzeak bertze Sarrallako pista berri dute.UTZITAKOA

Mendi eta azienden azpiegiturretan inbertsioak

Aziendarentzako azpiegituren hobekuntzan 119.822 euroko inbertsio egin du udalak eta 201.949 eurokoa mendi lanetan

A. LARRETxea

Berako Udalak inbertsioak egin ditu aziendetzako azpiegituren hobekuntzan, zein lur komunaletan mendi lanak egiteko.

Aziendetzako azpiegituren hobekuntzako lanek 119.822 euroko kostua izan dute, eta horiek finantzatzeko Nafarroako Gobernuaren 48.000 euroko dirulaguntza hartu du udalak. Alde batetik, abeltzaintzako hiru ixtegiren egoera hobetu dute, eta bertze berri bat eraiki dute. Bertzetik, lau pasabide kanadiar paratu dituzte mendiko eta baserrieta-

ko bideetan, errepide nagusietan aziendarik ez sartzeko.

Konpondutako ixtegiak Iasolan eta Larhunen daude. Iasolakoan ixtegi baten itxitura berritu eta luzatu dute. Larhunen, aldiz, bi berritu dituzte. Lehenbizikoan zurezko hesiak jartzeko lerrokadurak ireki, harrapelekutik pistara ateratzeko tarte bat ireki eta ataka berri bat jarri dituzte. Bigarrenean, aldiz, hesiak eta itxiturak guztiz kaltetua zeuden eta osorik berritu dute.

Labiagan, aldiz, ixtegi berri bat eraiki dute osasun kontrolerako tratamenduak emateko

lagungarria izanen dena. Ur puntu bat ere ezarri dute bertan.

Lizuniagan, Bera eta Sara lotzen dituen NA-4410 errepidearen iparraldean eta hegoaldean hiru pasabide kanadiar paratu dituzte animaliak errepidera ez ateratzeko. Laugarren pasabidea Matxain inguruan paratu dute, Ardanbide, Ardanbidegigaiña eta Ardanbidegiazpia baserriak N-121-A errepidearekin lotzen dituen bidean.

Mendi lanak

Mendi lanei dagokionez, 201.949 euroko inbertsioa egin du udalak, eta lan horien erdia finantzatu du Nafarroako Gobernuak. Kasu horretan oihan berritzeak, plantazio berrien mantentze lanak eta mendiko hainbat pista moldatu dituzte.

Bordaxuri inguruan, 7,5 hektarea oihanberritu dituzte gaztainondoak eta alertzea landatuta. Horrez gain, azken

urteetan landaketa egindako eremuetan iratzea eta otea kendu dituzte.

Abeltzaintza intereseko soil-guneak garbitzeko lanak ere egin dituzte. Lan horiek Manttalen, Arizmendin, Larhunen eta Labiagan egin dituzte. Gainera, Santa Barbaran udalak aldaketa bat sustatu nahi du lehenik larre natural bihurtzeko, eta epe ertainean belardia izateko.

Azpiegiturei dagokionez, hainbat pista berritu dituzte: Sarrallakoa, Postasekoa, Usategietatik Landagaitara doana, Intzolakoa, Komiziarrakoa eta Eltzaurdiko pista.

Irailean Intzolako errekan arazketa eta bakantze lanak egingen dituzte.

NAFARROAKO GOBERNUAK LAGUNDUTA EGIN DITUZTE LANAK


744 484 361
ttipi-ttapa


Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602


USOA
Nekazari kooperatiba

T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR

Alberto RETEGI
abokatua
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralera

JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Sallesera irteera antolatu dute urriaren 1ean

Berako hainbat talde eta eragilek antolatu dute irteera elkarlanean

A.LARRETXEA

Iazko udazkenean sinatu zuten Berako eta Sallesko Udalek senidetza ituna. Sallesko ordezkari bat Beran izan zen lehenik ituna sinatzen, eta ondotik Berako ordezkariak bisita itzuli zien Sallesera. Gerotik, senidetza hori nola landu aztertzen ibili dira bi herrietako udalak eta kultur elkarteak, eta urriaren 1erako irteera antolatu dute Sallesera. Irteera udala, herriko ikastetxeak, Mugerri Kultur Taldea, Isidoro Fagoaga Musika Eskola, Gure Txokoa Dantza

Taldea eta Gure Txokoa Futbol Taldea antolatzen ari dira elkarlanean.

Egun guziko besta izanen da Sallesen. Beratik joandako herritarrek hainbat ekintzatan hartuko dute parte: dantza taldeak makildantzak dantzatu dituzte, musika eskolako haurren abesbatzak kanta bat kantatuko du Sallesko ikasleekin batera, trikitilarien kalejira egingen dute, Bera Kantari taldeak ere kantatuko du, eta bi herrietako haurrek futbol partidak eta herri kirolak egingen dituzte.

Gure Zirkua herrian izanen da urriko bigarren eta hirugarren asteburuan

TTIPI-TTAPA

Gure Zirkua zirku euskaldunaren bisita jasoko du Berak urriaren 7an, 8an, 9an, 14an eta 15ean. Zirkua herrian izanen da eta denera zortzi emanaldi eskainiko ditu. TTIPI-TTAPAK, gainera, bertara joateko aukera eskainiko die

TTIPI TXARTELA duten bazkideei. Urriaren 9rako eta 15erako eguerdiko funtzioetarako lau sarrera bikoitz zozketatuko dira. Zozketa irailaren 23tik 29ra egonen da martxan *erran.eus* atarian, eta irailaren 30ean jakinaraziko da zein diren irabazleak.

Ekonomia Eskola Feministaren aurkezpena egingen dute ortziralean

A.LARRETXEA

Bortzirietako, Malerrekako eta Baztango Ekonomia Feminista Eskola egingen dute azaroan eta abenduan Beralandetan. Horren aitzinetik, ortziralean, ekimenaren aurkezpena eta izen ematea egiteko saioa egingen dute 18:00etan. Eskola hiru eskualde hauetako emakumeei zuzenduta dago.

Eskolahirularunbatez egingen dute: azaroaren 5ean eta 19an eta abenduaren 17an. Egun osoko saioak izanen dira, 10:00etan hasi eta 13:00ak arte, eta 15:00etan hasi eta 18:00ak

arte. Tartean, elkarrekin bazkalduko dute.

Ikastaroak osorik zortzi modulu ditu eta abendura bitartean lehenengo bi moduluak egingen dituzte. Bi modulu horietan patriarkatua, sexu araberako lan banaketa eta ekonomia feminista, eta kapitalismo neoliberal landuko dituzte. Aitzinerago egingen dituzte eskolaren hurrengo moduluak.

Bertan parte hartu nahi dutenek info@aragorputz.eus helbidera mezu bat idatzi beharko dute.



UTZITAKOA

Kanpoko dantzarien saio ederra

Kataluniako Granollers herritik eta Ataundik etortitako dantzariak emanaldi ederra eskaini zuten Beran irailaren 10ean. Gure Txokoa Dantza Taldeak gonbidatuta etorri ziren Berara, eta dantza emanaldia eskaintzeaz gain, asteburu elkarrekin pasa zuten.

Ansonera ostatu · jatetxea

T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 BERA

ZUBIONDO JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

LABE ZAR

Azulehenetik ortziralean: 07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandaz: 08:00etatik aitzinera

948 631 076 • BERA

ANTZUZELAI S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK

Bide Berderako lotura herrigunera ailegatuko da

Bigarren zatiak 754.827 euroko inbertsioa izanen du eta 400.000 euroko laguntza emanen du Nafarroako Gobernuak

AITOR AROTZENA

Nafarroako Gobernuak 1,8 milioi euro inbertitu ditu 20 herri baino gehiagotan bizikleta bideak eraiki eta hobetu ahalizateko. Toki-erakundeek beren herrietako hiriguneak eta hiriartekoak azpiegituz hornitzea du helburu, mugikortasun iraunkorra sustatzeko. Jarduerak 2022an lizitatu beharko dira, eta 2023ko irailaren 30rako bukatu beharko dira. Dirulaguntza jasoko duen herrietako bat Lesaka izanen da.

Ekainean Bereau eta Tomaseneko borda arteko zatia inauguratu ondotik, Bidasoko Bide Berdea herrigunearekin lotzeko proiektuaren bigarren fasearekin segituko du, biribilgunetik herri aldera. Proiektuak 754.827 euroko inbertsioa izanen du, eta 400.000 euroko laguntza jasoko du Nafarroako Gobernuaren aldetik. Errepide bazterretik segida izanen du loturak eta Beheko Errota inguruan, errepide azpiko pasabidea eginen litzateke, Landazelaietako pasealekua erekin lotzeko.

225 lagun bisita gidatuetan

Iaz bezala, udalak aurten ere bisita gidatuak eskaini ditu udan. *Free Tour* moduan, gutxira 11 bisita gidatu egin dira eta 215 herritar eta turistek hartu dute parte. *Lesaka: gure kulturaren sorterrria* bisita gidatuaz gain, aurten larunbatetan *Lesaka: pelikulen eszenatokia* bisita gidatu berria ere eskaini dute. Honetan, herrian filmatutako pelikulen eszenatokiak bisitatu dituzte. Irailetik aitzinera, bisita gidatuak bakarrik taldeentzako eskainiko dira. Hauek aitzinetik erreserba egin beharko dute 662648181 telefonora deituta edo teknikaria1@lesaka.eus helbide elektronikora email bat bidalita. Modalitate honetan, aurtengo ekaineko, uztailko eta abuztuko hila-beteetan, kanpotik hiru autobus etorri dira: Bilbotik, Tolodotik eta Valentziatik, hain zuzen ere.

Udalak eskerrak eman nahi dizkie parte hartu dutenei eta bisita gidatuak egitea ahalbidetu duten pertsona guztiei.



BETI GAZTE

46 korrikalari III. Zubigaineko krosean

46 korrikalarik parte hartu zuten irailaren 3an Beti Gaztek antolatutako III. Zubigaineko krosean. Horietatik gehienak adin ttikikoak ziren. Kategoria nagusian, 5 kilometroko ibilbidean garaile izan ziren Gwendal Larque beratarra (17.21) eta Cristina Arbues igantziarra (21.15).

'Danboligenak' Danbolintero gazteen topaketak asteburuan

A. AROTZENA

Danboligenak 2022, Danbolintero gazteen topaketak antolatu dituzte Euskal Herriko Txistulari Elkarteak eta Lesakako Txistulari Taldeak, Lesakako Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz irailaren 24an eta 25ean Lesakan.

Irailaren 24an, larunbatean 10:00etan ongietorria izanen dute. 11:00etan *Tokiak eta doinuak* sormen ekimena eta 12:00etan izen bereko kalejira. 14:30ean bazkaria eginen dute. 18:00etan txistulari gazteen kontzertua Alondegian.

19:30ean karrikaz karrika ibiliko dira txistu-txarangarekin eta 21:30ean afaria izanen dute. Afal ondotik, musika-festa.

Irailaren 25ean, igandean 10:00etan karrikabuelta eginen dute eta 11:00etan agurra.

'Udak azkenak' azkena

Bertze aldetik, udalak eta Sor-ginxulo kultur bilguneak antolatutako *Udak Azkenak* kultur zikloaren azken kontzertuak eskainiko dituzte larunbatean 23:00etan plazan The Malcom Young Band eta Janus Lester taldeek.

Paco Pozoren akuarelak Harriondoan ikusgai

Paco Pozo Diaz margolariaren akuarela erakusketa ikusgai dago Harriondoan kultur etxean irailaren 13tik 30era. Astearretik ortziralera 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 18:30era eta larunbat eta igandetan 10:00etatik 14:00etara zabalik daude atekak.

caser residencial

- ▲ Adinekoentzako egoitzak
- ▲ Egonaldi iraunkorrak
- ▲ Egonaldi motzak
- ▲ Errehabilitaziorako egonaldiak
- ▲ Aisialdi egonaldiak
- ▲ Susperraldi egonaldiak

Eta Caser Cuidadosekin, etxean behar dituzun zaintza edo laguntza zerbitzuak kudeatuko dizkizugu

Caser Residencial Anaka
Anaka kalea 8 - IRLUN

Caser Residencial Betharram
Zubieta kalea 161- HONDARRIBIA

900 103 348
caserresidencial.es

Amaita

Albaitaritza eta maskotak

LARRIALDI ZERBITZUA +



365 egun



24 ordu gure bezeroentzat


ALBAITARITZA ZERBITZU INTEGRALA



- Kontsultak
- Ebakuntza gelak



ILEPAINDEGI ZERBITZUA



MASKOTENTZAT EGOITZA



Oporretara joan nahi duzu eta ez dakizu non eta norekin utzi zure katua, txoria edo karraskaria? Gure EGOITZAN albaitarien zaintzapean pozik eta ongi zainduko dugu.



DENDA ...



☎ Kontsultak eta hitzorduak: 943 620 230

+☎ Larrialdiak: 618 893 420

📞 Whatsapp: 676 852 459

📍 Colon Ibilbidea 27, behea. IRUN (Parkingetik sarbide zuzena)

Uso postuen enkantean 38.901 euro bildu dira

Hasierako tasazioa baino 2.098 euro gehiago hartuko ditu udalak, baina iazko 60.100 euroetatik urrun

IRUNE ELIZAGOIEN

Iarmendiko uso-postuen bigarren enkantea egin zuten irailaren 13an. Sesta emandako 12. postua hobetu eta irailaren 3ko lehen enkantean hutsean gelditutako 13. eta 14. postuak saldu ziren eta, azkenean, 21 ehiza-postuetatik 17 esleitu dituzte aurten eta horiengatik 38.901 euro bilduko ditu udalak. Hala ere, iazko markatik urrun gelditua da (iaz 60.100 euro bildu ziren) baina, postuek hasieran zuten prezioa ia 2.098 eurotan gainditzea lortu da.

Hasierako tasazioa 36.803 eurokoa zen eta lehen enkantean 32.222 eurora ailegatu ziren ehiztariak. Lehen enkantean hutsean gelditutako sei postuak eta sesta emandako 12. postu atera ziren enkantera. Hau 1.778 eurotan atera zen eta azkenean 4.574 eurora ailegatu zen. Eta lehen enkantean hutsean gelditutako 13. postua hasierako prezioa hobetu eta 2.895 eurotan saldu zen eta 14. postua, aldiz, tasazioko prezioan, 988 eurotan. Aurten hutsean gelditu dira 15, 16, 17. eta 18. postuak.

Emozioak hurrekin landuz eta hitzaldi ilustratua

Galkidea, Gizarte zerbitzuen mankomunitatea eta Nafarroako Gobernuak *Emozioak hurrekin landuz* tailerra antolatu dute irailaren 19 eta 26an, 17:00etan. Hilaren 30ean, 19:00etan *Amaiur! libera state* hitzaldi ilustratua emanen du Asisko Urmenetak Kultur Etxean.

800 bisitari izan dira udan Turismo Bulegoan

Aurten 800 lagun gerturatu dira turismo bulegora. Nahiz eta murrizketarik ez egon, nahiko uda motela izan da, aitzineko urtearekin konparatuz turista gutiago etorri baita. Madril eta Bartzelonakoak izan dira gehienak. Herri zainduetara joan nahi dute, gero eta gehiago.



ANA INDABURU

Larraburuko eskurtsioa Gasteizera

Irailaren 3an eskurtsioa egin zuten Larraburua elkarteko 55 bat lagunek. Agurain, Gasteiz eta Elorrio ezagutzeko aukera izan zuten. Irail erdian hastekoak dira berriz ere ikastaroekin. Aurreko urtean bezala, gimnasia izanen da Danielekin eta urrian muxikoak eta yoga ere martxan jarriko dituzte.



IRUNE ELIZAGOIEN

Oinatz Bengoetxeari agurra

Jendetza elkartu zen irailaren 11n Bengoetxea-Azanza eta Xala-Pascualen arteko partida ederra ikusteko. Altxatak egindako zozketan pilotariek sinatutako bi kamiseta, bi lagunentzako otordua, poltsak eta Herriko Ostatuak emandako Iñurrieta ardo sorta banatu ziren.

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOAK · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450 Legla, 23 - BERA

LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL
Itzurrunzubiko plaza 9-10 • 31770 LESAKA (Na)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklina.es @liderahortzklina

ETXALAR
HOTEL-VENTA
*lagunarte, familia,
kintõ besta...*
OSPAKIZUN GUZTIETARA
EGOKITZEN GARA
ETXALAR | T. 948 63 50 00 | www.etxalar.com | info@etxalar.com

Usategietako tradizioaren besta irailaren 25ean

Aurten Usazaleen Elkarteak sortu dute, «Usategietan egiten den lana babestu eta aitortu eta herriarentzat duen balioa emateko»

IRUNE ELIZAGOIEN

Sara eta Etxalarko usazaleek berriz ere egitarau ederra presatu dute irailaren 25ean ospatuko den Usategietako tradizioaren bestarako. 10:00etatik 13:00etara bertako ekoizleen merkatua, Usoak sarean erakusketa, usazaleen makila-egite erakustaldi parte-hartzailea eta haurrentzako puzgarriak izanen dira. 10:30etik aitzinera botaluze pilota partida. 11:30ean Usategietako makila botatzeko munduko VII. Txapelketa. 12:30ean Sara eta Etxalar arteko hitzarmenaren

sinadura berrestea. 13:00etan Sarako dantzarien emanaldia. 14:00etan bazkaria. Txartelak Elutsan, Herriko Ostatuan, Herriko Okindegian edo Lizaietako Bentan eros daitezke.

Usazaleen elkarteak

Aurtengo berrikuntza izan da usazaleen elkarteak sortzea. Elkarteak egitura bat ematen dio lan-taldeari, badela agertuz eta egiten den lana aitortuz. Usazaleen lana herriak gozaten duenez, herriaren aldetik behar den babesa ailegatu ahal izatea da helburua.



ANA INDABURU

Ehun urte bete ditu Regina Ibarra

Lakain auzoko Mariskineko Bordako Regina Ibarra 100 urte bete zituen irailaren 7an. Egun guzian zehar hainbat bisita eta opari jaso zituen: udalarena, Larraburu elkartearena eta bertze hainbat lagun, familia (bizi duen alaba, bi biloba eta hiru birbiloba) eta auzotarrena. Zorionak!



Guillermo LARRAÑAGA doktorea

KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA



- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma eta malformazioena
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekointerbentzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak

Kolegiatu zk. 202006147

Tel. 610 549 507

Centro Médico Bera San Esteban 17, Bera

Herri kirol desafioa jokatuko dute urriaren 8an

Herriko talde batek Herriz Herri Txapelketa irabazi zuen taldearen kontra ari nahi du herri kiroletan

NEREA ALZURI

Herri kiroletan aritzeko txirrintak segitzen du herrian. Abuztuan Añorben jokatu zuten Herriz Herri Txapelketa finaletik zapela ekarri zuen talde batek herrira. Eta orain, herritarrek bertze talde bat sortu dute eta urriaren

8rako desafioa bota dio talde txapeldunari.

Saltsa polita izanen da herrian, seguru tarte polita pasatu eta pasaraziko dutela. Ez da eguneko hitzordu bakarra izanen... Baina xehetasun gehiago hurrengo TTIPI-TTAPAN emanen dugu.

Bertako gaztaina bariatateetan udako txertaketak

NEREA ALZURI

Bertako gaztainak identifikatu eta berreskuratzeko udalak duela bi urte abian jarritako egitasmoaren baitan, irailaren 10ean bertze saio bat egin zuten. Orain arteko saioetatik talde finko bat bada parte hartzen segitzen duena eta horiez gain, partaide berriak bildu ziren. Guztira hogeitau lagun bildu ziren Efrén Martín adituarekin.

Bezperan, Martinek Argatso-ron behin betiko geldituko den eremuan identifikaturiko bertako borts bariatateetan (*santmigela, gaztain xuria, meauri*

gorria, porkaltsa, eta roketarra) txertaketak eginak zituen eta biharamunean, ikastaroko taldeari egindako lanari buruzko xehetadunak azaldu zizkien, udako txertaketa prozesua nolako den argibideak emanen. Ikastaroak egiteko erabiltzen duten bertze proba eremuan ere, alde praktikoa landu zuten.

Ikastaroa ederki joan omen zen. Dabid Iturria alkateak adierazi duenez, hagitx kontent daude ikastaroek duten harre- rarekin eta herritar talde bat hasieratik egiten ari den jarrai- penarekin.

Irakurle taldeak irailaren 29an hasiko du ikasturtea

N. ALZURI

Udako oporrak gibelean utzita, irakurle taldea prest da ikasturtea hasteko. Hilabete-ko azken ortzegunetan izaten dute hitzordua eta irailekoa, hilaren 29an egingen dute, 17:00etan. Orain arte bezala, liburutegia izanen dute bil- tzeko tokia.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

'Karena' liburua

Hitzordu aldiro liburu bat lei- tzekotan gelditzen dira irakurle taldekoak, gero horri buruz mintzatzeko, eta Alaine Agirreren *Karena* da orain esku

artean dutena. Taldea irekia da eta taldean erabakitzen dute zein liburu leitu. Norbait- tek parte hartu nahi badu hitzordura joan bertze lanek ez du.

Pelle Ttikik borts haurrekin hasi du ikasturtea

N. ALZURI

Eskolako ikasleek irailaren 7an hasi zuten ikasturtea eta bi egun lehenagotik, irailaren 5ean, abiatu zuten Pelle Ttiki haur txokoak ikasturtea. Aurten ere, udalak Magala haur eskolarekin kudeatuko du herriko zerbitzua.

Borts haur daude gaur egun Pelle Ttikin: Aiur Urkia Scheaper, Gozain eta Lizar Eskudero Almandoz anaiak, Adei Iturria Gurutxet eta Xuban Ordoki Hualde. Ane Telletxea Igoa lesakarra dute hezitzaileak.

Bertsos eskolen bi talde osatu nahi dituzte

N. ALZURI

Urriaren sartuta, eskolaz kanpo-ko ekintzak hasiko dituzte neska-mutikoei eta horien artean, bertso eskola izanen dute. Nafarroako Bertsozale Elkarteak bi talde osatu nahi ditu herrian. Asteazkenetan eskolan bilduko lirarteke, batetik, Lehen Hez- kuntzako hirugarren mailatik goitikoak eta bertzetik, DBHko eta Batxilergokoak, Estitxu Aroz- zena irakasle dutela. Irailaren 30ean bukatuko da izen ematea (*bertsozale.eus*) eta guttienez lau lagunek apuntatu beharko dute taldea osatzeko.

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

K-STRETCH

Etorri eta probatu debalde!

San Esteban, 17 • T/F. 948 625 206 • BERA
Colón Pas. 6 - atzea • T/F. 943 633 050 • IRUN

Centro Prim regina.tolosa@echebare

Jauriena

Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean • Herentziak
Alokairuak • Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com

Bestabusa eta Puntu Lila ere izanen dira herriko bestetan

Guraso Elkarteak ere ostatua zabalduko du eskolari laguntzeko eta larunbateko kontzertua gazteek ordainduko dute

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Hemen ditugu Igantziko bestak. Egitarau zabala prestatua dago, honen xehetasunak ale honetako gehigarrian ikusgai daude. Bestak asteburu honetako ekitaldiekin hasiko dira (plater tiroketa, pilota txapelketen finalak, dantza taldearen emanaldia, gazta lehiaketa, ardo dastaketa...), eta gero, hilaren 28an, datorren asteazkenean txupinazoa botaz, urriaren 1era arte luzatuko dira. Egun hauek ekintzaz beterik izanen ditugu, besta batzordeak egindako lanari esker.

Ekitaldi ofizialaz gain aipamen batzuk egin nahiko genituzke.

Puntu Lila izanen dugu, herriko etxeko arkupetan kokatua. Besta bus-a ere izanen da. Guraso Elkarteak ere ostatua zabalduko du eskolari laguntzeko biltzen duten diruarekin. Larunbatean Bad Sound Sistem taldeak eskainiko duen kontzertua gazteek ordainduko dute.

Beraz, herritarroi gelditzen zaiguna ekintzetan parte hartzea da eta alaitasunez gozatzeko. Gora sanmigelak!

Jubiloteka berriz ere martxan ikasturte berrian

Udako geldialdiaren ondotik berri pozgarria da jakitea jubilotekak kideek berriro martxa polita hartua dutela. Oraingo honetan ere ekintza dibertigarri eta entretenigarriak betetako saioak izanen dituzte, zuzen bidean asteazkenean Baratxondan.

Kantauri abesbatzaren emanaldi ederra

Urruñako Kantauri abesbatzak eta lagunak (tartean Giltzarriko herriko abeslariak), Isabel Lacarren zuzendaritzapean saio ederra eskaini zuen irailaren 9an elizan. Ilunabarreko 20:00etan hasi zen saioa eta jende kopuru polita hurbildu zen kantaldiaz gozatzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gaztetxoak ere mendi duatloi proban

Hirugarren urtez Igantziko Biltoki Elkarteak mendi duatloia antolatu zuen irailaren 4an. Parte-hartze handia izan zen eta eguraldia lagun jardunaldia zoragarriaz gozatzeko aukera izan zuten. Nagusien emaitzak kirol orrietan ageri dira, baina hemen parte hartu zuten herriko neska-mutikoak ageri dira.



BIDAL IBARRA

Giro beroa Berrizaungo bestetan

Irailaren 10ean eguerdian hasiera eman zieten Berrizaungo bestei. Txupinazoaren ondotik herriko dantzariak saioa eskaini zuten. Gero auzo bazkaria izan zen eta arratsaldean berriz beteranoak gazteen aurkako desafioa eta hanka lehiaketa. Ilunabarrean berriz DJ Endarak alaitu zuen besta.

Frutas y Verduras
FRASANDOREA, S.L.
FRUTAS Y VERDURAS
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidaxoa, 76 - atea 21-22 • BERA

Arduero
arropa-denda
ebreko osagarriak | lantzeria
Altzate, 30 BERA T. 948 630 138

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK
DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK

BIZIKLETEN SALMENTA eta KONPONKETA.

KATEA BIKE

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

SCOTT PINARELLO MIBISSI MERIDA
BERGAMONT BH coluer LOOK

Igantziako bestak 2022

Gora Sanmigelak!

lagunak diren lekuan,
beti dago besta!

bortzirudi

inprimategia

kapitela: rebolazio: serigrafia: papertegia

48831521 - bortzirudi@gmail.com

estrategiak: satelena 9.000x13.000x15



Ongi pasa bestak!

Aluminio R.P.T | PVC

Kontraleihoak

Toldoak

Barandak eta balkoiak

Ataripen itxiturak

Eltxo-sareak

Guk lagunduko dizugu dirulaguntzak tramitatzen



T. 948 630 962 M. 626 313 162

H. Zalain Ind. 8 - 31780 BERA
info@irekileihoak.com
www.irekileihoak.com

egitaraua



Irailak 24, larunbata

09:30ean gosaria Ziobin. 10:00etan plater-tiroketa Ziobin. 12:00etan herriko pilota goxua eta fontenis partiduen finala. 20:00etan herriko dantza taldearen emanaldia.

Irailak 25, igandea

10:00etan karrika buelta txistulariekin. 12:00etan XVII. gazta lehiaketa eta ardo dastaketa. 18:30ean karrika buelta kankailu eta buruhandiekin. 19:00etan gazta eta opil dastaketa trikitilariekin.

Irailak 28, asteazkena

17:00etan goitibehera txapelketa. 20:00etan altxaferua Elutxa txarangarekin. Ondotik Elutxa txaranga eta karrika buelta kankailu eta buruhandiekin gaiteroek alaituta. 00:00etatik 03:00etara Elutxa txaranga.



ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11

ONGI PASA BESTAK

Lehen A.T.M. S.A

Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
info@zumarbel.es
www.zumarbel.es



Irailak 29, ortzeguna

09:30ean karrika buelta txistulariekin. **10:00etan** karrika buelta ezpata dantzari eta txistulariekin. **11:30ean** meza nagusia Igantziko Abesbatzaren parte-hartzearekin. **Ondotik** 'Bandera arbola' doinuari dagokion ikurrin agurra eta herriko ezpata dantzarien eta dantzarien ikuskizuna. **17:00etan** afizionatuen arteko pilota partidak: Kattin Madariaga eta Nahia Bertiz, Ainitze Martinez eta Amairu Martinezen kontra eta Oian Canabal eta Joseba Aldabe, Julen Alberdi eta Diego Iturriagaren kontra. **21:30etik 23:00etara** Txamukos mariabiak.

Irailak 30, ortziralea

10:00etan karrika buelta txistulariekin. **10:00etatik 12:00etara** haurrentzako puzgarriak frontoian. **11:00etan** haurrentzako animaliak zezen plazan. **12:00etan** Betizuak zezen plazan Elubxa txarangak alaituta. **14:00etan** haurren herri bazkaria eta herri bazkaria Iker Zubeldia eta Iban Urdangarin bertsolariekin. **15:00etatik 18:00etara** haurrentzako puzgarriak frontoian. **18:00etatik 21:00etara** Elubxa txaranga. **22:00etatik aitzinera** kontzertuak Herenegun eta Laket taldeekin.



Urriak 1, larunbata

10:00etan karrika buelta gaiteroekin. **11:00etan** toka txapelketa frontoian haur eta helduentzako. **12:00etan** karrika buelta kankailu eta buruhandiekin gaiteroekin alaituta. **18:00etan** herri kirolak: Nafarroako arpana txapelketa mistoko kanporaketa, harri-jasotze erakustaldia eta herritarren arteko desafioa. **22:00etatik 23:30era** Bad Sound System taldearen kontzertua, gazteek ordaindua. **00:00etatik 01:00etara** Betizuak zezen plazan Elubxa txarangak alaituta. **01:00etatik 06:00etara** Txingudi DJ.

OKILA

Zurgindegia

- tarimak, leihoak, ateak, eskailerak...
- obretako lanak orokorrean

Lander Sein

On egin janak eta kalterik ez edanak!

607 88 39 68 · lander@okila.eu
Piedadeko auzoa, 32 · IGANTZI

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus



**Igantzikiko Udalak besta onak opa dizkizue
igantziar eta bisitari guztiei**



Txirrindulariak probaren irteeran. MAIDER PETRIRENA

160 txirrindulari BTT ibilaldiaren laugarren edizioan

Proba pasatzeko bere garaian galdutako bidexka bat ere berreskuratu dute Sunbilla BTT taldeko antolatzaileek

MAIDER PETRIRENA

Sunbillako BTT ibilaldiaren laugarren edizioa egin zuten irailaren 11n. Giro ezin hobean joan zen bizikleta proba ez lehiakorra. Bi ibilbide antolatuak zeuden. 25 eta 30 kilometrokoak eta bere garaian galdutako bidexka bat berreskuratzeko ere aprobetxatu dute aurten antolatzaileek. Proba honetan 160 pertsonen parte hartu zuten, tartean 20 bat sunbildarrek. Proba ez lehiakorra denez, parte-hartzaileek nahi duten ibilbidea egin dezakete. Handia, ttikia edo handiko zati bat eta ttikira bueltatu... Sailkapenik ez bazen ere, Eneit Bertiz izan zen luzea egiten bizkorrena. Ibilbideari hasiera eman baino lehen kafea, ura, bolloak... dastatzeko aukera izan zuten eta ibilbidea bukatutakoan ere, horrez gain, pintxoak eta edaria ere dastatzeko aukera ezin hobea izan zuten. Bizikleta baten zozketa ere egin zen eta irabazlea 6 dortsala zuten Oreretako txirrindulari bat izan zen. Bertze hainbat eta hainbat sari ere zozketatu zituzten.



Bi txirrindulari Zumalekun.

Herriko txirrindulariak bikain

Katea Bike taldearekin ari diren herriko txirrindulariek lehia izan zuten irailaren 10ean. Eneit Bertiz Valla de Boiko Nazioarteko Nazioarteko Kataluniako Kopako proban parte hartu zuen. Arazo fisikoekin sufritzea egokitu zitzaion, baina halere 16. postua eskuratu zuen gazte mailan. Koldo Herrera eta Igor Agesta, bere aldetik, Espainiako XCM txapelketako proban izan ziren Rames de la Victoria herrian (Kantabria). Sub-23 mailan seigarren postua eskuratu zuen Herrerak eta M40 mailan hogeigarren postua Agestak.

Astebete lehenago, Igantzi-ko mendi duatlo lasterketan ere ederki ibili ziren (55. orria).

ETBko 'Oholtzan' saiorako grabaketa ederra egin dute irailaren 9an

M. PETRIRENA

ETB1en larunbatetan ematen duten *Oholtzan* programa Sunbillan grabatu zuten irailaren 9an. Eszenatokia elizartarian paratu zuten ortzirale arratsean eta abeslariak, berriz, beheko aldean, errepidean. Arratsalde polita izan zen. Lehenik eta behin grabaketak egin ziren, ondok luntxa eta 21:00ak inguru horretan grabaketari hasiera eman zitzaion. Guztira, hamalau kanta abestu zituzten oholtza gainean, Jaione Olazabal eta Juanpa Agirreren gidaritzapean: *Txo-*

riak txori, Xalbadorren heriotza, Ixil ixilik dago, Oi ama Euskalherria, Ikusi mendizaleak, Eperrak, Lau teilatu, Zazpiakoihal batetik, Furra-furra, Agure zaharra, Gora ta gora beti, Baldorba, Euskal herrian euskaraz eta Azken dantza.

Publiko moduan, Mendi eta Paz de Ziganda abesbatzak gonbidatuak izan ziren, baita herritar kuadrilla ere. Arras giro ederrean egin zen grabaketa. Beñat Mitxelenaoren zortzikoa dantzatzu akitu zuten saioa.



Abeslariak, musikariak eta antolatzaileak oholtzan eta jendea dantzan. M. PETRIRENA

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla - Tel: 948 450 862

F. LANCHAS

Akutziladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaillea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Besta ttikiak ospatuko dituzte asteburuan

Ortziralerako eta larunbaterako egitaraua antolatu dute udalak eta Gazte Burrunbak

OIER ZULAIKA

Bi urteko etenaren ondotik, aurten bai, aurten ospatuko dituzte Doneztebeko besta ttikiak asteburuan. Besta giroak hartuko du herria, eta horretarako egitarau zabala prestatu dute udalak eta Gazte Burrunbak elkarlanean.

Ortziralean hasiko dira bestak 17:30ean Santa Luzia plazan eginen duten haurren dantza emanaldiarekin. Ondotik, frontoian erremonte txapelketako finalak jokatu dituzte. Ordu berean, erraldoiak eta gaiteroak ibiliko dira karrizka karrika eta 19:00etatik aitzinera Saldiasko taloak dastatzeko aukera izanen da. 20:00etan leher-tuko da besta Santa Luzia plazatik botako duten txupinazoarekin. Gauen musika izanen da protagonista. 23:00etan hasita bi kontzertu izanen dira: Lehen lerroa eta Kontralde. Eguna bukatzeko, 01:00etatik aitzinera DJ Endarak alaituko ditu bazterrak.

Larunbatean izanen du segida egitarauak. 10:00etan hasi eta 13:30ak arte *Uraren*

bailara azoka eta umeentzako jokoak izanen dituzte Intzakardin. Ondotik, 11:00etan buruhaundiak ibiliko dira herrian barna. 11:30ean mus txapelketa hasiko da plazan eta parte hartzeko bikote bakoitzak 10 euro paratu beharoko ditu.

14:00etan zikiro jatea izanen dute, eta ondotik karrotxaranga ibiliko da ostaz ostatu. 18:00etan haurrentzako *Historiko nago* antzerkia izanen dute plazan. Ondotik, musika izanen dute: 20:00etan Los Andus taldea ariko da, eta gauerditik hasita 04:00ak arte Gabezin erromeri taldeak alaituko du besta.

4x4 triala

Besta ttiketakoak ez dira asteburuan izanen diren ekin-tza bakarrak izanen. Larunbat arratsaldean 15:00etan hasita Doneztebeko 4x4 triala eginen baitute. Aparan industriagune ondoan. Booma 4x4 taldeak antolatu du, eta apuntatzeko aitzinetik izena eman behar da 697 475 278 telefono zenbakian.

Bertso eskolan izena emateko epea irekia

OIER ZULAIKA

Iraila ailegatzearekin bat bertso eskolak ere hasiko dira martxan. Izen ematea hilaren 30era bitartean egin beharko da, eta hurrengo astean hasiko dira klaseetan. Bi bertso eskola izanen dira, alde bate-tik LH 5. eta 6. mailakoek San

Miguel eskolan izanen dute ortzegunetan 15:00etan hasi eta 15:50 arte Estitxu Arozena irakasle dela. Malerrekako helduak, aldiz, ortziraletan elkartuko dira 18:00etan Doneztebeko Herri-gunean Iker Gorosterrazu irakasle dutela.



ENRIQUE VIDONDO

Arrakastatsua izan da xake txapelketa

Casino elkartearen egin zuten irailaren 10ean Doneztebeko xake txapelketa. 24 parte hartzaile elkartu ziren, gehienak herritarrak. Beñat Salbarredi berastegierra nagusitu zen. Bigarren postuan Antso Vidondo berriozartarra gelditu zen eta hirugarren Asier Cuesta irundarra.

Euskaltegiko matrikulazio epea zabalik irailaren 30a arte

MARGA ERDOZAIN

Malerrekako IKA euskaltegiak dagoeneko martxan du 2022-23 ikasturterako izena emateko epea. Interesatuak heldu den irailaren 30era arte aukera dute matrikula.

Aitzineko urtetan bezala, aurtengoan ere euskaltegiak maila guztiak ekainiko ditu: hutsetik hasita, EGA edo C1 mailaraino. Klaseak ere presentzialean eta online edo autoikaskuntzaren bitartez hartzen ahal dira. Aipatu behar da aurten ere Malerrekako Mankomunitateari es-

ker, ikastaro hauek diruz lagunduak daudela (klasera joanez gero, laguntzaren %100 hartzeko aukera izanda).

Argibideak eta izen ematea euskaltegian bertan, malerrekaika@euskaltegiak.eus helbidean edo honako telefono hauetan: 948 45 15 55 edota 747 42 52 05.

Ekintzak liburutegian

Bakea eta bizikidetzeta lantzen duten liburutegien programaren barrenean hiru tailer egiten dituzte irailean.

«Xakea joko hutsa baino aunitzez gehiago da»

IÑIGO OSTIZ ESKALADA DONEZTEBEKO XAKELARIA

Haurtzaroko xake partidak gogoan, konfinamenduan ekin zion Doneztebeko gazteak berriz xakeari. Joan den urteaz geroztik xake eskolak hartzen ditu eta txapelketa batzuetan parte hartu du

G. PIKABEA

Haurrazela, attarekin egin zituen xakeko piezekin lehenbiziko mugimenduak Iñigo Ostiz Eskaladak (Doneztebe, 1990). Baina orain dela urte pare bat, konfinamendu betean, bertze pauso bat ematea erabaki zuen, «aplikazio bat deskargatu eta erregularki xakean hasi nintzen. Orduak pasatzen nituen horrela», dio. Geroztik, ez du haria eten eta xake klub bateko kide izateaz gain, txapelketetan parte hartzen hasia da.

Noiz hasi zinen xakean?

Ttikitan tarteka attarekin aritzen nintzen, baina erregularki konfinamendu garaian hasi nintzen. Aplikazio bat deskargatu eta horrela pasatzen nituen orduak. Denboranolabait pasatu behar... 2021eko irailean, berriz, pixka bat gehiago ikasteko asmoz, Burlatako Mikel Gurea klubean apuntatu nintzen xake klaseak hartzeko. Urtea daramat elkarrean, eta hagitx gustura nago, partidak hasten eta akitzen ikasi dut, baita jokaldi bakoitzak zein zentzu duen eta posizio zehatz batzuetan abantaila nola aterata ere. Xakeari buruz gauza gehiago ikasten eta gauzak zergatik pasatzen diren ulertzen hasten zara eta gero eta gehiago lotzen zaitu. Pixka bat biziatu naiz. Beti bada zer hobetua, noski, eta horretarako badira liburuak. Tarteka zerbait leitzen dut.

Txapelketetan ere ibiltzen zara... Tarteka ibiltzen naiz. Oraingoz, Nafarroa mailan antolatu di-

tuzten txapelketa batzuetan apuntatu izan naiz. Parte hartu nuen lehenbiziko txapelketan, hamar minutuko partidak jokatu genituen, eta zazpi partidetatik bi irabazi eta bat berdindu nuen. Hura izan zen nire lehenbiziko esperientzia. Lehenbiziko txapelketa ofiziala, berriz, Burlatan jokatu nuen. Erritmo normalean aritu nintzen, hau da, ordu bat eta piko, eta nahiko ongi moldatu nintzen. Gainera, puntuazio ofiziala lortu nuen, Elo Fide deitzen dena. Elo Fidexakeko zure maila adierazten duen puntuazio sistema da eta hori lortzeko Elo Fide duten xake jokalariei irabazi behar diezu. Zazpi partidetatik

hiru irabazi nituen, bat berdindu eta hiru galdu. Nire helburua pixkanaka gehiago ikastea da, eta tarteka txapelketetan ibiltzea. Niretzat hobby bat da. **Baduzu momentu berezirik gogoan?** Joan den azaroan, taldekako txapelketa jokatu genuen, partida azkarretan, eta orduan lortu nuen nire garaipenik garrantzitsuena. Bere garaian Nafarroako txapeldun izan zen Pedro Vinali irabazi nion eta horixe dut orain arteko oroitzapenik politena. **Nola ikusten duzu xakearen egoera gure eskualdean?** Gaur egun jarraitzaile gutti du. Orain dela 20 bat urte Donezteben xakeko klaseak ematen

zizuten. Bi urtez aritu ziren, baina alde batera gelditu ziren. Duela urte batzuk Leitzaan ere izaten ziren xake klaseak eta Lesakan txapelketak egiten zizuten kanpoko jendearen parte hartzearekin. Orain Lesako Beti Gazte Egunean antolatzen dute, urtean behin. Elizondon, berriz, joan den Eguberrietan txapelketa antolatu zuten. Han badute xakerako afizioa.

Aurten, lehenbizikoz, xake txapelketa antolatu duzue Donezteben. Nolako balorazioa egingen zenuke?

Donezteben halako zerbait antolatzen zen lehenbiziko aldia genuen eta 24 jokalariek elkarrekin ginen, gehienak doneztebarrak baina baita inguruko jendea ere: beratarrak, lesakarrak, baztandarrak berriozartarrak, irundarrak, iruindarrak eta txapelduna berastegierra izan zen. Hagitx balorazio positiboa egingen nuke. Jendea gustura aritu zen xakean, giro polita sortu zen eta partida politik ikusteko aukera izan genuen. Aurtengo txapelketa nola joan den ikusita, hurrengo urtean berriz egingen dugu. Zailena hastea omen da eta dagoeneko pauso hori emana dago.

Sistema suitzarrean aritu zineten. Zenbat modalitate daude?

Iñigo Ostiz Eskaladarekin labur-labur

Erreferentziazko xakelari bat?

Andres Guerrero.

Xakeko piezarik gustukoena?

Erregina.

Pieza beltzak edo zuriak?

Zuriak.

Partida motzak edo luzeak?

Ez sobera motzak, ez sobera luzeak.

Jokatu duzun partidarik luzeena?

la-ia lau ordukoa.

Denbora librean zer?

Kirola egin, lagunekin egon, mendira joan...



Xakeaz aparte, kirol bat?

Futbola.

Liburu bat?

La ciudad blancako trilogia.

Film bat?

Forrest Gump.

Musika talde bat?

Berri Txarrak.

Amets bat?

Zorionsu izatea.



Nafarroako hainbat txapelketetan parte hartu izan du Ostizek, eta aitortu duenez, gustura dabil.

Bi modalitate nagusiak liga formatukoa eta suitzarra dira. Liga formatuan denak denek kontra aritzen dira, eta suitzarrean, hasieran zozketa bidez erabakitzen dira lehenbiziko partidak. Eta gero, irabazten dutenak irabazten dutenen kontra aritzen dira. Adibidez, hirugarren jardunaldian batek bi puntu baldin baditu, bi puntu dituen baten kontra ariko da. Gutti goitibeheiti puntu kopuruberdintsua duenaren kontra jokatzeko da.

Zein dira xakearen alde onak?

Alde on aunitz ditu. Leitu duanaren arabera, buruko eritasunak saihesteko hagitz ariketa ona da. Umeen kasuan, xakeari esker, planifikazioa garatzen dute, denak bere sekuentzia duela ulertzen dute. Hagitz ona da pentsatzeko, gauza bakoitzak bere eritimoa duela ikasteko, eta inteligentzia emozionala garatzeko ere lagungarria da, akats bat egiten baduzu; ezin diozu inori errua bota, zuk egin duzun zerbait delako eta hori kudeatzen jakin

behar duzu, hanka sartu duzula onartu eta aitzinera segitu. Kontzentrazioa garatzeko ere ariketa ona da, eta horrez gain, pertsonen artean ez du diskriminaziorik egiten. Hezkuntzan ere, aplikazio aunitz ditu xakeak. Batzuetan irakasgai independentea da eta bertze batzuetan modu transbertsalean lantzen dute. Adibidez, matematikan geometriako problema batzuk esplikatzeko xakea erabiltzen dute. Edozein aritzen ahal da xakean, indarrak ez du zerikusirik, ez sexuak, ez bertze ezauzgarriek. Xakea joko hutsa baino aunitzez gehiago da.

Bertze kirolekin konparatuz, lehia diferentea da xakean?

Bai. Ez da kirol fisikoa, mentala da. Bertze kiroletan bezala,

«NIRE HELBURUA PIXKANAKA XAKEAN GEHIAGO IKASTEA DA»

irabazi nahi duenaren kontra ari zara, baina, salbuespenak salbuespen, orokorrean jokalarien artean errespetu haundia da.

Lehia gustatzen zaizulako aritzen zara edo ongi pasatzen duzulako?

Ongi pasatzen dudalako. Lehia ongi pasatzen dut, baina gehienbat gustatzen zaidalako aritzen naiz xakean.

Zer ematen dizu xakeak?

Hausnartzen eta prozesu guztiek bere sekuentzia dutela ikusten laguntzen dit. Batzuetan zerbait lortu ahal izateko zerbait sakrifkatu behar dela konturatzeko ere balio izan dit.

Zein da xakelari onaren sekretua?

Sekreturik haundiena praktika da. Eta maila hagitz altuan, zerbait berezia izan behar duzu,

«XAKEAK ALDE ON AUNITZ DITU, HAGITZ ARIKETA ONA DA»

berezko zerbait. Adibidez, munduko txapeliduna den Magnus Carlsenek badu zerbait berezia. Tikitan, bederatzi urterekin, hondartzan zegoenean, partidak mentalki errepatatzen omen zituen, nola hobetu jakiteko, dena buruan, taularik gabe. Dударik gabe, horretarako gaitasun berezia behar da.

Zein entrenamendu egiten dituzu?

Astean behin Burlatako Mikel Gurea klubera joaten naiz. Ikasturtea urrian hasiko dugu, eta hor taktikak eta bertzelako kontzeptuak lantzen ditugu, nola planteatu partidak... Egingako partidak analizatuz aunitz ikasten da. Partida eritimo motelean denean, jokaldi guztiak apuntatzen dira eta gero irakaslearekin aztertu edo ordenagailu batean sartzen ditugu, momentu bakoitzeko aldaerak zein diren ikusteko.

Gazteei aholkurik emanen zenieke?

Xakea probatzeko erranen nieke, gustatzen zaien edo ez ikusteko aukera eman diezaiotela beraien buruari.



Adin guztietako joaldunek parte hartu ohi dute beraien egunean. ARTXIBOKOA

Joaldunen Eguna ospatuko dute irailaren 24an

Aizkora apustua, Jon Maia eta Aitor Mendiluze bertsolariak eta Hauspolariek taldearen musika izanen dute

ARKAITZ MINDEGIA

Joaldunen Eguna ospatuko dute irailaren 24an. Larunbatean 10:00etan herriko joaldunek eta trikirilariak ibilaldia egingen dute baserri baserri. 13:30 aldera aizkora apostua jokatu dute eta ondotik Jon Maia eta Aitor Mendiluze bertsolariak ariko dira. 15:00etan bazkaria egingen dute plazan. Arratsaldean eta gauetan dantzaldia izanen da Hauspolariek taldearen eskutik eta 22:00etan, suzko zezena aterako da.

Bertze aldetik, irailaren 9an zita garrantzitsua izan dute Zarautzen joaldunek. Ohitu-



Joaldunak Zarauzko Euskal Jaian.

rari eutsiz, goiz goizetik beraien joare soinuak zabaldu zituzten Euskal jaiaren egunean Aurtengoan ere hantxe aritu ziren giro ederrean egun bikaina pasatuz.

Aurtizko San Martin bestak prestatzeko lanetan buru-belarri

Aurtengo sanmartinak gero eta hurbilago ditugu. Azaroaren bigarren asteburuan Aurtitzen ekitaldiz beteriko bestak antolatzen hasiak dira gazteak. Burubelarri lanean dabiltzate lehen bilera egin ondotik, adin guztientzako ekitaldiak antolatzeko asmoz.

Naroa Telletxea ETB1eko 'Nafragoak' saioan

ETB1ek *reality* berri bat estreinatuko du irailaren 27an, *Nafragoak*, Karibeko irletan grabaturikoa. 7 bikote eta 4 bakarlari ariko dira saria irabazteko lehian. Lehiakide horien artean herritar bat dago, Naroa Telletxea. Asteartero ikusiko dugu nola moldatzen den.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herritarrek Sunbillako IV. BTT ibilaldian

Hagitz arrakastatsua izan zen irailaren 11n Sunbilan egin zen BTT ibilaldiaren azken edizioa. 160 pertsonak hartu zuten parte eta horien artean lau herritar izan ziren: Javi Sein, Iñigo Iparragirre, Ismael Elizalde eta Gorka Fagoaga. Egindako lanarekin gustura gelditu ziren lauak.

KULTURKARI
Divisio grafikoak | Publikatzailea

INPRENTA-LANAK

RULEGOI ENTRESAK
Papegiatza | Goron-aralak | Txanelak | Zgibluak...

ARGITALPENAK
Aldizkariak | Katalogoak | Bestetako programak | Udako aldizkariak
Ekuoerriak | Liburuak | Mapak...

Koskontako bidea, 7-4.
31770 LESAKA
T. 948 63 54 58 | kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com

JOSENEA ENERGIAK

JOSENEAK BAZTAN OIL ZERBITZUAREKIN JARRAITZEN DU

Erregai Banaketa Zerbitzu Berria zure etxera
INFORMA ZAITEZ!

Ordoki industrialdea, 47. partzela
31713 Arizkun (Nafarroa)

WhatsApp 625 324 423
Email: energiak@josenea.es

www.josenea.es

Euskararen Eguna urriaren 7an eta 8an ospatuko dute

Egun horretan berriz ere Dantza Luzea dantzatuko dute eta entseguak hasiko dira ostiral eta larunbatetan

FERMIN ETXEKOLONEA

Bi urtez ospatu ezinik egon ondotik, berriz ere Euskararen Eguna antolatzen hasiak dira gazteak, udalaren laguntzarekin. Seguruenik musika, herri-kirolak eta otorduek ez dute hutsik egingen, baina oraindik egitaraua ez dago erabat zehaztua. Hori bai, berriz ere herriko Dantza Luzea dantzatzeko asmoa dute. Gogoratu behar da hainbat urtez galduta izan ondotik, 2017ko Euskararen Egunean berreskuratu zuten dantza hau. Behar bezala dantzatzeko, aurretik entseguak egitekoak dituzte, Herriko Etxeko estalpean, ostiral eta larunbatetan, 18:30etik 20:30era.

Liburutegia antolatzen

Herritar batzuen ekimenez, eskolan liburutegi txiki bat



2017an berreskuratu zuten dantza.

antolatzeko asmoa bada. Horretarako lehenbiziko bilera eginga dute eta hasierako baiezkua eman diote. Honela, herritarrek etxean soberan izan eta besteekin partekatu nahi dituzten liburuak eskolara eramateko eskaria egin dute. Horretarako borondatea dutenek, ostirala izaten da liburuak eramateko eguna. Beste zenbait herrietan egin dute eta hemen ere saiakera egin nahi dute.



EUSKAL ARTZAINAK AMERIKETAN

Malerrekako artzainak Legazpin omenduak

Bere garaian Ameriketako artzain ibili ziren Tomas Ibarra zubietarra eta Lucio Irisarri elgorriagarra omendu zituzten Gipuzkoako Artzain Egunean, Legazpin. *Artzaintzan maisu, ardi en gidari, makila hau zure maisutzaren oroigarri* zioen oroigarria hartu zuten irailaren 4ko bestan, baita makila ere.



ADOS PILOTA

Plazaz Plazako partida Zubietako plazan

Ados pilota elkarteak antolatutako Plazaz Plaza txapelketako partida erabakiorra Zubietan jokatu zuten irailaren 4an. Naroa Elizalde Etxekoloneak eta Ane Mendiburuk 22-19 irabazi zieten Eneritz Arrieta eta Naroa Agirreri. Emaitza horri esker, finalerdietarako txartela lortu zuen Mendiburuk.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
 SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net ☎ **943 616 587**
 Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Haur eta gazteek ederki pasatzeko aukera izanen dute. ARTXIBOKOA



2019ko bestetan trial ikuskizuna. Aurten ez da halakorik, baina bai ekitaldi ugari.

San Migel bestak irailaren 28tik urriaren 2ra

Egun handian Doneztebeko Mendi abesbatzaren emanaldia eta patata tortilla eta postre lehiaketa izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Bi urteko geldialdiaren ondotik, berriz ere San Migel bestak gogotsu ospatuko dituzte Urrozen irailaren 28tik urriaren 2ra. Beti bezala, egitarau zabala izanen dute, asteazken arratseko txupinazotik eta ezkil-jotzetik abiatu eta hondar eguneko dantza saio, aiz-

kora apustu eta Txutxin Ibañezen emanaldira bitarte.

Irailak 28, asteazkena Bezpera

20:00etan txupinazoa eta ezkil-jotzea bestak hasteko. 21:00etan zopak herriko ostatuan. 00:00etan dantzaldia Modestorekin.

Irailak 29, ortzeguna San Migel eguna

11:00etan Meza Nagusia. 12:00etan Doneztebeko Mendi abesbatzaren emanaldia. 13:00etan luntxa herriko ostatuan. 16:30ean haur jokoak. 19:00etan herri kirolak. 21:00etan patata tortilla eta postre lehiaketa. 23:00etan dantzaldia Salaberrirekin.

Irailak 30, ortziralea

11:00etan haur jokuak. Puzgarriak, kart-ak eta zezen mekanikoa izanen dituzte jolas-teko. 11:00etan mus txapelketa Herriko Ostatuan. 16:00etan plater tiroketa. 21:00etan paella afaria. 23:00etan dantzaldia Dj Endararekin.

Urriak 1, larunbata

11:00etan mus txapelketaren finala. 14:00etan herri bazkaria bertsolariekin eta musika. 21:00etan xingar- eta xixtor-jatea. 23:00etan musika.

Urriak 2, igandea

12:30ean Doneztebeko Erreka dantza taldeko dantzarien saioa. 17:00etan aizkora apustua. 19:00etan Chuchin Ibañezen musika bestak akitzeko eta *Gaixoa Ni*.

ERREKA DANTZA TALDEAREN SAIOA IZANEN DA HONDAR EGUNEAN

744 484 361
ttipi-ttapa

ORBELA
SERKIBURUA
BEINTZAKO OSTATUA
Idola - Mikel
Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

Zurgin lanak
Etxeko edozein konponketa
616295420
Urrotz
joseba@ingurulan.com
www.ingurulan.com

Urrozko Udalak
Besta zoriotsuak opa dizkizue urrotzar eta bisitari guztiei

Joseba Babaze
ITURGINTZA
ITURGINTZA - BEROKUNTZA
EGUZKI-INSTALAZIO TERMIKOAK
KLIMATIZAZIOA - BIOMASA
STREBEL EGURREZKO GALDARAK
Leurtzako-etorbidea, 29, URROZ • T. 678 99 48 00 • babazeiturgintza@gmail.com



Zuhaitzen itzala bilatu zuten herritarrek ospakizunean. ARANTXA ITURRALDE

Leurtzako urtegiaren mendeurrena giro beroan ospatu dute

Herri kirolaren ondarea erakusteko saioak, sentsibilizazio jokoak eta eskulangileen azoka izan ziren

ARANTXA ITURRALDE

Leurtzako urtegiak ehun urte bete zituen 2020an, eta aurten mendeurrena ospatzeko aukera badenez, *Denboraren bilakaera Leurtzan* jardunaldia ospatu zuten irailaren 11n, Urrozko eta Beintza-Labaiengo udalek, bertze zenbait erakunderen laguntzarekin antolatuta.

Txalaparta doinuak adituz, aizkora eta trontza erakusketak egiten zituzten bitartean, kirol hauen historia, iragana eta oraingo egoera azaldu zituzten. Familia eta umeentzako sentsibilizazio jokoak ere



Herri kirola protagonista izan zen.

egin zituzten eta honetaz aparte, Zubietako talogileak eta inguruko eskulangileak ere izan ziren Leurtzan. Trikitilariak aritu ziren eta herriarrentzat luntxa izan zen.



Nafarroako beirateen bildumarik onenetakoa duelako aukeratu dute Bertiz.

Beirari buruzko erakusketa zabalik da Bertizko Jauregian urriaren 30a bitarte

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuo Kultura Zuzendaritza Nagusia - Vianako Printzea Erakundeak, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan, *A la forma de Venezia* (Venezia-ko modura) erakusketa inauguratu zuten irailarn 7an Bertizko Jaurerriko Parke Naturalean, NBEk bultzatutako 2022ko Beiraren Nazioarteko Urtea ospatzeko programaren barrenean. Erakusketa urriaren 30a bitartean zabalik izanen da.

Jesus Sesmak koordinatutako erakusketa doan bisitatu daiteke urriaren 30a arte Bertizko Jauregiko eta Kaperako erakusketa aretoan. XIX. eta XX. mendeetako beira puztuko 42 pieza biltzen ditu, Muranoko beiraren tradizioaren eta gaur egungo beiraren artean duen eraginaren adibide di-

renak. Erakusketaren ordutegia: 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara. Urriaren 13tik aitzinera, arratsaldeko ordutegia 16:00etatik 18:00etara aldatuko da.

Bisita gidatuak irailaren 24an

Gainera, doako bisita gidatuak egingen dira, elebidunak. Parkean zehar ibilaldia egingen dute, erakusketa eta markesinako beirateak barne, 11:00etan (gatzelaniaz) eta 17:00etan (euskaraz), irailaren 24an, Ondareari buruzko Europako Jardunaldien barrenean.

Nafarroako Gobernuo Ondare Historikoaren Zerbitzuak nabarmendu duenez, Bertizko Jaurerriko Natur Parkea aukeratzeko arrazoia «Nafarroako beirateen bildumarik onenetako bat duela» izan da eta «espazio berezia dela, natur eta ondare balioa duelako».




Etxetresnak
Pareta-irmairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak

☎ 948 450 925
☎ 624 47 57 25

Amezta zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE

www.electrodomesticosmiguelena.com



KULTURKARI
Dizaina grafiko | Publizitatea
www.kulturkari.com

Enpresentzako materiala
Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, zigiluak...





Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

Ikastaroz bete-betea heldu da elkartearen ikasturtea

Eskualdeko hainbat herritan eskainiko ditu ikastaroak elkarteak. Kiroldegietan deskontuak dituzte elkarteko bazkideek

TTIPI-TTAPA

Iraila ailegatzearekin bat, udako oporrak bukatu eta bertze ikasturte bat hasiko da elkartearen. Beraz, ohiko jardunari ekinen dio, eta tartean dira antolatzen dituen ikastaroak. Herriz herri ondorengo ikastaroak eskainiko dituzte aurten:

Arantza: Yoga izanen dute ortziraletan 17:00etan hasita bi orduz 19:00ak arte.

Bera: Frantses ikastaroa izanen dute, asteazkenetan bi mailatan banatuta. 09:30etik 11:00etara oinarriz-

ko maila dutenek izanen dute ikastaroa, 11:00etan aldiz, frantsesa ikasten hutsetik hasiko direnek. Ortziraletan, aldiz, pintura klaseak izanen dituzte 18:30etik 20:30era.

Donamaria: Gimnasia klaseak izanen dituzte astelehen eta asteazkenetan 15:00etatik 17:00etara.

Doneztebe: Eskaintza zabal izanen dute. Astelehen eta asteazkenean yoga eta pilates klaseak eskainiko dituzte; 10:30etik 11:30era, eta 15:00etatik 16:00etara hurrenez hurren. Ortzegunean

dantza ikastaroa 10:00etatik 11:30era, eta pirograbatua 16:00etatik 18:00etara. Ortziraletan, aldiz, luzaketak 10:30etik 11:30era.

Elizondo: Elizondon bi ikastaro izanen dituzte: astelehenetan pintura izanen dute 18:30etik 20:30era eta astearte eta ortzegunetan yoga. Kasu horretan bi talde izanen dituzte, 15:00etan eta 16:00etan. Saio bakoitza ordubeteko izanen da.

Ornoz-Mugairi: Aktiba zaitez eta memoria tailerra eskainiko dituzte. Lehenengo urriaren 7tik azaroaren 25era, eta bigarrena azaroaren 25etik abenduaren 23ra. Biak 16:30etik 17:30era izanen dira.

Sunbilla: Yoga ikastaroa izanen dute astearte eta ortzegunetan 18:00etan hasi eta 19:30ak arte.

Ikastaro hauez gain, bertze hainbat ikastaro berri antolatuko dituzte ikasturtean

zear. Horien berri antolatzen dituzten heinean emanen dute.

Elkarteak kudeatzen dituen jubilotekak

Ikastaro horiez gain, elkarteak hainbat jubiloteka zerbitzu kudeatzen ditu. Elizondon asteazkenetan 16:00etan hasi eta 18:30ak arte; Erratzun ortzegunetan 16:00etatik 18:30ak arte; Iruritan asteartetan 10:00etatik 12:00ak arte eta Urdazubin astelehen eta asteazkenetan 16:00etatik 19:00ak arte.

Izena eman nahi dutenek bulegoko 948 450 878 edo 618 567 837 telefonoetara deitu behar dute.

Kiroldegietan deskontuak

Horrez gain, Berako, Elizondoko, Leitzako eta Lesakako kiroldegietako kuotetan %20 ko deskontua dute bazkideek, eta aktibitateetan izena ematen dutenen kasuan %40koa.



Arantzazura joan ondotik, Oianume jatetxean bazkaldu zuten. UTZITAKOIA

Arantzazura irteera egin dute elkarteko 190 bazkidek

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 31n elkarteko 190 bazkide joan ziren Arantzazura egun pasa. Eguraldiak ez zuen lagundu eta Arantzazura iristean laino itxi-itxia zegoenez ezin izan zuten bertako bistez gozatu.

Arantzazurako irteera konfesatzeko aprobeztatzen du

jendeak eta aurten ere horretarako aukera izan zuten. Mezara joan ziren eta ondotik bazkari ederra egin zuten Hernaniko Oianume jatetxean. Bazkal ondoan Jose Angelen musikaz gozatu eta, 19:00 aldera etxera itzuli ziren egun ederra pasatu zuten sentsazioarekin.



UTZITAKOIA

Etxalarko Regina Ibarrek 100 urte

Irailaren 7an Etxalarko Regina Ibarra Espelosin bazkideak 100 urte bete zituen. Arkupeak elkarteak ere zoriondu zuen eta lore sorta bat eta plaka bat oparitu zizkieten. Etxalarko Lakain auzoko Mariskineko bordan bizi da eta bi biloba eta hiru birbiloba ditu. Zorionak!

Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



«Garrantzitsua da egiten dugun lana bezeroek ikustea»

JOXEMI IRIGOIEN GARCIA
KATEA BIKE - BERA

2000. urtean ireki zuen Katea Bike Beran Joxemi Irigoienek; «bizikleta eta motorren artean ibili naiz beti aitaren dendan, eta bizikletetan zentratzea erabaki nuen». Denda ttikia gelditu eta 2017an lokal handiagoa hartu zuen; «leku gehiago dauka eta errazago da bizikletak eta materiala erakustea, erosoago da bezeroentzako eta tailerrean lanean ari garenean haiekin egon gaitezke. Garrantzitsua da bezeroek egiten dugun lana ikustea». Konponketaz gain, bizikleten salmenta eta etxez etxeko alokairua dute, «eta azken aldian bizikleta elektrikoak ere baditugu, formazio ikastaroak egin ditugu funtzionamendua ulertzeko eta eguneratuak egoteko. Kontsumo ohiturak aldatzen ari dira eta jendeak gero eta gehiago Internet bidez erosten du, baina guk hurbiltasun eta konfiantza eskaintzen ditugu».



«Hainbat bisita mota egiteko aukera ematen dugu»

AMAIA GOVILLAR ARZA
MENDUKILO KOBAZULOA - ASTITZ

2005ean ireki zen Astizko Mendukilo kobazuloa publikoari; «Burdin Arotik ezagutzen da kobazuloa, duela 3.000 urte. 1953an Isaac Santestebanek beheko gela deskubritu zuen eta jendea etortzen hasi zen. Nafarroako Gobernuak kobazuloa itxi zuen babesteko, eta bisitak egiteko prestatzea erabaki zuten». Hainbat bisita egiteko aukera ematen du; «bisita turistikoan hiru gela ikus daitezke, kilometro erdi baino gehiagoz ibiltzen 40 metroko sakoneran. Espeleoturismoan beheko gela ezkuatuak ezagutu daitezke. Espeleoabenturan, berriz, 70 metroko sakonerara jaisten da soken laguntzekin». Honez gain, ikastetxeentzako Natur Eskola daukate eta «Eguberrietan haurrentzako ginkana bat egiten dugu Olenzero eta Mari Domingi ezagutzeko». Bisitak mendukilo.com-en erresebatu behar dira.



«Gasolindegia leku estrategiko batean dago»

BEÑAT DORRONSORO ZIGANDA
BIDASOIL - IRUJN

Duela zortzi hilabete ireki zuten Bidasoil gasolindegia Irunen. Beñat Dorronsoro Zigandak azaldu digunez, «gasolio eta gasolina mota guztiak» dituzte bertan. Bezero txartela dute bertan, «orain ez dugu erabiltzen Gobernuak gasolinarendako deskontuak ematen dituelako baina hauek bukatzean, berriro erabiltzeko asmoa dugu. Deskontuak enpresaren arabera egiten ditugu, normalean %2koa izaten da». Gasolindegia mugan dago; «leku estrategikoa da Frantziatik eta Nafarroatik bezero aunitz etorken zaizkigulako». Azken aldian «prezioaren igoera nabaritu dela» dio, «Frantziatik ere deskontuak egiten hasi dira eta ez dira hainbertze etortzen». Hala ere, egoerak «hobera» egiten duela uste du.



«Hurrez gain gurasoak ere gustura egotea nahi dugu»

HELENA GARCIA ETA MIKEL
LABORERIA IZAR PARK - DONOSTIA

2019an ireki zuten Izar Park; «Txingudin izan ginen 20 urtez, baina kontratua bukatzean ez genuen han gelditzea lortu eta Donostiara etorri ginen. Hirigunetik gertuago gaude eta jende gehiago ibiltzen da hemen». Familien, eskolen eta udalekuen aisaldirako aukera ona eskaintzen dute; «haurrak goiza edo arratsaldea pasatzera etortzen dira. Guraso eta zaintzaileak ere gustura egoteko kafetegi zerbitzua daukagu eta leku zabal eta argitsua da». Pandemiaren ondorioz, online erreserbak egiten hasi ziren; «jendeak lekua izanen zuela ziurtatzeko». Geroztik, horrela segitu dute; «modu honetan jendea gehiago banatzen dugu. 323 haurrentzako tokia badugu ere, 120 bakarrik uzten ditugu sartzen aldi berean, erosoago baina bezeroentzako».





Bengoetxea otsailean Labriten jokatu zuen partidaren ondoren. OSKAR MONTERO.

Bengoetxea VI.aren azken partida urriaren 15ean

Iragarri bezala, herriko plazan jokatu du bere agurreko partida Oinatz Bengoetxeak

JM BARRIOLA

«Galtza zuriak azken aldiz Leitzako plazan jantzi nahi ditut. Alde zaharreko semea naiz. Plazan hasi nintzen pilotan eta hortxe bukatzeko asmoa dut». Halaxe adierazi zion urte hasieran Oinatz Bengoetxea Berasategi pilotari haundiak TTPI-TTAPARI. Hitza eman eta bete du. Urriaren 15ean eginen du bere azken partida herriko plazan.

Otsailean jokatu zuen frontoi haundietako bere azken partida Labriten, baina profesionaletan egin dituen hogeitau urteak borobiltzeko asmoz, urrira arte frontoi ttikiagoetan ibiliko zela

Atsedendietan ikastetxeetako eremua itxita

Erleta eskolako eta Amazabal institutuko ikasleen segurtasuna bermatzeko, atsedendietan eskola eremua itxiko dutela adierazi du udalak. Astelehentik ostegunera 09:45etik 11:45era eta ostiraletan 11:00etatik 12:30era. Tarte horietan ikastetxeetako eremua inguratu behar da.

iragarri zuen. Hala ibili da geroztik, eta orain bide hori agurtzeko eguna ailegatu zaio.

Lerro hauek idazterakoan urriaren 15eko egitaraua guztiz itxi gabea bazen ere, gutxi gorabehera hau izanen da egitaraua. 11:00etan Aurrera pilota eskolakoek partida jokatuko dute. Horren ondoren aterako da Oinatz Bengoetxea plazara jokatzera. Binakako partida izanen da baina berarekin nork jokatu duten sorpresa izanen da. Eguerdian bazkaria eginen dute eta udalak txaranga ekarriko du bazkaria eta arratsdea girotzeko.

Leitzulia BTT proba hirugarren urtez bertan behera

Pandemia izan zen 2020an Leitzulia BTT proba alde batera utzi zuena. Joan den urtean ere bertan behera uztea erabaki zuten antolatzaileek eta aurten ere ez dute eginen. «Askoren galderari erantzunez» halaxe jakinarazi du Mendibil taldeak sare sozialetan.

Hipopresiboan tailerra kiroldegian familien txokoaren barne

TTPI-TTAPA

Irailan sartuta, familien txokoaren denboraldia abiatu du Leitzua, Areso, Goizueta eta Aranoko Adin txikikoen tratuen Sareak. Hasteko, irailan eta urrian egiteko hipopresiboan tailerra antolatu du. Datorren astean hasita, lau saio izanen dira: irailaren 27an eta 29an, eta urriaren 4an eta 6an. 11:00etatik 12:00etara, kiroldegian bilduko dira. Tailerra dohainik izanen da eta izena emateko azken eguna ostegun hau, irailaren 22a, izanen da. Plaza kopurua mugatua da eta interesatuek kiroldegira (948 51 07 19) edo gizarte zerbitzuen mankomunitateko bulegora (948 51 08 40) deitu beharko dute.

Sare sozialen erabilerari buruzko tailerra liburutegian

TTPI-TTAPA

Hainbat tailer eginen ari dira azken aldi liburutegian eta azken asteotan sare sozialen erabilerari lotutakoak lantzen ari dira. Irailaren 14an *fake news* edo albiste faltsuak antzemateko tailerra egitekoak zuten, eta aste honetan, irailaren 22an, komunikazio-tekniologiaren erabilerarako familia kontratuari buruzko tailerra eginen dute. Teknologia berriak zentzuz erabiltzeko familia arauak ezarri nahi dituztenei zuzendua da, zortzi urtetik gorako haurrentzat zein beraien familientzat. 18:00etan izanen da eta parte hartzeko aurretik izena eman behar: 621 24 80 27, 948 51 03 79 edo *biblilei@navarra.es*.



LEITZAKO UDALA

Kristina Saralegi omendua Talo Egunean

Goizean goizetik giro ederra sortu zen irailaren 11ko Talo Egunean. Eguerdian Kristina Saralegi omendu zuten eta, besteak beste, Joxe Manuel Huizi alargunari *Zure hazia betiko gure bihotzetan* idatzita zegoen oroigarria eman zioten. Talo lehiaketa, berriz, Ilenia Villabonak irabazi zuen.

Motxila 21 taldearen kontzertua larunbat honetan

TTIPI-TTAPA

Ramon Zabalegiren erakusketak eta Motxila 21 taldearen emanaldiak osatuko dute irail hondarreko Herri Aretoko egitaraua.

Aste honetan zabaldu dute Ramon Zabalegi artista irundarraren *Akatsa da bidea* erakusketa, eta igandera arte, irailaren 25era arte, ikusgai izanen da. Ostegunean 17:00etatik 20:00etara; ostiralean 10:30etik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta larunbatean eta igandean 12:00etatik 14:00etara. Igandean, 12:30ean bisita gidatua ere egingen du Zabalegik.

Bestalde, LHLko lantaldeak Motxila 21 taldea gonbidatu du, «eredugarria delako inklusioaren alde egiten ari diren lana». Emanaldia larunbat honetan, irailaren 24an, izanen da. 19:00etan hasiko da eta

sarrerak aurretik zortzi eurotan Maimur eta Astiz libur dendentan eros daitezke, eta bestela, egunean bertan, hamar eurotan.

Urriaren ohiko programazioa

Urritik aurrera oinarrizko programazioarekin hasiko dira Herri Aretotan. Hau da, hila-beteko aurreneko eta hirugarren asteburuetan zinea ikusteko aukera izanen da eta bigarren igandeetan antzerkia.

Urriaren 1ean eta 2an, 16:30ean *DC Supermaskoten Liga* ikusgai izanen da eta 19:00etan *Ali & Ava* (larunbatean bertsio originalean eta igandean gaztelaniaz). Urriaren 9an, berriz, *Kaskarot* antzerkia ikusteko aukera izanen da, 18:00etan. Miren Tirapu kultur teknikariak gogoratu duenez, sarrerak online eros daitezke leitza.eus atarian.

88 neska-mutikok eman dute izena Aurrera pilota eskolan

TTIPI-TTAPA

Neska-mutilen kuadrilla ederak hasi du Aurrera pilota eskolaren ikasturtea. Lierni Sagastibeltza pilota eskolako batzordeko kideak TTIPI-TTAPARI kontatu dionez, «88 neska-mutiko ditugu». Ia gehienek irailean hasi dituzte entrenamenduak, baina «zortzi seinaurrekoak dira eta horiek urriaren hasiko dira». Hain zuzen, seinaurrekoek izan ezik, gainerako guztiek astean bi entrenamendu saio egingen dituzte. Bestalde, bada Sagastibeltzak nabarmendu duen beste kontu bat: «nesken kopuruak izan duen gorakada: 19 neska ditugu».

Pilotari guztiak sei kategoriatan banatu dituzte eta hamabi talde osatu dituzte: «talde guztiak mistoak dira baina haurren kategoriako



Pilota eskolako entrenamenduak.

nesken taldea hamar neskekin osatu dugu».

Gainerakoan, ekainean egin zuten aurre izen ematea eta Sagastibeltzaren arabera, «ikasturte hasieran aldaketa gutxi izan ditugu». Oraindik norbaitek izena eman nahi badu eta «taldeetan lekua baldin badago» pilota eskolan hasteko aukera izanen du aurrerapilota@hotmail.com helbidera idatzita edo 619 60 62 65 telefonora deituta.



Leitzako jubilotekakoak partxisean. AINHOA ANSA

Lau herrietako 23 lagun hasi dira jubilotekan

Astelehenetan Leitza biltzen dira, asteartean Goizuetan, asteazkenetan Areson eta ostegunetan Aranon

TTIPI-TTAPA

Abuztuko oporraldia atzean utzita, iraileko aurreneko astelehenean egin zuen jubilotekak ikasturte honetako estreinaldia. Ainhoa Ansa aranoarra gidari dutela dagoeneko 23 lagunek hasi dute denboraldia: Leitza aurrez aurre sei lagun biltzen dira eta etxetik hiruri eskaintzen diete zerbitzua. Goizuetan bost lagun elkartzen dira, Areson bi lagun aurrez aurre eta bat etxean eta Aranon sei lagun.

Herriz herri lehengo urteko ordutegi bera mantendu du Leitza, Goizuetan, Areso eta Aranoako Gizarte Zerbitzuen mankomunitateak antolatu duen jubilotekak.

Astelehenetan Leitza izaten dute hitzordua, udaletxeko aurreneko solairuko aretoan. Astearteetan Goizuetan elkartzen dira, jubilatuen elkarteetan. Asteazkenetan aresoarren txanda izaten da eta udaletxeko aurreneko solairuan biltzen dira. Azkenik, ostegunetan, aranoarren Maisuenea izaten dute jubilotekako bilgune.

Goizeroko zita 10:00etan hasi eta 13:00etan bukatzen



Leitzako jubilotekakoak ariketak egiten.

da, Aranon zerbait motzagoa izaten bada ere erabiltzaileek hala erabakita.

Izen ematea

Ikasturtean osoan irekia izanen da jubilotekan izena emateko epea. Hortaz, oraindik norbaitek izena eman nahi badu gizarte zerbitzuen bulegora deitu beste lanik ez du izanen (948 51 08 40) eta han jasoko du behar badu buruzko argibide gehiago.

Ikastaroen aukera zabala prest ikasturte honetan

Udalak zortzi ikastaro antolatu ditu eta guraso elkarteak multikirola. Bietan ostiraletan itxiko dute apuntatzeko epea

TTIPI-TTAPA

Aurten ere urritik maiatzera ikastaroetan eskaintza zabala izanen dute herritarrek. Alde batetik, udalak zortzi ikastaro jarri ditu martxan eta bestetik, guraso elkarteak multikirola antolatu du haurrentzat eta gaztetxoentzat.

Udalak antolatutakoak

Eskularen ikastaroa urriaren 7an hasiko da eta maiatzaren 26ra bitarte 16:00etatik 19:00etara ostiralero izanen da Iriartean (Tifanitxon). 282 euro ordaindu beharko dira.

Pilates nahi duenak asteartero eta ostegunero izanen du hitzordua, 17:00etatik 18:00etara. Aurreneko saioa urriaren 4an egingen dute. *Jumpfit* eta *bodypump* ikastaroak ere urriaren 4tik aurrera emanen dituzte. Horiek ere asteartertan eta ostegunetan izanen dira, 18:00etatik 19:00etara eta 19:00etatik 20:00etara, hurrenez hurren. Prezioari dagokionez, pilatesek 192 euro balio du, *jumpfit*ek 236 euro eta *bodypump*ek 222 euro. Hiru ikastaro hauek dantzen lokalean egingen dituzte.

65 urtetik gorakoek astelehenean eta asteazkenetan jarduera fisikoa egiteko aukera izanen dute, 09:30etik 10:30era, dantzen lokalean. Urriaren 3an hasiko dira eta 126 euro ordaindu beharko dira.

Helduek urriaren 3tik aurrera yoga egiteko aukera ere izanen dute: astelehenean 10:30etik 12:00etara eta asteazkenetan 19:00etatik 20:30era. Dantzen lokalean elkartuko dira eta 242 euro kostako da ikastaroa.

Dantza-mugimendu kontzientea ikastaroa ostiraletan eskainiko dute. Urriaren 7an hasita, biastetik behin, 18:00etatik 19:30era bilduko dira. Antzerki kontzientearen saioak urriaren 14an hasiko dira, eta horiek ere ostiraletan, biastetik behin, izanen dira, 18:00etatik 19:30era. Bi ikastaro hauen prezioa 67 eurokoa da.

Guraso elkartearen eskutik multikirola

Guraso elkarteak, berriz, multikirola ikastaroa antolatu du, urriaren 4tik aurrera, haur eta gaztetxoek saskibaloia, esku-baloia, boleibola, patinajea, tenisa, errugbia, herri kirolak, atletismoa eta gorputz adierazpena lantzeko aukera izan dezaten. 2013tik 2016ra jaiotakoak 16:00etatik 17:00etara asteartero bilduko dira, eta 2008tik 2012ra jaiotakoak 16:00etatik 17:00etara ostegunetan. Taldeko hamar lagun beharko dira gutxienez eta interesatuak 140 euro ordaindu beharko dituzte.

Izen ematea

Bai udalak antolatutakoetan, baita gurasoek antolatutakoan ere, izen ematea ostiral honetan, irailaren 23an, bukatuko da. Multikiroletan parte hartzeko kirolak@leitza.eusera idatzi behar da; eta gainerakoetan udaletxera joan edo deitu behar da. Udalaren ikastaroetan taldea aurrera ateratzeko gutxienez zortzi lagun beharko dira.

Izen emateak ordenaren arabera esleituko dituzte eta herrian erroldatutakoek lehen-tasuna izanen dute.

55 pilotarik hasi dute ikasturtea Umore Ona pilota eskolan

TTIPI-TTAPA

Indartsu hasi dute pilota denboraldia Umore Ona pilota eskolan. Igor Elizegik TTIPI-TTAPARI kontaktu dionez, 55 pilotari izanen dira ikasturte honetan, horietatik 33 eskuz ariko direnak eta gainerako 22ak palaz. Tartean, nesken parte hartzea ere nabarmentzekoa da, eskuz zazpik eta palaz bederatzik eman baitute izena.

Sei entrenatzaile

Entrenamenduak astelehene-tik ostegunera izanen dituzte



Alize Sagardui pilotan. UMORE ONA

eta jokalariez arduratzeko sei entrenatzaile. Eskuz Antton Apezetxea, Joxenton Apezetxea, Angel Salaberria eta Xabi Zugarramurdi eta palaz Mirari Etxegia eta Xabier Etxegia.



UMORE ONA

Apezetxeak beste txapel bat

Pilotarien agenda gogoan hartzeko txapelketa izaten da Antiguakoa. Aurten 74. edizioa jokatu dute eta finalak irailaren 3an jokatu zituzten. Hantxe aritu zen Antton Apezetxea, eta Oberenako Josu Igoarekin bikotea osatuz txapela jantzi zuen. Beste txapel bat Apezetxearen palmareserako. Zorionak!

Goizueta-Hernani autobus zerbitzua neguko ordutegiarekin

TTIPI-TTAPA

Irailaren 12az geroztik, neguko ordutegiarekin ari da Goizuetatik Hernanirako autobus zerbitzua. Egunero Goizuetatik 09:00etan eta 14:45ean ateratzen dira Hernanira joateko autobusak, eta horrez gain, 17:00etan

beste bat izaten da baina hori eskola egunetan bakarrik. Hernanitik, berriz, 12:00etan eta 19:00etan abiatzen dira Goizuetara etortzeko autobusak. Bi horiez gain, eskola egunetan hau ere, beste autobus bat ere ateratzen da, 15:30ean.

Goittiki haur txokoa berriro ere martxan da

Irailean hamar ume izanen dira baina ikasturte osoan bederatzik neska-mutiko egonen dira

TTIPI-TTAPA

Irailean 5ean hasi zuten ikasturtea 0 eta 3 urte bitarteko haurrek Goittikin. Irailean hamar ume izanen badira ere, bederatzik osatuko dute ikasturtea. Iaztik jarraitzen duten Xuhar, Izar eta Narez gain, Laia, Ekain, Alice, Saint, Xuban

eta Nahia sartu dira aurten berriak. Aritz eskolan hasi da baina 08:00etatik 09:00etarako zaintza zerbitzuan elkarrekin egonen dira.

Ikasturte honetan, Rosa hezitzaileaz gain, Bidetxo ere han izanen dute ordu batzuek laguntzeko.



Goittikiko ikasturte honetako protagonistak. ROSA OLAIZOLA

Egoitza bila

Hamarkada bateko ibilbidea osatua du Goittiki zerbitzuak baina Goittikiko umeek ez dute lokal finkorik eduki azken urteotan. Hala, aurten ere, Go-

xalin ematen jarraituko dute, baina gurasoek TTIPI-TTAPAri adierazi diotenez, espero dute ikasturte hau azkena izatea eta behingoz, leku propioa eta egonkorra lortzea.

Herri lurren ordenantzaren harira udalak egindako lana «eskertu» du Zabalak

TTIPI-TTAPA

«Ordenantza berriaren zirriborroaren harira, azken TTIPI-TTAPAN Juanjo Elizalde dioenak ez dauka zerikusirik herrian egin diren bilerekin eta adostu denarekin. Baserritarrek gustura gaude emaitzarekin eta udalari eskerrak eman nahi nizkioke egin duen lan ikaragarriarengatik». Argi eta garbi mintzatu da Arizti baserriko Mari Jose Zabala Goizueta.


Bere desadostasuna agertu du Elizalderen esanak leituta. Hasteko, «baserritarrek eta abeltzain titulua dutenak desberdinu» nahi izan ditu. Bere hitzetan, «Goizuetan baserritar tiki asko gaude, baina azken urteotan enpresa muntatu duten gero eta abeltzain gehiago daude, eta horrek herri lurren eskaera haundiak ekarri ditu. Mendiak aziendez gainezka daude». Gaineratu duenez, «orain arte nahiko ongi geunden, elkar errespetatzen genuen. Baina lehengo urtean, herri lurrak eskatu eta eskatu, azkenean udala emateko lurrigabe gelditu zen. Udalak, niri bezala hamabost baserritarri herri

lurrak kendu, eta abeltzain horiei eman zizkien. Batzuk kexatu eta bueltatu zizkieten. Ni ez nintzen erreklamatzeko hasi, baina hitz egin beharra zegoela esanez kexatu nintzen, ez zitzaidalako ongi iruditzen betitik lanean aritu direnei lurrak kentzea gutxi batzuei emateko».

Herri lurrak mugatzea

Hortik abiatuta udalak «udal ordezkariekin, baserritarrekin eta abeltzainekin lantaldea osatu» zuela dio Zabalak. Tartean ibili da bera ere eta «hainbat kontu adostu» ondoren, herri lurren ordenantzaren zirriborroa osatu dute. Ez hori bakarrik: «zirriborroa aurkezteko bileran gehien-gehienak oso gustura atera ginen».

Zabalaren arabera, herri lurren eskaria mugatzea izan da adostutako puntuetako bat, eta hori «oso ongi eta beharrezkoa» iruditzen zaio, «bestela Euskal Herriko betiko baserriak akabogarara. Onartezina da bat ehunekin gelditzea eta bestea hirurekin, lehenak ehun eskatu dituelako. Tikiak gara, baina gu ere bizi gara, ez gara autono-



Mari Jose Zabala Goizueta.

moak, baina hilabete bukaeran nahiko lan izaten dugu pentsuak eta bazkak erosteko. Tokatzen zaizkigun lurrak errespetatzea eskatzen dugu eta horretarako bidea ematen du adostutakoak».

Udal zergak

Udal zergen gaia ere mahai gainean jarri du: «Lehenago, 80 zentimotan zegoen herri lurren hektarea bakoitza. Beste inon ez bezala, ia-ia erre-galu ematen zituen udalak». Orain zerga hori igotzea adostu dute, baina Zabalarentzat, «lurrak normaltasunez eskatuz gero, igoera ez da haundia». Honela azaldu du: «bakoitzak herri lurrak eskatzeko muga bat dauka eta hortik aparte, lurrak sobratuko balira, edo-

zeinek eskatzeko aukera izanen luke. Eskatuz gero, lur gehigarri horientatik bi edo hiru aldiz gehiago ordaindu beharko luke. Mugatzeko modu bat da, nire ustez, logikoa».

Auzolana

Auzolana ere hizpide izan du. «Lurrak dituenak ardura batzuk bete behar ditu, tartean, auzolana egitea. Berez, lur eta azien-da asko daukatenek ordu gehiago egin beharra daukate, baina ez da horrela gertatzen; batzuk beti mendi eta baserri inguruak garbitzen eta beste batzuk ezer ez». Hortaz, garrantzitsua iruditzen zaio «auzolana egitea paperean jasotzea. Logikoa da».

Udalaren lana eskertu

«Elkarbizitzaren eta errespetatuaren» aldeko deia egin du: «Denon artean egin behar dugu aurrera, elkar lagunduz eta errespetatuz». Aitortu duenez, «ordenantzaren zirriborroan bildutakoak lege bezala indarrean jartzeko aukera izateak esperantza ematen dit, beste-la betiko baserriak akabogarara». Udalaren lana ere txalotu du: «ikaragarriko lana egin du eta oso gustura nago egin duen lanarekin eta jarri duen gogoarekin. Eskertzekoa da».



1960an Aresoko eskolan ibili ziren neskak. UTZITAKO ARGAZKIA

Urriaren 1ean eskolaren mendeurren festa

Erakusketa osatzeko eskolako garai bateko materiala udaletxera eramateko eskatu dute irailaren 23a baino lehen

ENERITZ IRAOLA

Nazabal eskolakehun urte bete ditu aurten eta mendeurrena behar bezala ospatzeko egun osoko pesta antolatu dute urriaren 1erako.

Garai batean egiten zen bezala, eskolako ezkilak joz hasiko dute eguna. Ez da izango atzera begira egingo den keinu bakarra, argazki zaharren erakusketa jarriko dute plazan eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak utzitako materialarekin antzinako gela bat prestatzeko asmoa dute. Hori osatzeko herritarrei ere eskatu diete laguntza, etxean dituzten argazki, liburu, koaderno... edo eskolarekin lotura duen edozein material irailaren 23a baino lehen udaletxera eramateko eskatuz.

Eskola atarian 11:00etan emango diote hasiera pestari. Ondoren eskolara bisita egingo dute eta garai bateko ikasgela ikusteko aukera izango da. Eskolan prestatu duten emanaldi berezia izango da goizeko ekitaldi nagusia. Ondoren, herriko trikitilariarekin kalejira egingo dute plazaraino. Han egongo dira ikusgai garai bateko argaz-

kiak, materialak eta jolasak. Mahaiaren bueltan bilduko dira gero ikasleak, irakasleak eta gurasoak. Txartelak Sastinean daude salgai eta ostirala izango da erosteko azken eguna. Ondoren, bideo emanaldia izango da eta batukadak girotuko du herri ingurua. Bukatzeko pin-txoak jarriko dituzte plazan eta musika ere izango da. Herritar guztiei festarako gonbidapena luzatu diete antolatzeek «garai batekoak zein gaur egungo ikasleak, irakasleak eta familiak, denak elkarrekin pestan biltzeko aitzakia izan dadila ospakizuna».

Uso postuen bigarren enkantea irailaren 24an

Udalak Urteaga inguruan dauden 24 uso-postu enkantera atera ditu. Irailaren 17an egitekoa zuten lehenbiziko enkantea eta astebetez sesteorako aukera eman ondotik, irailaren 24an 19:00etan egingo dute bigarren enkantea udaletxean.



IKER BARANDARAIN

350 mendizale bildu ditu mendi martxak

Irailaren 4an egin zuten Aresoko Mendi Martxaren hamahirugarren edizioa. 350 parte hartzailek osatu zuten 21 kilometroko ibilbidea. Kamiseta berria soinean, herritarrek egindako paella sabelean eta paraje ederretan hartutako gozatua eraman zituzten etxera bueltan.



UHARTE ARAKILGO ARTZAIN EGUNA

20. txapela lortu du Antonio Alustizak

Nagusi izan ziren *Tiki* eta Antonio Alustiza Uharte-Arakilgo Artzain Zakur Txapelketan. Nafarroako hogeigarren txapela jantzi zuen horrela. Oñatin izango dute berriz ere lanerako aukera, irailaren 25ean izango den Nazioarteko txapelketan parte hartzeko txartela lortu zutelako. Zorionak eta zorte on!



Irailaren 11n oroitarria dagoen tokian ateratako argazkia. JM ONDIKOL

Bi urteren ondotik Comète Sarea gogoratu dute

Irailako bigarren asteburuan Angelun, Larresoron eta Ezpeletan ekitaldiak egin zituzten

TTIPI-TTAPA


Duela 80 urte baino gehiago sortu zuen Andrée de Dongh *Dédée* 24 urteko emakume belgiarrak Comète Sarea. Sare honen bitartez, alemaniarrek botatzen zituzten Frantziako, Herbeheretako eta Belgikako hegazkinetako pilotuak etxera bueltan eramaten zituzten, Frantzia, Euskal Herria eta Espainia, Gibraltarrera arte, pasatu ondotik. Hainbat euskal herritar izan ziren sare hartako kide eta hura gogoratzeko ospakizunik ez da egiterik izan azken bi urteetan. Aurtan, ordea, irailaren 9tik 11rako asteburuan berreskuratu zuten, Angelun, Larresoron eta Ezpeletan egindako ekitaldiekin.

Irailaren 9an, Angelun egin zuten ekitaldi ofiziala, Erresuma Batuko Royal Air Forceko ordezkari eta guzti. Biharamunean, irailaren 10ean, Larresoroko Deabruaren Zubian zuten hitzordua eta Comète Sareko Lagunen Elkarteak omenaldia eskaini zien sarean parte hartu zuten kideei, duela sei urte bertan ezarri zuten oroitarrian.

Ospakizunak borobiltzeko, irailaren 11n, Ezpeletatik Ihi Lepora ibilaldia egin zuten, garai batean sareko kideek egiten zutenaren berdintsua eta Ihi Lepon bertze oroitarri bat paratu zuten. Ekitaldian izan ziren Ezpeletako auzapeza eta Joseba Otondo Baztango alkatea, baita Ana Ollo Nafarroako Gobernu kontseilaria ere.

Oroigarri horretan Comète Sareko lau kideren izenak ageri dira: Jean-Baptiste eta Pierre Agerre anaiak, Jean Elizondo eta Etxegoien. Eta hauekin batera, bereziki, oroitarritik 500 metrora Baztango lurretan dagoen Jauregiko Bordako Xan Mihura. Mugalari hauei esker, 126 hegazkin pilotu lortu zuten Erresuma Batura itzultzea.

Horietako bat izan zen Ian Covington. 1944ko urtarrilaren 4an pasatu zen Jauregiko Bordatik Londresera bidean eta 78 urte beranduago Tom bere semeak kontrako bidea egin zuten eta bere aitari babes eman zion familia ezagutzeko aukera izan zuen: Xan Mihuraren alaba Josefa, 91 urtekoa eta Juanbi Mihura biloba, bertzeak bertze.



Kanpainako bideoa osorik Lesakan grabatu dute.

'Eta eskolatik kanpo, zer?' Nafarroako hainbat euskara zerbitzuren kanpaina

TTIPI-TTAPA

Eta eskolatik kanpo, zer? Hala-axe du izena Nafarroako hainbat toki entitatetako euskara zerbitzuek ikasturte hasieran martxan paratu duten kanpainak. Seme-alabak Dereduan matrikulatu dituzten familiei zuzendua dago eta kanpaina honen bitartez, familia horiei oroitarrazi nahi diete haurrak euskarazko eredu eskolatuak izanik ere, zeinen garrantzitsua den eremu horretatik kanpo euskarazko presentzia izan dezan beren bizitzetan.

Euskara zerbitzuen hitzetan, «eskola funtsezkoa bada ere, umeek urteko esna orduen % 15 bakarrik ematen dute bertan. Horregatik da hain garrantzitsua arreta bertze % 85ean jartzea, euskaraz ahalik eta presentzia handiena izan dezan denbora tarte zabal horretan, lagunarteko harremanetan, kultur kontsumoan, eskolatik kanpoko jardueretan.... Izan ere, hizkuntza, eskolan ez ezik, bizitzan ere ikasten baita». Gaineratu dutenez, «gurasoak, euskaraz jakin ala ez, giltzarri dira eskolaz kanpoko tarte zabal horretan haurrek eginen

duten ibilbidean eta erabakiak hartzeko unean hizkuntzaren faktorea presente egon dadin».

Mezu hori zabaltzeko bi euskarri sortu dituzte euskara zerbitzuek: oso-osorik Lesakan grabatu duten bideoa eta eskuorria. Azken hau dekalogo bat da, eskolatik kanpoko denbora tarte horretarako hamar aholku praktiko ematen dituen. Lehen Hezkuntzako 1. mailan hasi diren ikasleen familiei banatuko diete, ikastetxeen bitartez.

'Era.eus' atariaren baitan

Kanpaina hau *era.eus* webgunean biltzen den ekimenaren parte da. Webgunea euskaraz ikasten duten haurren familiei laguntza eta baliabideak emateko eta seme-alaben ikas prozesua osatzeko helburuarekin sortu zuten.

Ekimen hau antolatu duten toki entitateen artean daude Baztango Udala, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Mankomunitatea eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea. Nafarroako Gobernuko Euskarabideak diruz lagundu die.



«Edozeinek bere etxeko memoria betiko gorde dezake Vitagramarekin»

GAIZKA ARANGUREN LABRIT ONDAREA-KO ZUZENDARIA

Belaunaldien arteko transmisioa galdu ez dadin eta etxeko memoria betiko gordetzeko, tresna digitala sortu du Labrit Ondareak: Vitagrama. Ondoko asteotan eskualdean barna aurkezpenak egingen dituzte

G. PIKABEA

Urteak daramatza Labrit Ondareak ondare immaterialaren ikerketan. Joan den urtean, ordea, bertze pauso bat eman zuten familien ondare immateriala biltzeko tresna digitala sortuz. Horixe da, hain zuzen, Vitagrama, «etxekoan bizitza betiko gordetzeko aukera ematen duen metodoa».

Nolatan sortu duzue Vitagrama?

Ikuspegi kolektibotik abiatutako metodologia batekin hasi ginen, herri bakoitzeko iruditeria eta memoria bilduz, eta urteen poderioz, norbere memoria biltzeko eskaria orokortuz joan da; gero eta gehiago izan dira norbere etxeko memoria biltzeko aukera mahai gainean jarri digutenak eta guk ere aukera hori ikusi dugu. Etxeko zaharrenen bizitzaren lekukotasuna etxeko gazteen esku geldidadin. Garai batean etxean bertan belaunaldi batetik bertzera ematen zen zuzeneko transmisioa. Joera hori gaur egun nekez ematen da, belaunaldien arteko harreman zuzena gero eta urriagoa delako. Teknologia berriak zeharo aldatu dute belaunaldien arteko transmisioa eta pantailetara eraman beharra dago garai batean zuzenki transmititzen zena.

Etxekoan bizitza betiko gordetzeko metodoa aurkitu duzue. Azaldu...

Metodologia antropologikoa edozein familiaren esku jarri dugu. Familia bakoitzak bere arbasoen lekukotasuna betiko gorde ahal izan dezan, softwa-



Gaizka Aranguren Vitagramaren kutxa eskuetan duela.

re berezitu bat garatu dugu. Batzuetan pentsatzen dut halako beharrian sozial bat betetzen duela. Gaur egun bi urte dituen batek bere birramatxiren lekukotasuna ezagutu ahal izanen du 40 urte beteko dituenean edo 200 urte barru gure ondorengoek gure ataxi eta amatxirekin hitz egin ahal izanen dute inteligentzia artifizialaren bitartez. Hori gaur egun biltzen badugu izanen da posible; biltzen ez badugu, ez.

Bere bidea egiten ari da Vitagrama...

Iaz hasi ginen eskaintzen, baina duela hamahiru urtetik gaitz biltza bizitzako historiak biltzen, 2009tik herriz herri eta elkarte elkarte. Ez baita etxeko memoria bakarrik. Giza kolektibo zehatz baten Vitagrama ere izan

daiteke eta Osasuna futbol taldearekin, La Unica peñarekin, Iruñeko Orfeoiaekin, eta bertze zenbait enpresarekin horixe ari gara egiten. Baina momentu honetan azpimarratu nahi dugu edozein pertsonak edo familiak bere memoria betiko gorde dezakeela eta ondoko belaunaldiei lekukotasun hori eskaini. Hori guztia ikus-entzuzko formatuan egiten dugu, bizitzako pasarteekin, material interpretatuekin, argazki gordailuarekin... Bizitzako osagai guztiak biltzen ditugu, etorkizuneari arbasoekin disfrutatze-ko, irri edo negar egiteko...

Zein da erabiltzaileen profila?

Normalean 40 eta 55 urte bitarteko anai-arrebak izaten dira, berandu baino lehen, aitaren

edo amaren bizitza beraien buruari oparitu nahi dietenak. Baina badira ondorengo belaunaldiei beraien bizitza utzi nahi dietenak. Jendea notarioarengana joaten denean ondareen banaketa egiten du testametuaren bitartez. Baina zer gertatzen da materiala ez den bizitzako osagaiekin? Norberarekin batera hil egiten dira behar bezala bildu eta transmititu ez badira. Ez diezaiegun ondasun materiala bakarrik utzi ondorengoei, ondare immateriala, norbere bizitzaren lekukotasuna, ere utz diezaiegun.

Zuen hitzak dira: «bizitza bakoitzak merezi duelako bizitza opari»...

Batzuek pentsatzen dute: «nire bizitzak ez du halako garrantzirik». Bada, nekez izanen da guretzat gure aitaren edo amaren bizitza baino inportantegorik. Bizitza bakoitzak merezi du.

Zein da prozesua?

Interesa dutenekin proiektuaren ezaugarritze bilera bat egiten dugu, zer bildu nahi duten jakiteko eta horrekin aurrekontua osatzen dugu. Gero, familiak nahi duen moduan, Vitagrama egiten hasten gara: lekukotasunen grabazioak, argazkien interpretazioak, dokumentazioen bilketa... Guztia aztertu, sekuentziatu eta Vitagrama baten moduan eskaintzen dugu. Datozen asteotan Vitagrama baten erraiak erakusteko aurkezpenak egingen ditugu Baztan-Bidasoaldean: urriaren 6an, 19:00etan, Elizondoko Arizkunenean eta urriaren 13an ordu berean Lesakan. Informazio gehiagorako vitagrama.life webgunean dago.

Zein mezu luzatuko zenuke?

Memoria eta ondare immaterialaren arloan, Euskal Herrian sentsibilitate berezia dugu, gure egoera kultural eta linguistikoa duen garrantziak bereziki sentsible egiten gaitu. Horregatik pantailak nagusi diren garaioan, ahal dugun neurrian belaunaldien arteko harreman zuzena mantendu behar dugu, baina gauzak dauden bezala egonda, ez diezaiegun gure zaharrei alde egiten utzi transmisioa egin gabe. Hauxe da aukera.

Aniztarrak herriko bestak ospatzeko prest

Urtero bezala, urriko lehenbiziko igandean izanen dituzte bestak, irailaren 30etik urriaren 2ra

TTIPI-TTAPA

Uda akitu bada ere, aniztarrak bestetarako gogotsu daude eta egitarau zabalara prestatu dute hiru egunetarako:

Irailak 30, ortziralea: 11:00etan ezkila jotzea, altxareroak eta itzulia herriari musikariekin. 11:30ean herri krosa haur eta helduendako. 12:00etan aniztarren arteko frontenis txapelketa. 14:00etan bazkaria eta 16:00etan frontenis txapelketako finala. 20:00etan mutil dantzak, 21:00etan baztan zopak eta 00:00etan dantzaldia Bizpizaru pelau taldearekin. Goiz aldera xingar jatea.

Urriak 1, larunbata: 11:00etan puzgarriak, 12:00etan paella lehiaketa haur eta helduentzako eta 14:00etan bazkaria frontoian lehiaketako paella eta postreekin. 15:00etan puzgarriak eta 16:00etan mus txapelketa. 18:00etan Ados pilotako emakumeen partida: Etxekolonea eta N. Agirre, Arrieta eta Mendibururen kontra. 19:00etan txokolate jatea eta ondotik dantzaldia Salaberrirekin. 21:00etam herri



2021eko ezohiko bestak. M. MARITORENA

ri afaria eta ondotik dantzaldia berriz ere Salaberrirekin. Akitzeko, xingar jatea izanen da.

Urriak 2, igandea: 12:30ean otordua bertako produktuekin, 14:00etan zikiro jatea Hauspolariekin eta 17:00etan V. Bingo txapelketa. 19:00etan karaokea eta ondotik dantzaldia Hauspolariekin, xingar jatea eta kantaldia suaren inguruan. Akitzeko, Gaixoak aniztarrak eta herriari itzulia.

Baztanberriko zubia egiteko proiektua onartu du Nafarroako Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Lurralde Kohe-sioak, Bernardo Ziriza kontseilariaren bitartez, behin-behinean onartu du Elizondoko errepide nagusia eta saihebidetako lotzen dituen zubia eraikitzeko proiektua. Glorieta baten bitartez, Santiago karrikatik saihebidetako sarrera berria egingen dute, Baztan ibaia eta Baztanberri plaza gurutzatuko dituen, 230 metro guzira.

Zubiak bi norabideetako errepidea eta oinezkoendakobidea izanen du, petril baten bidez banatua. Osora 10,5 metroko zabalera eta 62 metroko luzera izanen du, eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren arabera, bi bao izanen ditu; nagusia 40 metrokoa eta konpentsazio-baioa 22 metrokoa.

Ondasun eta eskubideak desjabetzeko prozesua

Proiektuak eraginen dituen ondasun eta eskubideak desjabetzeko prozesua hasiko dute orain. Proiektua hilabete batez iritzi publikorako ikusgai egonen da, izanen duen eduki tekniko eta eraginen dituen lur-eremuei buruzko informazioa ematen. Epe horretan, herritarrek alegazio eta iruzkinak aurkezten ahalko dituzte.

Joan den urteko abuztuan Ziriza kontseilariak Elizondora eta Lekarozera egin zuen bisitaldian zehaztu zuten proiektua, Baztango Udalak hala eskatu zuelako. Horrela, 2012an hasi eta ordutik akitu gabe zegoen Irurita-Elizondoko ingurubidetako errepideari segida emanen diote.

Dantza afrikarren ikastaroa hasiko dute Iruritan urrian

TTIPI-TTAPA

Iruritarrek mugimendua eta erritmoa lantzen hasiko dira udazken honetan, hainbat herritarrek dantza afrikarren ikastaroa antolatu baitute Gizearte Bilgunean.

Urrian hasiko dituzte klaseak eta ortzegun arratsaldero el-

kartuko dira, 19:00etatik 20:30era, Gloria Soya irakaslearekin.

Interesa duten herritarrek 628 078 573 edo 687 121 888 telefono zenbakietara dei egin dezakete informazio gehiago eskatzeko edo egitasmoan izena emateko.

BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jarzea

- Pinturak
- Fatxadak
- Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 - F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Karrika, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 - F. 948 451 304	Eltzeta, 20 31770 Lesaka T. 948638077
---	---	---	---



Idoia Sobrino Lopez egokitu zaio Sonia Lopez Igartuaren lekukoa hartzea Baztango Liburutegi Publikoan. IDOIA SOBRINO

«Liburuzainen lana jakintza eta kultura kudeatzea da»

IDOIA SOBRINO LOPEZ BAZTANGO LIBURUTEGI PUBLIKOKO LIBURUZAINA

Amak egindako lanari segida emanez, Idoia Sobrino Lopez elizondoarra da abuztuaz geroztik Baztango Liburutegi Publikoko behin-behineko liburuzain berria

R. OSKARIZ ELIZONDO

44 urtez Baztango liburuzain izan ondotik, udan erretiroa hartu zuen Sonia Lopezek. Orain, Nafarroako Gobernua- ren zerrendetatik hala tokatu zelako, bere alabari egokitu zaio lanpostua, eta etorkizune- ko erronkei begira ari da Idoia Sobrino.

Gogotsu hartu duzu kargua?

Bai, ttikitatik argi izan dut liburuzaina izan nahi nuela eta nahiko argi nuen ere Baztanen lan eta bizi nahi nuela. Atzerrian bizi izan naizenean arras gustura egon naiz eta arras aberasgarria egin zait bertze hizkuntza, kultura eta bizitzeko manerak daudela ikustea eta ikastea. Hori nire lanerako

ere garrantzitsua da, liburuzainaren lana kultura eta jakintza kudeatzea delako. Eta hori guztia orain Baztanen praktikan jartzeko gogoz nago. **Esperientziarik duzu liburuzain lanetan?**

Bai, duela 17 urte hasi nintzen ofizioan, Bibliotekonomia eta Dokumentazioa karrera ikasten arinintzenean. Bartzelonan eskola liburuzain izan nintzen, baina liburutegi publikoei dagokienez, Baztanen izan nuen nire lehendabiziko lana, ordezkapen motzak egiten. Gero hainbat liburutegi gehiagotan egin izan dut lan, bai liburutegi publikotan baita liburutegi espezializatutan eta liburutegi unibertsitariotan

ere. Liburuzain aritzeaz gain, dokumentalista lanetan ere aritu izan naiz. Karrerak hainbat irteera eskaintzen ditu.

Hala ere, zure herriko liburutegian lan egitea berezia izanen da, ez?

Bai, dudarik gabe. Niretzat Baztango Liburutegi Publikoa nire bigarren etxea da. Ama betidanik ezagutu dugu bertan eta nire ahizpek eta nik haurtzaro eta gaztaro erdia pasatu dugu hor. Karrera egiten hasi nintzenetik ere beti izan dut burutan ez bazen eskola liburutegi batean, Baztango Liburutegi Publikoan lan egin nahiko nukeela. Orain ailegatu zait aukera. Momentuz plaza hau bakante bat da eta Nafarroako Gobernuak ku-

deatzen dituen behin-behineko liburuzainen zerrendatik bete da, kasualitatez niri egokituz, baina hurrengo oposizioan beteko da behin betiko. Ea orduan plaza ateratzea lortzen dudan...

Zer da zuretzako liburutegia?

Liburutegi publikoak kultura eta jakintza kudeatzeko guneak dira, jendarteari topagune bat eskaintzen diotenak. Antzina-ko Grezian jada horrela erabiltzen ziren eta gaur egun ere horretan segitzen dugu, afera ez da hainbertze aldatu; kultura eta jakintza horiek zein euskarritan partekatzen diren da aldatu dena, noski, liburutegi digitaletan bitartez ere, baina hori medioa da, ez azken helburua. Bertze liburutegi motek bertze helburu batzuk dituzte, ikasketei lotutakoak adibidez eskola liburutegien kasuan, edo ikerkuntzara bideratutakoak, liburutegi unibertsitarioetan.

Zein behar ikusten dituzu Baztango liburutegietan?

Hasteko, langile gehiago behar dira. Eskola liburutegietan liburuzain kopurua zero da, eta Baztango Liburutegi Publikoan, bat bakarra, ni. Zerbitzu publiko oso bat ezin da pertsona bakarraren gain utzi, are gehiago langile horren oporrak eta bajak ez direnean ordezkatzen, adibidez. Kasu horietan, edo langileak bilera bat duenean, adibidez, herria zerbitzu publikorik gabe gelditzen da. Eta irekia dagoenean ere, arras ordutegi murriztua eskaintzen zaio herriari, langile bakar batek ematen ahal duenaren neurrikoa. Hori ez da nahikoa. Hortaz gain, liburutegiaren eraikinak gabezi aunitz ditu: ez du leihorik eta ezin da aireztatu, ez du apenas paretarik eta ezin dira behar bezain bertze apalategi jarri, ez du erabilera anitzeko gelarik, erreka azpitik pasatzen zaio eta ez dago behar bezala isolatuta... 'Polita' izatearen aitzakian, praktikotasuna bigarren plano batean utzi zen eraikin berria egin zenean.

Alde on bat aipatzearen, kopapena azpimarratuko nuke. **Zer ekar diezaiokie belaunaldi aldaketa honek liburutegiari?**

Erronka itzela daukat amak egin duena hobetzeko [irriz]! Gauza aunitzetan segida emanen diot berak hamarkada hauetan egindako lanari, ongi eginak baitaude eta eskertzekoa da liburutegia baldintza hauetan jasotzea. Baztanek dituen gainontzeko eragile sozial eta kulturalekin sarea indartzen saiatuko naiz, baita gainontzeko liburutegiekin ere. Aunitzetan asmoak haundiak izaten dira baina gero, langile bakarria izanda, ezinezkoa da denera ailegatzea, jarduerak prestatu bizkitartean fakturak ez direlako bere kabuz kudeatzen, edo liburutegira zein pelikula, musika, aldizkari, liburu ekarri erabakitzeke, lehenik zein xahutu erabaki behar duzulako, adibidez. Horrek lan handia eskatzen du, zer erosi eta zer kendu irizpide profesionalen eta Baztanek dituen behar zehatzen arabera egin behar delako, liburutegiko erabiltzaileak diren eta ez diren guztiak konputan hartuta, zerbitzu publikoa denena eta denendako delako. Behin materiala erositara, hura katalogatu eta txaplatak, zigiluak, etab. jarri behar dira, nobedadeen buletin diseinatu, maketatu, inprimatu... Lan horiek guztiak, gainera, jendea artatu bizkitartean egin behar dira, eta horrek egunerokoa aunitz mantsotzen du; ohartzen zarenerako, burutan zenuen hori guztia egiteko denborarik gabe gelditu zara. Lanaldia, irakasleek dutenaren antzekoa izan beharko luke, eskolak emateko lan ordu batzuekin eta prestaketarako bertze batzuekin, dena aldi berean egitea erokeria baita. Baina halere, nire aletxoak jarren saiatuko naiz!

Haur eta gazteak liburutegira hurbiltzea garrantzitsua da?

Bai, informazioa kudeatzen jakitea garrantzitsua dela iduritzen zait, bai haur eta gaz-

teendako eta baita helduendako ere. Hortan eskola liburutegiek eta liburutegi unibertsitarioek paper garrantzitsua bete beharko lukete, 'informazio gaitasunak' deitzen diren trebetasunak landu eta garatzeko. Jakin badakigu eskola liburutegietan ez dela lan hori egiten eta unibertsitateetako liburutegietatik egiten saiatzen badira ere, arras modu sinbolikoan egiten dute. Ondorioz, orokorrean gizarteak zailtasunak ditu informazioa eta desinformazioa bereizterakoan. Arazoa ez da irakurtzen badakigun edo ez, baizik eta irakurtzen dugun hori baliatzen dakigun edo ez. Gure inguruan gaur egun, eta hezkuntza mailan egin den lanari esker, ez dago analfabetismo arazo nabaririk; aldiz, arazo bat dugu irakurri nahi izatearekin. Hala ere, egunerokoa etengabe ari gara irakurtzen eta idazten. Hortaz, garrantzitsua iduritzen zait haur eta gazteak liburutegira hurbiltzea, pertsona funtzionalak izateko behar dituzten tresnak eskuratzeko eta beren bizitzako bertze edozein arlotan buruaske izan daitezen.

Nolako ikusten duzu liburutegiarren etorkizuna?

Liburutegi publikoek iraganean ziren eta orain diren modu berdintsuan segituko dute, duela 5.000 urte sortu zirenetik ez baitira apenas aldatu. Sozializatzeko manerak aldatu dira, garaian garaikoak, baina sozializatzeko beharra bera ez da aldatu, eta horretarako espazioak behar izaten segitzen dugu. Espazio horiek liburutegi publikoak dira, bertze espazio batzuetan ez bezala, ez baitago sarbide eragozpenik ez klase, ez arraza, ez erlijio, ez adin, ez genero ezta hizkuntza arazoengatik ere. 'Herriko plazak' dira, baina informazioa kudeatzen duen profesionalen laguntza dutenak. Etorkizunean behar hori izaten segituko dugula pentsatzen dut, beraz liburutegiak egoten segitu beharko dute.



Omenaldia egin zioten Lopezi bere azken lan egunean. ONDIKOL

«Zorionekoa naiz hainbertze gustatu zaidan lan batean aritu izanagatik»

SONIA LOPEZ IGARTUA LIBURUZAIN ERRETIRATUA

1978ko martxoaren 1ean hasi zen Baztango Liburutegi Publikoan lanean Sonia Lopez. Azken 51 urteetan liburutegia «aunitz» aldatu dela dio, hiru kokaleku izan baititu: «1971tik 1986ra udaletxeko beheko solairuan zegoen. Isiltasunean egoteko eta ikasteko lekua zen, ez zituen liburu aunitzik. Gero Arizkunenera mugitu ginen, eta ttikia eta irisgarritasun eskasekoa bazen ere, leku atsegin eta eroso zen. Orduan hasi ginen ekitaldi kulturalak egiten eta ordenagailuak, bideoak, CDak... sartzen. 2010etik Elizondoko antzinako merkatuan dago liburutegia; dinamikoagoa da, jendea ikastera etortzen da eta hainbat jarduera kultural egiten dira bertan».

Gizartearekin batera, liburutegia aldatuz doa urteekin; «guttinaka bailarako bizitza kulturean lekua egiten hasi da eta gaur egun bertze eragile kulturalekin batera aritzen da elkarlanean».

Erretiroaren argi-itzalak

44 urteren ondoren, erretiroa hartu zuen uztailaren 22an Lopezek, eta bere alabek ezusteko despedida antolatuta zioten; «ez nuen espero eta harrিতuta eta emozionatuta gelditu nintzen. Egun berezia, polita eta hunkigarria izan zen». Erretiroa «gogotsu» hartu duela dio, baina «hainbertze irakatsi eta lagundu didan jendearen hutsunea» nabaritu duela aitortu du; «zorioneko sentitzen naiz hainbertze gustatu zaidan lanpostu batean aritu izanagatik».

Oraingoan, alabak hartu du bere lekua; «satisfazio haundia da ama eta profesional gisa liburutegiarekiko maitasuna transmititu izana. Esperientzia haundiko profesionala da eta ezagutza, energia eta ilusio haundia ekarriko dizkio liburutegiari».

«Ordutegirik gabeko bizitzaz gozatzeko unea» du orain; «bidaitzea eta irakurtzea gustuko dut, hizkuntzak ikasten segitu nahiko nuke eta batez ere egunerokoaren lasaitasunaz gozatzeko, lagunekin kafea hartzen...».

Azkenik, liburutegia «herritar guziena dela» adierazi nahi izan du; «etorri, gozatu, zaindu eta etxean bezala sentitu, liburutegia denona baita».

Behi piriniotarren feria irailaren 24an eta 25ean Elizondon

Aziendaren erakusketaz gain azokak izanen dira asteburuan, baita aratxea eta gasna dastatzeko aukera ere

TTIPI-TTAPA

Behi azienda piriniotarraren XXXIII. lehiaketa-enkante nazionala ospatuko da asteburu honetan Elizondon, bi urteko geldialdiaren ondotik. Baztango Udalak, Aspina-Conaspi erakundeak eta Ceder-na Garalurrek antolatu dute feria.

Larunbatean, irailaren 24an, 09:00etan hasiko da erakusketak eta 14:00ak arte txanda kalifikatzaileak egingen dituzte. 17:30etik 20:00etara, berriz, behien erakustaldia eta kalifikazio komentatua egingen da. Honez gain, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara artisauen eta nekazarien azoka izanen da. Gainera, 19:00etan Haragitarako Behien Jardunbide Egozien aurkezpena (BovINE H2022 proiektua) egingen dute.



Behien erakustaldia. ONDIKOL

Igandean, behi aziendaren erakustaldia izanen da 09:00etatik 12:00etara eta 10:00etatik 14:00etara nekazari eta artisauen azoka ere izanen da. 11:30ean Nafarroako Aratxearen eta Baztango gasnaren dastaketa egingen da eta 12:30ean aziendaren enkantea. 13:00etan sari eta garaikurren banaketa eta Piriniotar behi arrazako III. argazki lehiaketako sariaren banaketa egingen dute.

Idorteen eta suteen inguruko mintzaldia irailaren 23an Elizondon


TTIPI-TTAPA

Baztango Talde Ekosozialak *Idorteen, suteen, alimaleko beroen garaian... ekologia gehiago* solasaldia antolatu du irailaren 23an 19:30ean Elizondoko Ahaztuen plazan (Fantxike ondoan). Euri eginez gero Arizkunean izanen da. Iñaki Barcenak solastatuko du, EHUko irakaslea eta mugimendu ekologistako kidea.

Taldeak adierazi duenez, «aspaldi da klimaren aldaketaz ohartarazten gintuztela zientzialariek eta mugimendu ekologistako kideek. Urteak

joan urteak etorri, ohartarazpenei kasurik egin ez, eta orain alimaleko beroak, idortek, suteak... bizitzen ari gara eta horrek herritarren artean kezka piztu du geroari buruz. Horri, energiaren krisia gehitu behar zaio, bioaniztasunarena... oraingo erronka handiei erantzuna ekologia sozialetik etorriko dela argi dago».

Gainera, Euskal Herriko mugimendu ekologistak prestatutako Ekotopaketa aurkeztuko dute, Portugaleten egingen dena buruilaren 30ean eta urriaren 1ean eta 2an.



Zimentazio faltak zubiaren gainbehera ekar dezake. NEREA MORTALENA

Arraiozko zubia moldatzeko 100.000 euroko aurrekontua

Udako idorraldiak agerian utzi du Arraiozko zubiaren zutabe nagusiko zimentazio falta eta konponketa lanak hasi dituzte

TTIPI-TTAPA

Idorraldiak Arraiozko zubia zimentaziorik gabe dagoela agerrarazi du eta gainbehera ekiditeko hestea eta lanak hastea erabaki dute. Abuztuko azken astean egingo dako ezohiko bilkuran, udalbatzak zubia konpontzeko 99.153,57 euroko aurrekontu moldaketa onartu zuen. Moldaketa jendearen aitzinean egon da hamabortz egunez indarrean sartu aitzinetik.

Konponketa lanak egiteko txostena LKSri eskatu dio Baztango Udalak, eta bertan egin beharreko lanak eta aurrekontua zehazten ditu.

Lanak egin ahal izateko ur-hesi bat egin beharko da eta ur-bonba etengabe lanean aritu beharko da inguru lehorrak mantentzeko. Horrela, hormigoizko uztaia egiten ahalko da ezkerreko zutabearen inguruan eta azpian, altzairuzko barrekin lurrera josia. Lan horiek eginda, zubiaren azterketa zehatzagoa egiten ahalko da, egoera zein den ziurtasunez jakiteko.

Aipatutako lanez gain, zubi-bularrak paratuko dituzte

uraren ibilgua baldintzatu gabe, egituraren dauden belar, zain eta zuhaixkak kentzeko eta aldatu beharreko harlanduzko harriak aldatzeko.

Gainera, ibilguraren ezkerreko aldean buxaturiko arkuak garbituko dute eta zubiaren inguruko sasiak moztuko dituzte. Azkenik, lanak egiteko egindako sarbideak berreskuratuko dituzte, erreka bazterreko espezieak landatuz.

Premiazkotasunik gabe

Lan hauek egin ahal izateko, Baztango Udalak lanen premiazkotasuna eskatu zion Nafarroako Gobernuari, baina ez zen onartua izan bide alternatibo dagoelako, hau da, saihebidetuta. Hortaz, proiektuak ez du izanen premiazko gisa izendatuz gero baimentzen den ezohiko tramitazioa ezta dirulaguntzak ere.

Udalak bere gain hartu beharko du konponketa eta horretarako dagokion kontu saila sortu du aurrekontuetan. Ohiko prozedura segituz, lanen esleipena hilabetez luzatuko da, aurrekontua behin betikoz onartu ondotik.

Baztango II. Berdintasun Plana onartu du udalak

Plana aho batez onetsi zen uztailaren 21ean egindako osoko bilkuran

TTIPI-TTAPA

Baztango Berdintasun Zerbitzuak 'Baztango emazteki* eta gizonen* berdintasunerako II. plana' abiatu du, 2022 eta 2026 bitartean indarrean egonen dena eta «emazteki eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzea» helburu duena.

2021-2022 bitartean egin zen I. plana, eta bertatik lortutako ondorioak eta datu estatistikoak erabili zituzten Diagnostiko Txostena egiteko. Planaren helburua Baztanek berdintasunaren alorrean dituen erronkak identifikatzea zen, eta horretarako kontraste prozesua egin zuten herriko mugimendu feministarekin, udal teknikariek, hainbat emakume taldeekin eta ordezkari politikoekin. Orain, analisi horretatik ateratako informazioaz baliatu dira II. plana sortzeko.

Planak 50 ekintza proposatu ditu, lau lan-ardatzetan banatuak, eta 15 helburu biltzen ditu. Hauek dira lau lan-ardatzak: genero ikuspegia xertatzea udalaren jardueran (13

ekintza), emaztekin kontrako indarkeria matxista (9 ekintza), ekonomia zaintzaren ikuspegitik (14 ekintza) eta berdintasuna kontsolidatzeko rol eta estereotipoak aldatzea eta emaztekiak ahalduntzea (14 ekintza). Ekintza bakoitzeko egutegia zehaztu dute, baita jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazleak ere.

Honez gain, Berdintasun Zerbitzuak diagnostikoa eta plana osatzen lagundu duten eragile guzietan eman dizkie; «eztabaida taldeetan, elkarriketetan, etab. aritu diren elkarte eta herritarrei, baita udaleko arduradun politikoei eta teknikariei ere. Denon artean, Baztan berdintzaleago, zuzenago eta jasangarriago bat eraikiko dugu».

Berdintasun plana eta informazio osoa eskuragarri daude baztan.eus webgunean.

Bilera irailaren 21ean

Asteazkenean bildu da Berdintasun Batzordea, planari buruz aritzeko eta etorkizunean egingen dituzten ekintzen harira solastatzeko.



NEREA MORTALENA

Arraiozko bestak giro bikainean

Giro ezin hobea eta eguraldia lagun izan zituzten arraioztarrek herriko bestetan. Baztan zopak, mus txapelketa, haurren dantza emanaldia, patata tortilla eta postre lehiaketak, erraldoiak, dantzaldiak eta Grand Prixaren itzulera, herritarrek ez zuten aspertzeko astirik izan.



ELI BARRENETXE

Elbetarrak gustura herriko bestetan

Elbeten ere giro ederra izan zuten herriko bestetan. Irailaren 9tik 14ra ospatu dituzte aurten eta ohikoa den bezala, txopo goratzearekin abiatu zituzten. Larunbatean zikiro jatea eta dantzaldia izan zituzten eta jendetza bildu zen plazan egunez zein gaez.

Charriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
PROYECTOS Y OBRAS

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baseri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



162 lagunek parte hartu zuten herri bazkarian. MAITANE MARITORENA

Basaburuaren Eguna ospatu zuten Anizen irailaren 10ean

Eguraldia lagun, jendetza bildu zen herrian jardueraz eta bazkariak gozatzeko

MAITANE MARITORENA

Lehenbiziko hitzodua goizeko zortzietan zuten. Ttentte demonio agertu ziren herritarrek mendi itzulia egin eta eguraldi ederraz gozatzera.

Mendi itzuliaren ondotik, helduak musean aritu ziren. Basaburu lau herrietako jendea aritu zen, 18 bikote guztira. Txapeldunak Anizko Iñaki eta Berroetako Mattin izan ziren. Txapeldunordeak Berroetako Amaia eta Amalur, hirugarrenak berriz, Anizko Gabon eta Jaione. Txapela, zapia eta giltzaria hartu zituzten sari gisa hurrenez hurren.

Frontoia muslariz eta musean aritu ez ziren herritarrez bete zen bitartean, haurrak herri kiroletan aritu ziren Plaxa-xarren. Basaburu lau herrietatik etorri zen jendea 162 lagunendako prestatu zen herri bazkarirak.

Bazkaltiarrez gain, haurrak eta bazkalondoan dantzaldirat hurbildu ziren herritarrek giro ezin hobean gozatu zuten Hauspolariek taldeak eskaini zuen kantaldi eta dantzaldiaz. Luze jo zuen bazkalondoko bestak, giro ezin hobean eta besta gosez gelditu ziren bertaratuak.



Hainbat iruritar bildu ziren herriko historia ezagutzeko. PELLO IRIARTE

Iruritako historia, natura eta etnografia ezagutzeko ibilbidea egin dute

TTIPI-TTAPA

Irailaren 3an hainbat iruritar plazan elkartu ziren eta ordu eta erdiko ibilbidea egin zuten, Pello Iriarte alkateak gidatua, Iruritako eta inguruko historia, natura, paisaia eta ogibideak ezagutzeko. Ibilbidearen ondotik, herrian egindako bi ibilbide turistiko berriak aurkeztu zituzten.

Oinez edo bizikletan egiteko bi ibilbide

Iruritako Herriak bultzatuta eta Baztango Udalaren laguntzarekin prestatu duten ekimen honekin, baliabide turistikoak hornitu eta aberasteaz gain, Iruritako eta inguruko historia, natura, paisaia eta ogibideak erakutsi nahi dira.

Horretarako bi ibilbide prestatu dituzte, zortzi panel ikusgarriekin (ilustrazio ederrak, azalpenak hiru hizkuntzetan

eta bertze hainbat informazio interesgarriekin) eta bide-seinaleekin ibilbidearen puntu batetik bertzerera gidatzen dutenak.

Iriarte alkateak kontatu digunez, «zirkularra den ibilbidean barrera buelta osoa egiteko ordu eta erdi edo bi ordu beharko dira». Zirkularra den ibilbidea (3,3 kilometrokoa) herria bera eta bertan dauden plazak, dorrea, jauregiak, ferrategia, kislabeak errota eta bordak ezagutzeko aukera ematen du.

Bigarren ibilbidea (1,3 kilometrokoa), lineala, joan-etorria bide beretik egitea proposatzen du, eta Ibur errekarren bazterrean dauden errota ezagutzeko aukera ematen du. «Ibilbide honek etorkizunean egingen den bide berdearekin lotzeko aukera emanen du» azaldu digu Iriartek.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

ANELAN
LAN BERTIKALAK

Egiten ditugun lanak:
Fabriken konponketak, segurtasun-sistemen instalazioak, teilatuen eta azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.

948 031 174
info@anelan.pro

JOSEPHINE'S
20 ENGLISH 13

Lokal berria!
Pedro Analar kanika, 2 Elizondo

Lehen hezkuntza 5. mailatik goiti
DBH eta Batxilergoa (B1 eta B2)

Christina Irigoyen 637 176 572 josephinesenglish@gmail.com

Hiru ikastaro zertifikatu Lanbide Eskolan

Matrikulatzeko epea zabalik dago eta urriaren 3an hasiko dira ikastaroak

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Lanbide Eskolak hiru ikastaro zertifikatu emanen ditu aurtengo ikasturtean Nafar Lansarearen bitartez, herritarrak hainbat lanbidetan trebatzeko:

Datuak eta dokumentuak erregistratu eta tratatzeko eragiketak: 150 orduko ikastaro presentziala, 1. mailako Profesionaltasun Ziurtagiriarekin. Datuak nola grabatu, transkribatu, erreproduzitu eta artxibatu irakatsiko dute, baita administrazio eta kudeaketa lanetan beharreko informazioa, bertzeen artean. Urriaren 3tik abenduaren 15era 16:00etatik 20:15era emanen dute.

Gizarte erakundeetan menpekotasuna duten pertsonentzako osasun laguntza: 100 orduko ikastaro presentziala, 2. mailako Profesionaltasun Ziurtagiriarekin. Elbarri fisikoen, psikikoen eta sensorialen zaintza, erakundeetan menpekotasuna duten pertsonen zaintza eta geriatría zaintza osagarria emanen dituzte, bertzeak bertze. Urria-

ren 3tik azaroaren 15era 16:00etatik 21:15era izanen da ikastaroa.

Txirbil harroketa bidezko mekanizazioa: 260 orduko ikastaro presentziala, 2. mailako Profesionaltasun Ziurtagiriarekin. Zenbaki bidezko kontrola duten makinaren programazioa, metalak lantzeko tresnen prestaketa, hainbat makinaren funtzio osagarriak; fresatzeko makina, makina zuzentzailea, zulatzeko makina... Tornu, fresaketa eta mandrinaketa lanak eta CNC makineriaren programazioa landuko dituzte, bertzeen artean. Urriaren 3tik 2023ko otsailaren 15era izanen da, 16:00etatik 20:15era.

Izen-ematea

Ikastaroak urriaren 3an, astelehena, hasiko dira eta matrikulazioa epea zabalik dago. Informazio gehiago lortzeko edo izena emateko Lanbide Eskolako webgunean sartu beharko da: cipelizon-doiiip.web.educacion.navarra.es.

Kotxeak partekatzeko Autokide plataforma baztandar guzien eskura

TTIPI-TTAPA

Duela urte batzuk Baztango Udalak Autokide plataforma abiatu zuen, autoa partekatzeko zerbitzu telematikoa. Autoan egiten diren joan-etorriak elkarrekin egitea du helburu, ibilgailuen jabeak eta bidaiariak gurutzatuz. Orain, «krisi energetiko biazan», plataforma baztandar guzien eskura dagoela oroitarazi nahi izan du udalak.

Zerbitzua erabili ahal izateko autokidebaztan.compartir.org webgunean erregistratu behar da. Norberak egin nahi

duen bidaiaren idurikoak agertuko dira bertan; haien lehen-tasunak zein diren, autorik duten ala ez eta bidaiaren arrazoa zein den, bertzeak bertze, autokideak errazago topatzeko. Mezu elektronikoa uzten ahalko zaie bidaiari partekatzeko egokiak diren pertsoneri, berehala eta bitartekariarik gabe.

Zerbitzuak «ibilgailu pribatuek sortutako energiaren kontsumoa eta kutsadura gutxitzea dakar, baita eremu publikoaren erabilera hobetzea ere».



ANTOLATZIALEEK UTZITAKOA

Giro polita Txokotoko liburuen azokan

Txokoto Tabernak eta Elizondoko Herriak liburu mikroazoka egin zuten irailaren 4an. Antolatziaileek diotenez, «egun aski berezia izan zen. Eguraldi ederra, giro lasaia, jendearen interesa, musika zuzenean, elkarriketa interesgarriak... liburuek hartu zuten protagonismoa karrikan».

Husqvarna

BB BLOK BAT
TALLERES biokbat.com
C/ Santiago 85 ELIZONDO 948 580 898

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN
Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

OTEIZA
ARKITEKTOAK

Apote KARRIKA 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com

[@oteizaarquitectos](https://www.instagram.com/oteizaarquitectos)



Hainbat buru plazaratu zituzten lehiaketara. IRAIA ETA ARANTXA

Burgete arrazako zaldien lehiaketa arrakastatsua

Legasako Indar Ariztegi ganadutegiak irabazi zituen sari gehien, baita sari nagusia ere

IRAIA ETA ARANTXA

Burgete arrazako zaldi eta behorren lehiaketako hamabigarren edizioa ikusteko aukera izan zen irailaren 11n plazan. Lehiaketa igandean 09:00etan hasi zen eta 14:30ean finitu. Aurtengo berrikuntza gisa, Urdazubiko gazteriak txozna jarri zuen bisitarien eztarriak bustitzeko. Hamabi kategoriatan banatutako Nafarroako arrazaren erakusketaren ondotik sariak banatu zituzten. Legasako Indar Ariztegi ganadutegiak hamabi kategorietatik hamarretan sari nagusia irabazi zuen.



Pedrá zaldia, irabazle nagusia.

Irabazle orokorra Pedrá zaldi ederra izan zen, hau ere Legasako ganadutegikoa.

2019. urtekoak bezala, herritar eta inguruko jende aunitz ekarri zuen edizio honek ere.

Pastoraleko sarrerak herrian ere salgai daude

Urria mugitua izanen da Xarretan, *Maddiren Trajeria* pastoralaren emanaldiak izanen baitira. Honen kari, 4 data proposatu dira: urriaren 15 eta 16an, Zugarramurdiko lezean eta urriaren 22 eta 23an Saran. Sarrerak online eros-teko aukera dago *maddipastoral.a.eus* webgunean. Horrez gain, sarrera fisikoa erosteko aukera izanen da herrian, Karreteron. Sarrerez gain, pastoralala eginen den egunetan laguntzeko boluntarioak behar dira eta Karreteron eman behar da izena.

Jaione Irigoien garaile mugikorrek argazki lehiaketan

Mugikorrarekin egindako lehen argazki maratonia antolatu zuen botikak irail hasieran. Lehiaketa honetan lau egunez herria argazkitan hartzeko aukera izan zen eta bi sari eder banatu zituzten. Lehen postua Jaione Irigoienek eraman zuen: Montxo ostatuan bi lagunendako menu berezia eta farmaziako produktuen lotea. Bigarren postua Lucas Duran herritarrek eraman zuen. Honek Trikuharri animalia parkeko bi sarrera eta farmaziako produktuen lotea eskuratu zuen. Zorionak bie!



IRAIA ETA ARANTXA

Jose Angel apezaren agurra

Hiru urtez herriko apezaren izan den Jose Angel bertze parrokia baterat joan da. Hori dela eta, hilabeteko lehen igandean, irailaren 4an, meza eman ondotik, agur gisara, pintxo batzuk jan zituzten hurbildu zirenek eta horrela agur polit bat eskaini zioten apezari.

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zolain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN
Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Etxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- ERRAZIOAK

Etxera eramateko aukera

Montxo
JATETXEA • ERRETEGIA
@asadormontxo

Axular, 12 • Antzanborda • URDAZUBI • Tel.: +34 848 85 00 21



Abuztuaren 21eko mustrakan, boluntarioak bazkaria banatzen. KORO ETA MARIFA

Pastoralaren antolaketarako jendea behar da

Hainbat lanetan laguntzeko zerrendak daude lau herrietan eta posta elektronikoko bidez ere eman daiteke izena

KORO ETA MARIFA

Maddiren trajeria pastoraleko antolamenturako jendeen aldetik deialdi berezi bat egin dute, emanaldietako egunetan lanean aritzeko boluntario aunitz behar baitira. Kontuan hartu behar da ehun lagun baino gehiagok parte hartuko dutela pastoralean eta Xaretako herriak ez dira handiak.

Lau herrietan, Zugarramurdi, Urdazubin, Ainhoan eta Saran badaude izena emateko zerrendak, eta horretaz gain, Xaretako herritarra ez izanik ere, eskuzabal hartuko dituzten laguntzaileek e-posta ho-

netan ere ematen ahal dute izena: xaretanpastorala@gmail.com.

Hauek dira egiteko diren lanak: Gaueko segurtasuna, muntaketak, garraioa, trafikoa eta aparkalekua, sarrerak eta liburuxkak saldu, sarrerak kontrolatu, jendeari jarlekuak erakusten, desmuntatzen, garbiketa lanak, astoaren garraioa eta janaria.

Kontuan hartu behar da Zugarramurdi bi emanaldi eskainiko dituztela urriaren 15ean eta 16an eta Saran bertze biak, urriaren 22an eta 23an.

Denera 43 haur hasiak dira Zugarramurdi eta Urdazubiko eskoletan

KORO ETA MARIFA

Irailaren 8an hasi ziren gure ttikienak eskolan, eta bakan-tzetatik bueltako aldaketa poliki egin ahal izateko, lehen-biziko egun hortan lasai aritu ziren: behin bakoitzak beren gelan aurkezpenak egin ondotik, Urdazubiko eskolakoak Zugarramurdikorat etorri ziren, eta denak elkarrekin lezerat gan ziren. Ikuskizun pulita izan zen hainbertze haur gure karrketan ikustea.

Aipatzekoa da aurten, aspaldiko partez, ez dela hiru urteko haurrik hasi eskolan.

Bertzalde, orokorrean talde bat guttiago izanen da ikas-turte honetan, Lehen Hezkun-tzan bi maila elkartu beharrean, hiru maila elkartu baitituzte.

Orokorrean horrela dago ikasleria: Zugarramurdiko eskolan 20 haur (Haur Hezkuntzako bederatzi eta Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako hamaika), eta Urdazubikoan 23 (LHko 4., 5., eta 6. mailako hamalau eta DBHko lehen eta bigarren mailetako bederatzi).

Irakasleen aldetik, denetara hamaika dira.



KORO ETA MARIFA

Ipuin kontalaria eta musika oihanean

Irailaren 10eko arratsaldean *Ipuin kontalaria eta musika oihanean* ikuskizun ederra eskaini zuten. Herritik abiatu eta Urhaundiko errekarat gan ziren eta hango txokoetan momentu politak sortu zituzten, ipuin eta musika artean. Bi txanda egin behar izan zituzten, bakoitzean 20 lagunekin.

KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidad

INPRENTA-LANAK

RULEGO LENPRESAK
Papergintza | Gutun-azalak | Txartelak | Zigiluak...

ARGITALPENAK
Aldizkariak | Katalogoak | Besterako programak | Udai aldizkariak | Eskueriak | Liburuak | Mapak...

Ko-kontakobidea, 7-1,
31770 LESAKA
T. 948 63 54 58 | kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com

VENTA PEIO
GEBIAGO EMATEN DIZU

IBARDIN 31780 Bera
BEHOBA 20305 Iruin
LUZAIDE 31640 Luzaide
DANTXARINEA 31712 Urdax

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
Martxoaren 27-28 urterakoak. Pasa ezazu.

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800



Gazte aunitz izan zen ahate-jokoan. GANEX

Giro eder eta beroan joan dira aurten herriko bestak

Sara Korrika lasterketa Guillaume Levoy izan zen irabazle eta herriko kirolariak omendu zituzten

GANEX

Zail da bi argazkitan eta lerro gutti batzutan bestek eman dutena laburbiltzea, baina bi urteren ondotik, giro ederra izan dute. Larunbatean mendiko bizikleten ibilaldian jendetza handia bildu zen, Sara Korrikan bezalaxe: Guillaume Levoy irabazle. Arratseko kontzertuan 2.400 sarrera izan ziren. Igandeko meza nagusiaren ondotik, bi hilerrietan beteranoak ohoratu zituzten. Lur Berri gelan aperitifa izan zuten, herriko etxeak eskainia. Herriko kirolariak ohoratu zituzten, baita Joanes Etxebeste



Dantzariak plazan.

pailazoa eta Amets Arzalluz bertsolaria ere. Arratsaldeko autoen desfilean eta ahate-jokoan animazio handia izan zen. Hondar egunean, azienda prima eta bertsoak izan ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

Unax Aizpuruak irabazi du Lazkao Txiki

Irailaren 10ean egin zuten Ordizian Lazkao Txiki bertsopaper lehiaketaren sari banaketa. 13 urtez azpikoetan Unax Aizpurua Ibargaraik (kokoriko, ezkerreko lehena) lortu du lehenengo saria: 200 euro, Txikia oroigarria, eta Lazkao Txikiren bizipenak kontatzen dituen *Irriz eta malkoz* liburua.



UTZITAKO ARGAZKIA

Union Basque Batasuneko txapeldun

Errebotean, Union Basque Batasuneko finalak jokatu dituzte Itsasun. Kimuak mailan, azgazkian ezkerrean ageri diren Mani Vella Barneix eta Eneko Marin Imaz saratararak irabazle (30-17) izan ziren eta gaztetxoan mailan, Eneko Senperrena eta Arkaitz Agirre galtzaile Oztibarren kontra.

XX.SAGAR EGUNA

IRAILAK 24, LARUNBATA 17:30ean

SAGAR ERAKUSKETA
SAGAR DASTAKETA / TXERTAKETA
ZIZARRA PROBAKETA
ERROMERIA, TRIKITIXA...



Zatoz Ola Sagardotegira

(+34) 943 623 130 MEAKA AUZOA 102 IRUN



Ibarrungo Jondoni Petri bestak datoz hilabete hondarrean

Iharrriako ihiko zerrikume jatearekin abiatuko dira ortziralean eta lau egunez hainbat ospakizun izanen dituzte

JL BESSONART

Jondoni Mikel ospatzen da patroï gisa Ibarrun auzoan.

Irailaren 30a, ortziralea

20:00etan Inharria baserrian, ohiko afaria zerrikumea janarizat, Bidekoa taldeak alaiturik. Etxeratzeko taxia urririk.

Urriaren 1a, larunbata

13:00-16:00 Pala lehiaketako finalak. 17:00etan Beer-Pong txapelketa. 21:00etan Gezi herriko taldea. 22:30ean Honky Tonky Trio. Gauerdian Willis Drumond. 1:00etan DJ Gared.

Urriaren 2a, igandea

Triki Zaldubik animatua. 10:00etan Ibar'Run ibilaldia, emazteen minbiziaren kontrako borroka sustengatuz. 10:30ean Meza Inharrian, Emak-Horek alaiturik. 12:30ean



Zerrikumea protagonista Ibarrunen.

Zintzur bustitzea. 16:00etan Esku-huskakopartida. 17:00etan Patxi ta Konpania. 19:30ean Kantaldia, De Grands Enfants bikotea, 21:00etan Gaudia Bizounours txarangarekin.

Urriaren 3a, astelehena

10:00etan gazteen eskeak (2000. urteak). 19:00etan Aperitifa Bonneten Kuxkuxtuk alaiturik. 20:00etan, menu berezia Bonneten. 21:00etan dantzaldia Benat Elizondorekin.



JL BESSONART

Elkarteen Forua arrakastatsua

Sekulako jendetza bildu zen Larrekon buruilaren 3an egindako elkarten foruan. Elkarte aunitzek (70 badira herrian) parte hartu zuten beraien aktibitateak agertuz, hala nola kirolak, kulturari lotuak diren elkarteak, dantza, kanta, musika, argazki, margolaritza, maketa taillerak eta bertze.



Kimuen mailan, Senpereko finalistak Armendaritzeko txapeldunekin.

Herriko pilotari gazteak finalista izan dira esku-huska nahiz Joko-Garbin

JL BESSONART

Azkeneko urteetan sobera ongi usatuak ginen, bereziki esku-huska plazan senpertarrek Frantziako txapelak eskuratu baitzituzten, lehen mailan. Aurten, erran genezake ezti-xesago aritu izan direla, lehen mailan emaitzak apalxeagoak izan baitira. Haatik, uda honetako denboraldiak, Senperko pilotaren alde berri on batzuk utzi ditu, gazteen mailatan. Egia da txapelik ez dela etorri herrira, baina finaletan izan dira herriko pilotari gazteak.

Esku-huska, kimuak mailan plazan, Julien Haroçarene eta Ellande Doyarabalek doi-doi-etarik galdu zuten Frantziako finala, euri tanta batzuen artean, Armendaritzeko Iban Heguy eta Inaki Etcheverry bikotearen kontra (26-30). Euskal Herriko finalean ere

emaitza bertsua, oraingoan Mauleren kontra galdu baitzuten (22-30).

Bertzalde, xitoak mailan, Oihan Iciagak eta Jokin Jaurregik finalerdietan 26-30 amore eman zuten Noizbaiteko txapeldunen kontra.

Aipatzekoa ere Joko-garbin gure xitoak ailegatu direla finalera, baina Hardoitarren kontra galdu egin zuten (21-40). Hauetan ziren Oihan Iciaga, Matiu Hacala eta Odei Larreboure-Bonnet. Azkeneko hein honetako finala iragan zen duela 40 urte. Orduko final hartan aritu zen gaur egun trebatzaile suharra den Michel Larrea.

Herriko pilota elkartearen altxor batzuk ari dira sortzen, baldintza onetan segituz, ingurumenaren laguntzarekin, norabide onean dabiltza, ez etsi.

Xendarineko Ahizpek girotuko dute Udazkeneko Baserriko Uzta urriaren 8an

TTIPI-TTAPA

Nafarroa Behereko Ibarlako Oihanartia etxaldeak Jauregia etxaldearen txanda hartuko du Udazkeneko Baserriko Uzta ekimenaren ospakizunean. Ekitaldia goizeko 10:30ean abiatuko da ongi etorria eta etxaldearen bisitarekin. Xen-

darineko Ahizpak, bikote urepeldarrak, kantuz girotuko du hitzordua 12:30etik aitzinera. Gero bazkaria egingen dute EHKOLEktiboko kideen base-riretako elikagaiekin osatuta. Parte hartzeko aitzinetik ize-na eman behar da (30 euro): www.ehkolektiboa.eus



Uterga eta Mitxeok erraz irabazi zieten Otxandorena eta Saldias Artaxoan.

Doneztebera dator Nafarroako erremonete txapelketa ortziralean

Otxandorena eta Saldias, Jabaleta eta Agirrezabalaren kontra eta Uterga eta Mitxeo, Matxin III.a eta Otanoren kontra ariko dira

TTIPI-TTAPA

E-Remonte Beti Euskal Jai Berri enpresak antolatutako binakako erremonete profesionalen txapelketako hirugarren jardunaldia jokatu dute irailaren 23an, ortziralean 19:00etan Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan. Bortz bikote ari dira txapelketa hone-

tan eta Malerrekako bortz erremonetista eta bortzak Donezteben lehian ikusteko aukera izanen da. Lehen partidari, Eloi Otxandorena doneztebarrera eta Aimar Saldias oiztarra, Aimar Jabalera doneztebarraren eta Agirrezabalaren kontra ariko dira. Bigarren partidari, Xanti Uterga eta David Mitxeo

doneztebarrek, Matxin III.a eta Otano izanen dituzte ariario. Txapelketako jaialdi guztietan bezala, Donezteben bildutako dirua ADANora bideratuko dute.

Doneztebekoaren aitzinetik, Artaxoan irailaren 11n jokatu-tako lehen jardunaldian garai-pen garbiak lortu zituzten Utergak eta Mitxeok (35-23 Otxandorena eta Saldiasen kontra) eta Zeberio II.ak eta Ionek (35-18 Jabalera eta Agirrezabalaren kontra). Altsasun irailaren 16an jokatzekoa zuten bigarren jardunaldia eta ondotik, Agoitzen irailaren 30ean eta Irunberrin urriaren 16an jokatu ditzuten hondarreko biak. Ligaxkako bi bikote onenek finala jokatu dute urriaren 22an Tafallan.

Urriza txapelkun buruz buru

Oriamendik antolatutako buruz buruko erremonete txapelketa nagusiaren finalean, Javier Urrizak bere zortzigarren txapelketa lortu zuen, Endika Barretxea IV. ari 30-27 irabazita irailaren 10ean Hernaniko Galarretan jokatu-tako finalean. Lehia estua eta partida ederra eskaini zuten. Aritz Juanenea saldiastarra finalerditik kanpo gelditu zen.

Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketa urriaren 8 eta 9an

ARANTXA ETA IRAIA

Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketako izen ematea irekia dute. Urriaren 8 eta 9an urteroko Gaueko Lanak lasterketa eta maratoi erdia antolatu da. Bederatzi kilometro eta erdi luze izanen dituen larunbateko Gaueko Lanak lasterketan izena emateak 15 euro balio du, igandeko maratoi erdian 25 euro eta bi probak eginen dituzten aurtetik 35 euro ordaindu beharko dute. Parte hartu nahi duenak www.njuko.net/ukl_2022/select_competition web orrian eman beharko du izena.

Aurten, antolatzaileek berrikuntza bat prestatu dute: 21 kilometroko maratoi erdiak ibilbide berria izanen du Urdazubiko eta inguruetako txoko berri ikusgarriak ezagutzera emateko.

Aipatzekoa da azken bi edizioetako proba konbinatua (gaueko lasterketa + mendi maratokia) Hodei Lujanbio goizuetarra nagusitu dela.



UTZITAKOA

Xabier Valverde Euskadiko txapeldunorde

Euskadiko trial txapelketa jokatu zen irailaren 10ean Lukon (Araba). Lesaka trial taldeko Xabier Valverde txapeldunorde izan zen kadete mailan (oraindik infantila bada ere) eta Uxuri Portuk laugarren postua eskuratu zuen alebin misto mailan (hau ere bera baino nagusiagoekin).



UTZITAKOA

Oinatz Bengoetxeari agurra Azkoien

Urriaren 10ean egiten dioten azken agurraren aurretik han eta hemen bere azken partidak jokatu ari da Oinatz Bengoetxea. Argazkia irailaren 7ko Azkoien esku-pilota eta erremonete jaialdi mistoan ateratakoa da: Uterga, Saldias, Zeberio II.a eta Ion erremonetistekin batera ageri da Oinatz.



Bakarka, podiumera igo ziren gizonezko eta emakumeak. UTZITAKOAK



Erreleboka, sunbildarrak izan ziren podiumeko bi koska gorenetan.

la ehun kirolari Igantzikoko mendi duatloi lasterketan

Josu Urrestarazu eta Enara Oronoz nagusitu ziren banaka eta Aitor Blanco eta Koldo Urroz sunbildarra binaka

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Euskal Herriko mendi duatloi zirkuituaren barrenean aurtengo lehen proba egin zuten irailaren 4an Igantzin, Igantziko Biltoki elkarteak antolatuta. Igantziko mendi duatloi lasterketaren hirugarren edizioan, nagusietan, 97 txirrindularik hartu zuten parte, 47

bakarka eta 25 bikotek. Horietaz gain, herriko neska-mutikoen ere parte hartu zuten, herri inguruan egindako ibilbide laburrago batean.

Kirolari nagusiek 4,3 kilometro egin behar zituzten lasterka, 18,4 kilometro mendi bizikletan eta azken 4,3 kilometroak berriz ere laster-

ka eta ibilbide gogorri ez ezik, eguraldi beroari ere aurre egin behar izan zioten.

Gizonezkoen artean, banaka, Josu Urrestarazu izan zen bizkorrena (1.44.16), Paul Bereziartua bigarren (1.45.42) eta Endika Mantecon hirugarren (1.48.35). Igantziarren artean, Mikel Urtxegi izan zen bizkorrena (2.02.56).

Emakumeen artean, Enara Oronoz izan zen garaile (2.15.52), Maddi Mujika (2.24.40) eta Nekane Praderaren (2.32.56) aitzinetik.

Erreleboka sunbildarrak bikain

Erreleboka egindako proban, podiumaren goreneko bi koxketara sunbildarrak igo ziren.

Lehen postua Aitor Blancok eta Koldo Urrozek lortu zuten (1.34.32) eta bigarrena Ekaitz eta Eneit Bertiz anaiek (1.41.56). Hirugarren postua Iker Irastorzak eta Beñat Aizpuruak lortu zuten (1.43.48).

Erreleboka aritu ziren igantziarrei dagokienez, Xabi Aranguren, Dani Iparragirre aranztarrarekin bikote eginez izan zen bizkorrena (1.48.00), Ainhoa Ubiria lesakarrarekin aritu zen Imanol Retegi bigarren (2.13.50) eta David Begino eta Zumai Txoperena hirugarren (2.19.07).

Igantzikoko probaren ondotik, Euskal Herriko mendi duatloi zirkuituak segida izanen du hainbat herritan egiten ari diren probekin.



ERREKA KE

Eskubaloi denboraldia hasteko derbia

Eskubaloi denboraldia abiatzeko hitzordu bikoitza izan zuten irailaren 10ean Doneztebeko kiroldegian. Emakumezko seniorretan, hasi berriak diren Errekak galdu egin zuen Baztango BKTren kontra eta Errekako gizonezko seniorrek ere galdu egin zuten BM Ardoi B taldearen kontra



J. ZUBIETA

Beti Gazteko jubenilak euskal ligan

Lesakako Beti Gazteko jubenilek historian lehen aldiz euskal ligan jokatzeko hasiak dira. Estreinako partida Basaurin jokatu zuten irailaren 11n, Bilboko Athleticen harrobiko Basconiaren kontra. Partida ederra jokatu zuten eta aitzinetik izan ziren markagailuan, baina 2-1 galdu zuten azkenean.

IRAILAK 22 - URRIAK 6

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



UTZITAKOIA

ARESO Nazabal eskolaren mendeurren festa

Eskolara bisita, emanaldi berezia, kalejira, argazki erakusketa, bazkaria, bideo emanaldia, batukada eta pintxoak. Urriaren 1ean, 11:00etatik aurrera.

ZINEMA

IRURITA

'Apaiz kartzela' filma

Gizarte Bilgunean, irailaren 22an, 19:00etan.

LEITZA

Zinema

Herri Aretoan, urriaren 1ean eta 2an, 16:30ean 'DC Supermaskoten Liga' eta 19:00etan 'Ali & Ava'.

JARDUNALDIAK

ITUREN

Joaldunen Eguna

Irailaren 24an.

ELIZONDO

Behi azienda pirinotarraren XXXIII. lehiaketa enkante nazionala

Irailaren 24an eta 25ean.

LESAKA

Danboligenak topaketa

Irailaren 24an eta 25ean.

ETXALAR

Usategietako tradizioaren besta

Irailaren 25ean.

ARESO

Nazabal eskolaren mendeurren festa

Urriaren 1ean.

IRURITA

Mahai-jokoen kutxa ibiltaria

Urriaren 1ean eta 2an.

EMANDALDIAK

BERA

'Bidaide' antzerkia

Metrokoadroka sormen laborategia. Kultur etxean, irailaren 24an, 19:30ean.

ELIZONDO

'Olatu arteko txalupa arraroa' poesia eta musika

Ines Osinaga eta Joseba Sarrionandiarekin. Arizkunenean, irailaren 25ean, 18:00etan.

MUSIKA

LEITZA

Motxila 21 taldea

Herri Aretoan, irailaren 24an, 19:00etan.

LESAKA

The Malcom Young Band eta Janus Lester taldeak

Plaza zaharrean, irailaren 24an, 23:00etan.

BERA

Oscar Candendoren organo kontzertua

Elizan, irailaren 30ean, 19:00etan.

IKASTAROAK

LESAKA

'Oinarrizko gaitasun digitalak eta administrazio elektronikoa'

Harriondoan, irailaren 26tik urriaren 7ra, 09:15etik 13:15era. Izen-ematea: 948 012 012.

ETXALAR

'Emozioak haurrekin landuz'

Irailaren 26an, 17:00etan.

LEITZA

Hipopresiboen tailerra

Kiroldegian, irailaren 27an eta 29an eta urriaren 4an eta 6an, 11:00etatik 12:00etara. Izen-ematea: 948 510 719.

MINTZALDIAK

LESAKA

'Behin batean' ipuin kontaketa

Liburutegian, irailaren 22an, 17:30ean.

ELIZONDO

'Idorteen, suteen, alimaleko beroen garaian... ekologia gehiago!'

Iñaki Barcenarekin. Ahaztuen plazan, irailaren 23an, 19:30ean.

ETXALAR

'Amaiur! Libera State' hitzaldi ilustratua

Asisko Urmenetarekin. Kultur etxean, irailaren 30ean, 19:00etan.

ERRATZU

'Amaiur' ipuin kontaketa

Amaia Elizagoienekin. Plazan, urriaren 1ean, 17:00etan.

AZOKAK

LESAKA

Merkatu ttikia

Behoko plazan, irailaren 24an, 10:00etan.

ELIZONDO

Baztango artisauak eta nekazariak

Plazan, irailaren 24an eta urriaren 1ean, 10:00etatik 14:00etara.

«Sokatiran pertseberantzia da garaipenerako gako»

MARIA IANTZI IRIGOIEN IGANTZIKO GAZTEA



«Kirola, musika, dantza, bidaia-tzea... eta besta pixka bat egitea» gustuko duen gaztea da Maria Iantzi Irigoien (Igantz, 1998). Ttikitatik aritu izan da pilotan, palan eta dantzan, baina «sokatirarekin batera» hasi zen bertzelako kirolak probatzen; «mendia, lasterka eta bizikleta batik bat. Fisikoki ongi egon behar nuenez, kirolari denbora eskaintzen hasi nintzen eta gaur egun afizio bihurtu da».

Pertseberantzia gako

2017an hasi zen Beti Gazten sokatiran; «pare bat urte lehen-txago emakumezkoen taldea berreskuratu zuten neska batzuk, orain taldekide direnak, eta probatzera gonbidatu ziguten. Ze lanak hasieran!»

Geroztik hainbat txapelketetan parte hartu du, baita txapelak jantzi ere. Gakoa

«pertseberantzia» dela dio, «teknika eskatzen duen kirola da eta lortzea kostatzen denez, ari eta ari ibili behar da, beti hobetzen saiatzeko». Honez gain, «entremendu eta esfortzu pertsonalerako konpromisoa» azpimarratu ditu, «eta nola ez, talde giro onak aunitz laguntzen du».

Hala ere, «egun txarrak ere» dituztela azaldu digu; «taldea fisikoki zein psikologikoki indartsu mantentzeko ahalegina egitea oinarrikoa da. Pertsonak gara eta gure lan, egoera eta biziak ditugu, ezin gara beti %100ean egon.

**«BIZIKLETARI
ESKER TXOKO
POLIT AUNITZ
EZAGUTU DITUT»**

Horregatik, elkar ezagutzeak aunitz laguntzen digu, elkar zaindu eta taldea orekatzeko». Gainera, «mutilen taldekoak beti ondoan ditugu eta haiengandik aunitz ikasi dugu».

Sokatira «bide onetik»

Emakumezkoen sokatira Nafarroan «geroz eta gehiago zabaltzen ari dela» dio Iantzik, «talde dezente gara, emakumeen eta gizonaen partaidetze berdintsua dela erratertera ausartuko nintzateke». Iruñerri inguruan «talde mordoxka» daude eta gure eskualdean «zorionez Amaiurrek sokatira taldea berreskuratu du, emakumezko zein gizonaen artean. Seinale ona!».

Txapelketetan berezitako kategoriak eta mistoa jokatzeko dituzte, «eta frontoian goma bat baino gehiago egotean ikusgarritasuna parekoa izaten dela» dio. «Arauren bat edo berte birplanteatu» daitekeela gehitu du, «baina bide onetik goaz».

Bizikletan ere trebe

Pedalei ere eragiten die Iantzik; «etxean hautsa hartzen ari zen bizikleta estatikoa erabiltzen hasi ginen konfinamenduan. Kanpora ateratzen utzi ziguten egunean anaiaren karreterako bizikleta probatu nuen eta sentsazioa aunitz gustatu zitzaidan».

Errepidetik ibiltzen da, ez baitu mendiko bizikletarik. Hala ere, «behin lagun batek utzita kuadrillakoekin probatzera atera nintzen eta sentsazio arront desberdina izan zen. Azken aldiaren pentasatut berriz ere probatu behar-ko nukeela».

**«IGANTZI BIZIRIK
DAGOEN SEINALE
DIRA HERRIKO
BESTAK»**

Bizikletari esker «Iparralden ezagutzen ez nituen txoko polit aunitz» ezagutu ditu, «leku zoragarriak ditugu inguruan, baina ez nintzateke gustuko den leku bat aipatzeko gaitzenen».

Herriko bestetarako prest

San Migel bestak ospatuko dituzte aurten Igantz, bi urteko geldialdiaren ondoren, eta «hagitz gogotsu» dago Iantzi. «Norbere herriko bestak beti dira bereziak eta gaitz nontzeko herriek beraienak ospatu ondoren, gu ere gureak ailegatzeko gogoz gaude».

Herritarrak ere gogotsu ikusten ditu; «iraila nahiko bete eta etorri zaigu: Mendi Duatloia, berreskuratu dituzte Berrizaungo bestak, dantza saioa, frontenis eta pilota txapelketa... bestetako motorrak berotzen ari gara denok».

Egun berezi hauetan «herria kolorez jantzen da; zapi berdeak, blusak, zintzilikatutako banderak... Herria bizirik dagoen seinale dira bestak: jendea kanpoan, ostataua bete, eguraldi atsegina, txaranga, buruhandiak, haurrak alde batetik bertzerara lasterka gerriko poltsekin... sortzen den giro goxoa da gehien gustatzen zaidana».

Bestek bi bereizgarri dituztela dio. «Batetik, iraila beti errutinara bueltatzeko hilabetea da eta bestak parentesi tiki bat dira, buelta gogoz hartzeko. Bertetik, beti lotu izan ditut herriko bestak udazkeneko haizego goxoarekin, besta kanpoan egiten laguntzen duena».

Azkenik, jendea sokatira probatzera animatu du; «konpromisorik gabe solastatu dezakezue gutako edozein edo taldeko instagrametik (@betigazte_sokatira)». Bertetik, «denak Igantziko bestetara ongi pasatzera etortzeko animatu nahiko nituzke, giro ederra izaten da eta!».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI



IGANTZI. 85 m²ko pisu zaharberri-tua salgai: 3 logela, egongela eta sukaldea bizbat eginak, bainugela 1, balkoia, trastelekua eta garajearekin. Argitsua. Interesatuek goiz eta arratsaldean deitu. ☎649 11 06 11.

BERA. Pisua salgai. Izpoz, 16-1. esk. 85 m². 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Etxe berria. ☎664 36 64 47.

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Irailetik aitzinera, logela bat errentan emateko. ☎676 85 50 56.

LESAKA. Etxebizitza atxiki ttiki bat (adosatua) errentan emateko. ☎628 03 25 58.

ERRENTAN HARTZEKO

Irungo bikote euskaldunak etxea, pisua edo baserria errentan hartuko luke Bortziriak, Malerreka edo Baztan inguruan. 600-800 euro ordaintzeko prest, berme guztiekin. ☎693 69 49 76.

Bikote gazte batek, lan kontuengatik denboraldi luzerako etxebizitza errentan hartuko luke Bertizarrana-Donztebe-Baztan aldean. Ez zaie inporta zerbait moldatu behar bada. ☎633 49 19 96 / 646 69 04 73.

LESAKAN edo **BERAN**n errentan hartzeko pisu bila. ☎640 65 04 22.

BAZTANen (Elizondon nahiago) logela bat edo 1-2 logelako pisu edo apartamentu ttikia errentan hartu nahi dute. ☎612 46 74 71.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Garajeko marra errentan emateko, Beheko Plazan. ☎ 675 71 43 60.

DONEZTEBE. Ostalaritzako negozioa errentan emateko (Pepa's). Funtzionamendu betean. Bi lagunendako aproposa. Aparkatzeko leku egokia. Haur parkearen ondoan. ☎677 59 85 64.

LANA

ESKAINTZAK

IRUN. Irun kanpoaldean dagoen Ola sagardotegian zerbitzari bila ari dira.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 EURO** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 EURO** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

Ttipi-ttapa aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **BIZUM** bidez (744 48 43 61)

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

Urte osoan, lanaldi osoan aritzeko, 40 ordu. olasagardotegia@hotmail.com.

BERA. Kotxeen tailer batean esperientzia duen mekaniko bat behar dute. Idatzi helbide honetara: bera-motortaller@gmail.com.

BERA. Botxo ostatuan sukaldaria edo sukaldari laguntzailea behar dute, asteleheneetik ortziralerara. ☎617 72 34 75.

BERA. Zalain jatetxean zerbitzaria behar dute. ☎617 72 34 75.

Lozy's Pharmaceuticals goxoki farmazeutikoen enpresan, produkzio arloan lan egiteko langileak behar dituzte. Enpresa honetan garatu nahi baduzu, apunta zaitetz. xabier.aldu-nate@lozyspharma.com.

DANTXARINEA. Maspormenosen jendea behar dute lanaldi osoan. Kirol artikulu eta arropa teknikoan

denda. Bidali curriculum xabi@maspormenos.net helbidera. Frantsesa jakitea kontuan hartuko dute.

LESAKA. Atxaspi hotelean langilea behar dute. Lanaldi osoan edo erdian. Bidali curriculum hotela@atxaspi.com helbidera edo deitu telefonoz. ☎673 33 99 20 / 948 63 75 36.

BERA. Errekalde ostatuan sukaldaria behar dute. Idatzi errekaldeostata@hotmail.com helbidera.

ARANTZAko Aterpean sukaldari laguntzailea behar dute urrian lanean hasteko. Interesatuek bidali curriculum aterpe@arantza.net helbidera.

ESKARIAK

19 urteko neska elizondoarra heldu den kurtsorako lan bila. Haur Hezkuntza ikasteaz gain, haurrak zaintzen esperientziaduna. ☎621 29 71 17.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

- Idixkoak: €/kg kanal**
- Extra 4,94
 - 1.koa 4,82
 - 2.koa 4,70

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,05
- 1.koa 4,91
- 2.koa 4,80

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 160,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 110,00
- Idixkoak 150,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,86/4,96
- Zaldi-behorrak 2,18/2,35

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 9,10/9,20
- 8-10 kilokoak: 7,40/8,10

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 65 €

Zerri gizona 1,722 €

Zerramak 0,810 € kg/ bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua irailaren 2tik 9ra bitarteko prezioak)

Berako haur hezitzaile gazte bat haurrak zaintzeko gogotsu. 0-3 urte bitarteko haurrekin esperientzia izanik, irailetik aitzinerako arratsaldeetan zaintzeko prest. ☎638 21 01 89.

ZERBITZUAK

ZURGIN LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

ANIMALIAK

OPARITZEKO



IGANTZI. Hiru katakume oparitzeko. Lasaia, jendearekin ohitua. ☎695 51 07 54.

Txakurra oparitzeko. 3 urteko setter arra oparitzeko. Zaintzeko denbora faltagatik. Zuria eta beltza, oso polita. ☎661 15 70 54.

SALGAI

Txerrikumeak salgai bizirik edo labean erretzeko prestatuta. Informazio gehiago Whatsappez edo telefonoz. ☎690 98 61 18.

DENETARIK

SALGAI




Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

Jeep bat eta belarra mozteko segadora handia salgai. Egoera onean biak. ☎666 66 36 42 (deitu 18:00etatik aitzinera).



Mondraker Ventura Racing bizikleta salgai. Hagitz egoera onean. 380 euro. ☎649 47 19 76.



Yamaha P45 B piano digitala salgai la erabili gabea. 350 euro. ☎649 47 19 76.




Etxeko su egurra salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanen dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. ☎629 45 14 26.



Furgonetarako **bizikleta eramatekoa** salgai. Oso gutxi erabilia eta egoera bikainean. Mercedes markakoa. ☎683 27 31 65.

BERTZELAKOAK



SUNBILLA. Aita arotza nuen eta orain urtebete pasatxo hil zen. Berak egindako oheburukoa 90eko ohe baterako da, baina nik dudana 150ekoa da. Arotzen bat topatu nahiko nuke konponketaren bat egin eta oheburuko hau ohe handira moldatzeko. ☎652 74 74 61.

DONEZTEBE. Ostalaritzako negozioa eskualdatzeko (Pepa's). Funtzionamendu betean. Bi lagunendako

aproposa. Aparkatzeko leku egokia. Haur parkearen ondoan. ☎677 59 85 64.

Michelin Energy 175/65R 14 autoen gurpil berriak salgai. 5 gurpil: 4+1 ordezkioa. Laurak 80 eurotan bakoitza (+7 euro bidali behar baldin bada). ☎687 92 64 14.

GALDU-AURKITUAK



BERA. Weimar Braco arrazako galdu zen abuztuaren 18ko eguerdian. Azkenekoz Ansonea hostalaren inguruan ikusi zuten. ☎684 29 64 35.

MOTORRAK

SALGAI



ITUREN. Toyota Rav4 Sol 4x4 salgai. Egoera onean. ☎639 43 95 09.


Peugeot 5008 auto beltza salgai. 7 urte ditu eta 59.000 kilometro. Tindatu berria. Doneztebeko Sampi Aragon tailerrean ikusgai.

TAILERRAK

URTEBETETZEAK



Xumai Zelaieta Urrizak irailaren 6an urtea egin du. Zorionak eta muxu asko Oiztik beltza!



Oiartzungo **Arene Larregi Indakoetxeak** urtea beteko du irailaren 24an. Zorionak Arantzako eta Elizondoko familien partez, eta bereziki izeba Lidiaren partez.



Jare eta **Endara Maia** lehengusinek urteak beteko dituzte urriaren 5ean eta 6an. Muxu haundi bat eta zorionak familia osoaren partetik. Ze gustura ospatuko dugun!!!



Aunitz urtez **Ruben!** Gure baztandar gazteak urteak beteko ditu urriaren 4an. Ongi ospatu zure eguna!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak **TTIPI-TTAPAN!**

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta.

TTIPI-TTAPANren **bulegora** etorrita edp **postaz** argazkia eta testua helbide honetara bidalita: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA

Whatsappez 744 48 43 61 telefonora idatzita.

Ordaintzeko: 5 € argazki ttikia eta 10 € handia.

Bulegoan eskudirutan edo ERRAN.EUS/TPV/ORDAINKETA

webgunean sartuta: kreditu txartelarekin, transferentzia eginez edo Bizum bidez.

OROIGARRIA



Rosario ALZUGUREN IRAZOKI


Zure eskutik eginak ditugu lehenbiziko pausoak,
eta zurekin ikasi genituen lehenbiziko hitzak ere,
kantuan segur aski.
Eskolatik lasterka etorri
eta terraza iskinatik oihu egitean,
beti izaten genuen bueltan zure ahotsaren oihartzuna.
Baratzeko lanetan, segan, ezpela pasatzen nahiz
jardinean ibili: amatxi non, gu harat.
Geroztik joan dira urteak, poz eta galerak,
oroimena ere lausotzen joan zizaitzun.
Hala ere, Altsuperera etorri
eta beti izan dugu zure besoetan txoko bat,
besarkada goxoan atsedean hartzeko aukera.
Begiak beti irriz irriz, babesa izan zara;
gerizpe eta maitasun inkondizionala.
Ondorengoek ere aditu dezaten,
orain barrenean bilatuko dugu
zure ahotsaren oihartzuna: Larhun magaleko
larreetan, Panxoa eta Peioren kantuetan,
amoña Esperantxaren kontuetan...
Gora Kaule Baitako Roxari,
Altsuperoko ama eta amatxi.

OROIGARRIA

Eneko REKARTE OTEIZA

Donamarian, 2022ko irailaren 11n

Hementxe gaude, hementxe gaude,
momentu gordin tristia,
ezin jakinez nola eskertu
eman diguzun guztia.
Langile fina eta argia,
gainezka borondatia,
zirikatzaile umoretsua,
Txungito ezin hobia.
Betirarte zure irria,
Betirako zure argia.



TXUNGITUK

OROIGARRIA

Eneko REKARTE OTEIZA

Zure begiak argi bi dira
gaueko iluntasunean
erabat galdurik sentitutzen naiz
zu faltatzen zarenean
irri goxo hori beharrezko det
unerik tristeenean
eguzkia ekaiz denean
ilargia gau beltzean
nere bizitza zu gabe maite
galtzen da ezerezean
zuretzat Eneko leku bat dago
gure bihotz barrenean.



MIREN, URKO ETA OIER

HILBERRIAK

- **Francoise Sathicq**, Sarakoa, irailaren 1ean, 88 urten zituela.
- **Miguel Martinez Laskurain**, Berakoa, irailaren 1ean, 94 urte zituela.
- **Miguel Arribillaga Soroa**, Leitzakoa, irailaren 4an.
- **Joaquin Gastesi Barandarin**, Leitzakoa, irailaren 5ean, 85 urte zituela.
- **Pilar Aramendi Izquierdo**, Berakoa, irailaren 6an, 72 urte zituela.
- **Julian Irisarri Jorajuria**, Elgorriagakoa, irailaren 10ean, 78 urte zituela.
- **Eneko Rekarte Oteiza**, Donamariakoa, irailaren 11n, 44 urte zituela.
- **Luis Plaza Zugarramudi**, Zalain Zokon, irailaren 11n, 69 urte zituela.
- **Jose Mari Garbisu Irazoki**, Zalain Zokon, irailaren 11n, 74 urte zituela.
- **Engraxi Marzol Labaien**, Aresokoa, irailaren 12an.

EZKONTZAK

- **Xteeev Bouvard** eta **Sarah Perez**, abuztuaren 13an Saran.
- **Benjamin Goia** eta **Ezitzu Ameztzi**, abuztuaren 20an Saran.

IZARRA
HAMIL, ZURE ONDORRI
ANIMA ETZARRO

Gure lurra,
gure jendea,
gure sustraiak

TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

BB
BAZTAN BIDASOA
Gure herria zure herria

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidaso.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidaso.com

Betiko taldea zu laguntzeka

IRACHE
tanatorioak


Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruflea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara


24 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

HITZ GEZIDUNAK

	Ahalmenak	Deitura	Gari	Emakume izena	Txori mota
	Ahaleginak egin	Erret	Emakume izena	Idelari diageklona	Jakingarria
	Etsenplak				
	Iranda				
Jamaikako herritar	Kristauen bigunea			Maha	
Magoak egiten du	Irrena			Gurasoen aitak	
			Bokala	Bokai errepikatua	5. eta 1. bokatak
			Gipokoako udalerrria	Konfikan antolatzailea	Eskumutur
Tartoa adinuzteko gaitua					Zuek bai, zuek
Lenai			PL, elikatze modua		Azkeneko letra
			Parisko ibala		Herri baxenabartarra
Alderantziz, bai eta bai	Sute		Errep. fruta mota		Bibi, gorau
Ekiteko ahalmena	Gizon da ingelesez		Ardi, hitz elkarketa		Bokala
				Ni neu	
				Juinko egiptotarra	
Alfonso herriarra					Gutziz bete
Sarritarren ordua					Bokai borobila
			Zapata orpoak		

◆ Erizaina eta Aroztak taldeko kidea

GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Bizkaiko Dimako herritar.
- [2] Hegazti harraparia, gabiraia.
- [3] Zerua. [4] Zortea, patua.
- [5] Ekintza gaitzegarria. [6] Gure lurraldeko udalerrria, Malerrekan.
- [7] Da, baina hari. [8] Herri, aberri.
- [9] Oinak lurrean uzten duen aztarna edo seinale. [10] Albiste.
- [11] Limoia, iparraldeko gure haurrideek erraten duten bezala.

ERANTZUNAK




PLAZAN BAZAN




ITZALA

Hondarretan gazteluak egitea bai dibertigarria! Zein da Markelen itzal zuzena?




DOMINOAN

Bete itzazu lauki zuriak, domino-zati honek zentzua izan dezan.



ITSASPEAN

Marraztu marmokak eta arrain mordoa itsaspean eta itsasuntzi bat ur gainean



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK

-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Keskuntako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

813 zenbakiko
irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Esther Etxeberria Irazoki | ELIZONDO

Buatxabal - Kamiseta bat
Garikoitz Garcia Lanz | LEITZA

Martiko - Lote bat
Alberto Agirre Iturria | ETXALAR

Mendukilo - Bi sarrera
Esteban Otxandorena Maiora | ALMANDOZ

Irrisarri Land - Sarrera bat
Jose Manuel Otxandorena | ELGORRIAGA

Okile tailerra - Eguzkilore bat
Tere Sagaseta Sagaseta | DONEZTEBE

Wow Park - Sarrera bat
Lourdes Lazkano Leonis | BERA

Airaka - Bi CD
Juan Miguel Otaizola | ZUGARRAMURDI

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

SALTING IRUÑA

www.salttingcenters.com



Bi sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEA

www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com



Sarrera bat

KIMETZ

www.kimetzbelardenda.com



Saski bat

WOW PARK

www.wowpark.fr



Sarrera bat

Wowpark
Votre Parc Aventure



**LI
BU
RU
AK**



Bi liburu

erein
ERRENTA
www.erein.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.ikaselkar.eus



www.aquariumss.com